

GIPUZKOAKO  
BATZAR NAGUSIEN  
ARAUDIA

2019ko apirilaren 9ko

datan dagoen testu bateratua

2023an inprimatuta



# GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **AURKEZPENA**

Argitalpen honen oinarri gisa, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrenak, Edorta Cobreros Mendazonak, José Manuel Castells Artechek eta Ana María San Miguel Osabak Gipuzkoako Batzar Nagusien Araudiaren gainean prestatutako lana erabili da, hain zuzen ere, Gipuzkoako Batzar Nagusiek 2007ko martxoan argitaratu zutena. Lan hari honako hauek erantsi zaizkio: batetik, hainbat oinohar, orduz geroztik egin diren arau-aldaketei buruzkoak; eta, bestetik, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak —Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa— eta 2007ko apirilaren 10eko 7/2007 Foru Arauak —Gipuzkoako Batzar Nagusietan herritarren arau ekimena arautzekoa— jasotzen dituzten eranskinak. Halaber, legedia-erreferentziak eguneratu dira.

### **TESTU BATERATUA**

Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak 2014ko uztailaren 2ko eta 2019ko martxoaren 27ko saioetan onartutako Batzar Nagusien Araudiaren aldaketak jasotzen ditu (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren aldaketak 2014ko uztailaren 9an, 129 zenbakiko alean, eta 2019ko apirilaren 3 eta 9an, 64 eta 68 zenbakietako aleetan).

Donostian, 2019ko apirilean.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA .....</b>	<b>4</b>
<b>HITZAURREA.....</b>	<b>9</b>
<b>ATARIKO TITULUA .....</b>	<b>12</b>
<b>GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN IZAERA ETA ANTOLAKETA .....</b>	<b>12</b>
<b>LEHENENGO TITULUA .....</b>	<b>15</b>
<b>BATZAR NAGUSIAK ERATZEA .....</b>	<b>15</b>
I. KAPITULUA .....	15
BATZARKIDEAK AKREDITATZEA ETA KARGUEN JABETZA HARTZEA .....	15
II. KAPITULUA .....	17
MAHAIKO KIDEEN IZENDAPENA .....	17
III. KAPITULUA .....	19
BATERAEZINTASUNEN BATZORDEA .....	19
IV. KAPITULUA .....	21
OSOKO BILKURARAKO DEIALDIA DIPUTATU NAGUSIA IZENDATZEKO.....	21
<b>BIGARREN TITULUA .....</b>	<b>22</b>
<b>BATZARKIDEAK.....</b>	<b>22</b>
I. KAPITULUA .....	22
BATZARKIDEEN ESKUBIDEAK .....	22
II. KAPITULUA .....	26
BATZARKIDEEN BETEBEHARRAK .....	26
III. KAPITULUA .....	28
BATZARKIDE-IZAERA KENTZEA ETA GALTZEA .....	28
<b>HIRUGARREN TITULUA .....</b>	<b>30</b>
<b>BATZARKIDE-TALDEAK.....</b>	<b>30</b>
<b>LAUGARREN TITULUA .....</b>	<b>34</b>
<b>BATZAR NAGUSIEN ANTOLAKETA.....</b>	<b>34</b>
I. KAPITULUA .....	34



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

MAHAIA.....	34
II. KAPITULUA .....	39
BATZORDE IRAUNKORRA.....	39
III. KAPITULUA .....	41
BOZERAMAILEEN BATZORDEA.....	41
IV. KAPITULUA .....	43
BATZORDEAK.....	43
V. KAPITULUA .....	59
OSOKO BILKURA .....	59
VI. KAPITULUA .....	60
BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.....	60
<b>BOSGARREN TITULUA.....</b>	<b>61</b>
<b>FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK .....</b>	<b>61</b>
I. KAPITULUA .....	61
BILKURAK .....	61
II. KAPITULUA .....	64
GAI-ZERRENDA .....	64
III. KAPITULUA .....	65
EZTABAIDAK.....	65
IV. KAPITULUA .....	69
BOZKETAK .....	69
V. KAPITULUA .....	75
EPEAK ZENBATZEA ETA AGIRIAK AURKEZTEA .....	75
VI. KAPITULUA .....	76
GAIK PRESAKOTZAT JOTZEA .....	76
VII. KAPITULUA .....	77
BATZAR NAGUSIEN ARGITALPENAK ETA HAIEN LANEN PUBLIZITATEA .....	77
VIII. KAPITULUA .....	79
BATZAR NAGUSIEN DIZIPLINA .....	79
IX. KAPITULUA .....	84
LEGBILTZARREKO IZAPIDEAK IRAUNGITZEA.....	84
<b>SEIGARREN TITULUA.....</b>	<b>85</b>
<b>ARAUGINTZA-PROZEDURA .....</b>	<b>85</b>
I. KAPITULUA .....	85
ARAUGINTZA-PROZEDURA ARRUNTA .....	85
II. KAPITULUA .....	97
ARAUGINTZA-PROZEDURA BEREZIAK.....	97
<b>ZAZPIGARREN TITULUA .....</b>	<b>103</b>



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

<b>ARAU-INDARRA DUTEN FORU ALDUNDIAREN XEDAPENAK</b>	
<b>KONTROLATZEA.....</b>	<b>103</b>
<b>ZORTZIGARREN TITULUA .....</b>	<b>106</b>
<b>POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA ETA BATZAR</b>	
<b>NAGUSIEK KONTROL-LANA ETA SUSTATZE-LANA EGITEKO MODUAK ...</b>	<b>106</b>
I. KAPITULUA .....	106
POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA .....	106
II. KAPITULUA .....	108
EZTABAIDA MONOGRAFIKOAK ETA FORU ALDUNDIAREN PLANAK ETA TXOSTENAK....	108
III. KAPITULUA .....	110
INTERPELAZIOAK ETA GALDERAK .....	110
IV. KAPITULUA .....	116
INFORMATZEKO BILKURAK: AGERRALDIAK.....	116
V. KAPITULUA .....	118
EBAZPEN-PROPOSAMENAK.....	118
VI. KAPITULUA .....	121
ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK.....	121
VII. KAPITULUA .....	121
ONDAREARI ETA FINANTZEI BURUZKO .....	121
BAIMENAK ETA INFORMAZIOAK .....	121
VIII. KAPITULUA .....	123
ARAUGINTZA BALIOESTEA ETA BATZAR NAGUSIEN .....	123
ERABAKIAK BETETZEN OTE DIREN KONTROLATZEA.....	123
<b>BEDERATZIGARREN TITULUA .....</b>	<b>126</b>
<b>DIPUTATU NAGUSIA IZENDATZEA ETA HARI KONFIANTZA EMAN ETA</b>	
<b>KENTZEA.....</b>	<b>126</b>
I. KAPITULUA .....	126
DIPUTATU NAGUSIA IZENDATZEA .....	126
II. KAPITULUA .....	128
KONFIANTZA-ESKAERA .....	128
III. KAPITULUA .....	130
ZENTSURA-MOZIOA .....	130
<b>HAMARGARREN TITULUA .....</b>	<b>133</b>
<b>FORU ALDUNDIAREN PROPOSAMENAK BERRESTEA .....</b>	<b>133</b>
<b>HAMAIKAGARREN TITULUA.....</b>	<b>135</b>



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

<b>BATZAR NAGUSIEN HARREMANA BESTE ERAKUNDEEKIN.....</b>	<b>135</b>
I. KAPITULUA .....	135
LEGE GINTZARAKO EKIMENA EUSKO LEGEBILTZARRAREN .....	135
AURREAN .....	135
II. KAPITULUA .....	136
ARBITRAJE BATZORDEAREKIN BETE BEHARREKO PROZEDURA .....	136
III. KAPITULUA .....	142
BATZAR NAGUSIEK EGINIKO IZENDAPENAK .....	142
IV. KAPITULUA .....	143
EPAITEGIEN AURREKO PROZEDURA.....	143
V. KAPITULUA .....	144
BATZAR NAGUSIEN HARREMANA HERRI KONTUEN.....	144
EUSKAL EPAITEGIAREKIN.....	144
<b>HAMABIGARREN TITULUA.....</b>	<b>146</b>
<b>HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA .....</b>	<b>146</b>
<b>LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA .....</b>	<b>150</b>
<b>BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA .....</b>	<b>150</b>
<b>HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA .....</b>	<b>150</b>
<b>LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA .....</b>	<b>151</b>
<b>BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA .....</b>	<b>151</b>
<b>XEDAPEN INDARGABETZAILEAK .....</b>	<b>152</b>
<b>AZKEN XEDAPENA .....</b>	<b>153</b>
<b>AURKIBIDE ANALITIKOA .....</b>	<b>154</b>
<b>AURREKARIAK .....</b>	<b>170</b>
<b>EBAZPENAK .....</b>	<b>181</b>
<b>MAHAIAREN ERABAKIAK.....</b>	<b>187</b>



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

**GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA,  
BATZAR NAGUSIEN OSOKO BILKURAK 2006KO  
UZTAILAREN 2AN ONARTUTAKOA<sup>1, 2</sup>**

**(GAO 132 zenb., 2006ko uztailaren 12koa, 16.797 or.)<sup>3</sup>**

**(GAO 214 zenb., 2009ko azaroaren 11koa)**

**(GAO 129 zenb., 2014ko uztailaren 9koa)**

**(GAO 64 eta 68 zenb., 2019ko apirilaren 3 eta 9koak)**

---

1. Ikus: Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria; Euskal Herriko Autonomia Estatuaren [abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa (306 zk.ko EAO, 1979ko abenduaren 22koa)] 3. eta 37.3.a) artikulua; Lurralde Historikoen Legeko [azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen Artek Harremani buruzkoa (182 zk.ko EHAA, 1983ko abenduaren 10ekoa)] 7.a.1 eta 8.1.a) artikulua; eta xedapen hauek: Lege bereko 1.2 artikulua eta uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren (137 zk.ko GAO, 2005eko uztailaren 20koa) 1. artikulua; eta otsailaren 20ko 11/1984 eta apirilaren 26ko 76/1988 Konstituzio Auzitegiaren epaiak. Ikus, baita ere, aipaturiko 6/2005 Foru Arauaren 9.1 eta 12.6 artikulua; lehenengoak, foru-organoen antolaketa, araubidea eta funtzionamenduari buruz erregulatzeko foru-arauaren erreserba ezartzen du; bigarrenak, Batzar Nagusietako Araudiak foru-arau baten maila eta balioa dituela xedatzen du.

2. Gipuzkoako Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak 2009ko azaroaren 4an hartutako erabakiaren bidez, Araudiko 12.1, 71.1 eta 125 artikulua aldatu ziren (2009ko azaroaren 11ko GAO).

3. Araudi hau onartu eta indarrean sartzearekin batera, indargabetu egiten da 5/1985 Foru Araua, ekainaren 25ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusien Jarduerarako Barne Araudiari buruzkoa, besteak beste. Ikus, horri dagokionez, Araudiaren lehen xedapen indargabetzailea.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### HITZAURREA

Batzar Nagusien Barne Araudia 1985az geroz dago indarrean, eta denbora horretan bildutako eskarmentuak erakutsi digu testu berri bat egitea komeni dela. Horrela, batetik, corpus arau-emaile bakarrean jasoko dira Araudiak denboran zehar izan dituen aldaketa guztiak eta Araudia osatzeko onartu diren ebazpen orokorrak; eta, bestetik, hobekuntza funtzionalak eta prozedurazkoak erantsiko zaizkio edukiari, behar hori gero eta nabarmenagoa da eta.

Ildo horretan, nahitaezko erreferentzia izan dugu 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa. Foru Arau horrek dio Batzar Nagusiak Gipuzkoako Legebiltzarra direla, eta kontzeptu horren haritik etorri dira ia berrikuntza guztiak: Barruko banaketa organikoa dela, batzarkideek eta taldeek kontrol-lana eta sustatze-lana egiteko dituzten tresnak direla, edo Batzar Nagusietako kideen estatutuaren araudia dela.

Ganberaren antolaketari buruz, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauak 12. artikuluan agindutakoari jarraiki (6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa), organoen eskumenak beste era batera banatu dira, eta egitura organikoak gainerako legebiltzarrek duten egituraren antz handiagoa hartu du. Horrela, Batzorde Iraunkorra legebiltzarrari jarraipena emateko organo bilakatu da (bilkura-aldi arruntetik kanpo edo Batzar Nagusien agintaldia amaitzen denean jardungo du), eta Bozeraemaileen Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautu dira. Bestalde, batzorde zehatz bat erantsi da: Eskaerarako eta Herritarrekiko Harremanerako Batzordea. Herritarrek aurkeztutako eskaerak edo kexuak aztertzea du eginkizun, Lurralde Historikoko foruerakundearen eskumenen eremuan. Halaber, Ganberako Mahaiak parla-



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

mentu-izaerako idatziak kalifikatzeko eta izapidetzeko onartzeko ahalmena dauka, gainerako biltzar legegileetan mahaiak duelako, tradizioz, zeregin hori.

Foru Aldundiaren jarduna kontrolatzeko eta sustatzeko lanaren alorrean, informazioa emateko bileren arauketan berrikuntzak daude. Horrela, batzordeetan egiteaz gain Osoko Bilkuran ere egin daitezke; batzordeei ahalmen bat gehitu zaie, foru-alor publikoko arduradunei batzordera joateko eskatzea, eta adierazpen instituzionalak arautu egin dira estreinako. Era berean, nabarmendu behar da politika orokorrari buruzko urteko adierazpenaren ondoren mozioak aurkezteko aukera egongo dela. Horrekin guztiarekin, Batzar Nagusien zuzendaritza politikoaren funtzioak indartu dira (*indirizzo* politikoa). Araugintzaren ebaluazioa ere gehitu da, kontzeptu hori Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauak sartu zuelako (6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak) eta Barne Araudiak kontzeptua garatu duelako.

Batzarkideen estatutu juridikoari buruz, Araudiak batzarkideen eskubide eta betebeharren sorta argitu eta taxutu du, eta, horrela, batzarkideen toki indartzea ez ezik eskubide eta betebeharren benetako erabilera erraztea lortu du.

Esparru horretan bertan, Batzar Nagusiek konpromisoa hartu dute lanbizitza eta familia-bizitza uztartzeko neurriak hartzeko. Zehazki, emakumeak Batzar Nagusietako ordezkari-tza-lanetan jarduteko amatasuna traba izan ez dadin hainbat irtenbide aztertu dira. Dena den, lehendabizi zailtasun juridiko eta tekniko batzuk gainditu behar dira, eta, horregatik, gai hori geroago arautuko da, eta zailtasun horiek gainditzeko diren unean gauzatuko dira pentsatutako neurriak. Hartuko dugun irtenbidearekin, Mahaiak komunikaziorako teknologia berriak erabiliko ditu Ganberan ez



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

dauden emakume batzarkideen botoa onartzeko, haurdunaldietan edo erditzeen ondoren.

Eskubideei buruz, nabarmentzekoa da, lehenik, batzarkideek informazioa jasotzeko duten eskubidea areagotu dela. Zehaztu delako eskubidea Foru Administrazioaren eremu osoan erabili dezaketela, hau da, Foru Aldundian ez ezik haren mendeko organismo, enpresa eta erakundeetan. Bigarrenik, azpimarratzekoa da bortxaezintasunaren araubidea: Batzarkideak ordezkari-karguan diharduela izandako edo emandako iritziak, jokaerak eta botoak hartzen ditu.

Batzar Nagusietako batzarkideen betebeharrei buruz, haien lana kontrolatzeko neurriak aurreikusi dira. Interesen erregistroa zehaztasunez arautu da, erregistro horretan jasoko baitira batzarkideen jardueren eta ondarezko ondasunen aitortenak. Batzarkideek nahitaez egin behar dituzte aitorten horiek izaera osoa eskuratzeko, bai eta batzarkide-izaera galtzen dutenean ere. Ildo beretik, Araudiak berariaz debekatzen du batzarkide-izaera arrazoitzat hartzea edo izaera horretaz baliatzea beste lan batzuetan aritzeko.

Araudiaren egitura ere aldatu da: Sistematika aldatu eta titulu berriak gehitu dira, argiago azaltzeko zein diren Batzar Nagusien jardunaren eremu desberdinak. Bide horri jarraituta, titulu berri bat sartu da araugintza eskuordetzeari buruz, zehazki, foru-dekretu araugileak eta dekretu-arauak kontrolatzeari buruz. Batzar Nagusiek beste erakundeekin dituzten harremanak arautzeko ere titulu berria sortu da, eta euskararen erabileraren normalkuntza ere beste titulu baten barruan sartu da.

Azkenik, Batzar Nagusiek funtzionatzeko era ondu eta arindu da: Komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak erantsi dira Araudian, eta, horrela, batzarkideek, taldeek eta Foru Gobernuak ekimenak bide elektronikoz aurkez ditzakete.



## ATARIKO TITULUA

# GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN IZAERA ETA ANTOLAKETA

### 1. artikulua

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko herritarren ordezkartzarako eta herritarrek parte hartzeko organo gorena dira Batzar Nagusiak: Gipuzkoako legebiltzarra dira<sup>4</sup>.
2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek araugintza-ahalmena gauzaten dute<sup>5</sup>, araugintza-ahalmenaren emaitza balioesten dute<sup>6</sup>, diputatu nagusia aukeratzen dute<sup>7</sup>, Lurralde Historikoaren aurrekontuak onartzen dituzte<sup>8</sup>, eta Foru Aldundiaren jarduna kontrolatzen eta sustatzen dute<sup>9</sup><sup>10</sup>.

---

4. Ikus, zentzu berean, uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 4.1 artikulua.

5. Kontuan izan uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 6. eta 7. artikulua.

6. Ikus Araudi honen 161. eta 162. artikulua.

7. Ikus Araudi honen 11., 163. eta hurrengo artikulua.

8. Ikus Araudi honen 123. eta hurrengo artikulua.

9. Ikus Araudi honen VIII. titulua.

10. Ikus, zentzu bera duelako, uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Aipatutako eginkizunak aurrera eramateko modurik onena zein den, horri lotu behar zaio Araudi hau interpretatzerakoan eta ezartzera-koan<sup>11</sup>.

### 2. artikulua

1. Euskara eta gaztelania dira Gipuzkoako Batzar Nagusietako bi hizkuntza ofizialak, eta bata zein bestea erabil daitezke. Dena den, Batzar Nagusiek euskarari lehentasuna emango diote beren jardunean, gizar-tean bi hizkuntzen berdintasuna lortzearren.
2. Euskararen Erabilpena arautzen duen Oinarrizko Legeak -10/1982 Legea, azaroaren 24koa<sup>12</sup>- herritar guztioi aitortutako oinarrizko hizkuntza-eskubideen arabera, Batzar Nagusiek beren eremuan hizkuntza-eskubide hauek aitortzen dizkiete batzarkide, langile zein herritarrei:
  - a) Batzar Nagusiekin harremana euskaraz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.
  - b) Batzar Nagusiek jakinarazitako komunikazio edo erabaki guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
  - c) Batzar Nagusien bilkuretan euskaraz hitz egiteko eskubidea.
  - d) Batzar Nagusietako lana euskaraz egiteko eskubidea.
3. Hizkuntza ofizialek Batzar Nagusietan izango duten presentzia eta erabilera Araudi honetako hamabigarren tituluak arautuko ditu.

---

Arauaren 5. artikulua. Horretaz gain, kontuan izan Foru Arau horretako 8. artikulua dioena.

11. Kontuan izan Araudi honen 29.2 artikulua.

12. 160 zk.ko EHAA, 1982ko abenduaren 16koa.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **2. bis artikulua**

Gipuzkoako Batzar Nagusiek emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikak bultzatuko dituzte dagozkien eginkizunetan eta barruko funtzionamenduaren araubidean<sup>13</sup>.

---

13. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia. Kontuan izan emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauko 4. xedapen gehigarria (martxoaren 16ko GAO)



## LEHENENGO TITULUA

### BATZAR NAGUSIAK ERATZEA<sup>14</sup>

#### I. KAPITULUA

##### Batzarkideak akreditatzea eta karguen jabetza hartzea

##### 3. artikulua

1. Aukeratuak izan diren batzarkideek batzarkide direla egiaztatu ahal izateko, dagokion hauteskunde-batzordeak egindako egiaztgutuna entregatu behar dute Gipuzkoako Batzar Nagusietako idazkaritza nagusian. Aldi berean, Mahaiak zehaztutako datuak eta informazio pertsonala jasotzeko inprimakiak bete eta izenpetu behar dituzte, eta interesen eta jardueren aitortpena entregatu, behar bezala beteta<sup>15</sup>.
2. Hori guztia zehazki zer ordutan aurkeztu duten jasoko du idazkaritza nagusiak, eta hurrenkera horren arabera osatuko du batzarkideen zerrenda. Behin-behineko txartela ere egingo dio batzarkide bakoitzari, Batzar Nagusietako kide direla egiaztatzeko.

---

14. Ikus, baita ere, Batzar Nagusien hautaketa eta osaerari dagokionez, uztailearen 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 4.2 eta 4.3 artikulua. Kontuan izan, era berean, Foru Arau horren 12. artikulua dioena.

15. Ikus Araudi honen 19. eta 98. artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 4. artikulua

1. Ganberako kideen herena adina batzarkidek batzarkide-izaera egiaz-tatu bezain laster, Batzorde Iraunkorreko lehendakariak eratze-bilku-rarako deialdia egingo du. Eratze-bilkura akreditazioak egin eta hu-rrengo hamabost egunen barruan egin behar da.
2. Eratze-bilkura hasteko, legelari nagusiak deialdia irakurriko du. Ja-rraian, legelari nagusiak Adineko Mahaiko kideei haien aukietan jar-tzeko eskatuko die.
3. Hasieran, bertan dauden batzarkideen artean zaharrena denak zuzen-duko du eratze-bilkura, eta bi gazteenak lehendakariorde eta idazkari izango dira, hurrenez hurren. Legelari nagusiak laguntza teknikoa emango dio Adineko Mahaiari.
4. Adineko Mahaiko idazkariak akreditatutako batzarkideei deituko die, egiaztagutunak aurkezteko hurrenkeraren arabera.
5. Batzarkideak ekitaldi horretan dagoela esango du, eta dagokion aul-kian eseriko da Adineko Mahaiko lehendakariak hala eskatutakoan. Horrekin, dituen betebeharrak<sup>16</sup> beteko dituela eta Araudi honetan aitortutako eskubideak<sup>17</sup> onartzen dituela adierazten du. Ekitaldi ho-rri «dei» deritzo.
6. Hautetsi izendatutako batzarkide bat ez bada Batzar Nagusiak eratzeko bilkurako «dei»an egon, eska dezake Ganberako Mahaiaren aurrean egi-tea geroago, Mahaiak dioen egunean eta orduan. Eskaera idatziz egin be-har dio Batzar Nagusietako lehendakariari.
7. Hautetsi izendatutako batzarkideak batzarkide-izaera aurreko artiku-luen arabera hartzen duen unetik aurrera izango ditu indarrean esku-bideak eta pribilegioak, inoiz ez lehenago.

---

16. Ikus Araudi honen 17. eta hurrengo artikulua.

17. Ikus Araudi honen 12. eta hurrengo artikulua.



## 5. artikulua

Adineko lehendakariak bilkura hasi dela adieraziko du, eta aginduko du idazkari batek irakur dezala akreditatutako batzarkideen behin betiko zerrenda, bai eta zein diren batzarkide horien aurka aurkeztutako eta erabaki gabeko hauteskunde-auzietako helegiteak ere, halakorik badago. Jarraian, Batzar Nagusietako Mahaiko kideak aukeratuko dituzte.

## II. KAPITULUA

### Mahaiko kideen izendapena

## 6. artikulua

1. Batzar Nagusiak eratzeko bilkuran, Osoko Bilkurak Batzar Nagusietako Mahaia aukeratuko du, isilpeko bozketa eginaz. Mahaia honako hauek osatuko dute: Batzar Nagusietako lehendakariak (Mahaiko lehendakari izango da), lehen lehendakariordeak, bigarren lehendakariordeak, lehen idazkariak eta bigarren idazkariak<sup>18</sup>.
2. Adineko Mahaiko lehendakariak saioa hamabost minutuz etengo du, batzarkideek hautagaiak aurkez ditzaten Batzar Nagusietako Mahaia osatuko duten karguetarako.
3. Lehenik eta behin, lehendakaria aukeratzeko, batzarkide bakoitzak izen bakarra idatziko du boto-txartelean, eta Batzar Nagusietako kideen gehiengo osoak aukeratzeko duena izango da lehendakari.
4. Inork ez badu gehiengo osoa lortzen, bozketa berriro egingo da, eta boto gehien jasotzen dituen izango da lehendakari. Berdinketa gerta-

---

18. Ikus Araudi honen 26. eta hurrengo artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

tuz gero, berriro bozkatuko da, eta boto gehien jasotzen dituen hautagaia izango da lehendakari. Berriro ere berdinketa egonez gero, boto kopuru bera duten hautagaien artean Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu zituen alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteko hautagaia izango da lehendakari.

5. Bigarrenik, bi lehendakariordeak aldi berean aukeratuko dira. Batzar-kide bakoitzak izen bakarra idatziko du boto-txartelean, eta boto gehien lortzen dituzten bi hautagaiak izango dira, hurrenez hurren, lehen eta bigarren lehendakariorde.
6. Hirugarrenik, idazkariak aukeratzeko, lehendakariordeak aukeratzeko modu berean egingo da.
7. Lehendakariorde zein idazkariak aukeratzekoan berdinketa egonez gero, lehendakaria aukeratzeko ezarritako prozedura berari jarraituko zaio, bigarren lehendakariordea edo bigarren idazkaria aukeratzekoan izan ezik: Boto kopuru bera lortu dutenen artean erabakiko da, berriro bozkatu gabe, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu zituen alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteko hautagaia izango da hautatua.

### **7. artikulua**

Aipatutako bozketa guztiak egin eta gero, hautatutako Mahaiari utziko dio bere tokia Adineko Mahaiak, eta Batzar Nagusietako lehendakari hautatuak Batzar Nagusiak behin betiko eratu direla adieraziko du, bai eta horren berri ofizialki eman ere jarduneko diputatu nagusiari. Horrela amaituko da ekitaldia.

Jarraian, Batzar Nagusietako lehendakari hautatuak beste Osoko Bilkura baterako deialdia egingo du: Ordu bete beranduago egingo da bilkura, eta



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

gai-zerrendan puntu bakarra izango du, Bateriaezintasunen Batzordea izendatzea.

### **8. artikulua**

Mahairako bozketak eta Bateriaezintasunen Batzordea izendatzeko bozketak egingo dira, hauteskundeen eta batzarkide hautetsien aldarrikapenaren baliozkotasunaren aurka jarritako helegiteen emaitzari itxaron gabe, edo eman dituzten epaien ondorioz berriz egin beharreko hauteskunderi itxaron gabe.

Dena den, Mahaiko kideak berriro aukeratu beharko dira hauteskunde-azuetako helegiteetan eman dituzten epaien ondorioz aulkien ehuneko hamar baino gehiago aldatu behar direnean eta, gainera, batzarkide-talde batek hala eskatzen duenean.

## **III. KAPITULUA**

### **Bateriaezintasunen Batzordea**

#### **9. artikulua**

7. artikulua ezarritakoaren arabera deitutako bilkuran, Batzar Nagusiek Bateriaezintasunen Batzordeko kideak izendatuko dituzte, Araudi honetako 46. artikulua aurreikusitakoari jarraituz.

#### **10. artikulua**

1. Bateriaezintasunen Batzordeak irizpena eman behar du, eratu eta zazpi eguneko epean, batzarkide bakoitzaren bateragarritasunari edo bateriaezintasunari buruz. Irizpena Osoko Bilkurak aztertu eta onartu



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

behar du. Horretarako, Osoko Bilkura egingo da Batzar Nagusiak eratu eta hamar egunen barruan.

2. Irizpena eztabaidatzerakoan, Bateriaezintasunen Batzordeko kide bategen irizpenaren alde hitz egingo du, eta, horretaz gain, irizpenaren alde eta aurka hitz egiteko txanda bana egongo dira.
3. Dagokion batzarkideak eztabaidan parte hartzeko eskubidea dauka, bera hizpidera ekarri dutelako, baina ezingo du dagokion bozketan parte hartu.
4. Batzarkideen bateragarritasunaren edo bateriaezintasunaren irizpenak errespetatu beharra dauka hauteskunde-legediak<sup>19</sup> eta indarrean dauden gainerako arauak horri buruz diotena.
5. Bateriaezintasuna dagoela erabaki eta jakinarazi eta gero, bateriaezintasuna duen batzarkideak zortzi eguneko epea dauka aulkiaren eta bateriaezina den karguaren artean aukeratzeko. Epe horretan ezingo du Batzar Nagusien zereginetan eta bileretan parte hartu. Esandako epean ez badu aukera egiten, aulkiari uko egin diola ulertuko da.

---

19. Ikus Eusko Legebiltzarraren martxoaren 27ko 1/1987 Legeko 5. artikulua, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskunderen buruzko Legea (72 zk.ko EHAA, apirilaren 10ekoa; akatsen zuzenketa: 85 zk.ko EHAA, apirilaren 30ekoa), otsailaren 18ko 4/2005 Legearen eraginez aldatua (42 zk.ko EHAA, martxoaren, Bosgarren Azken Xedapena)



## IV. KAPITULUA

### **Osoko Bilkurarako deialdia diputatu nagusia izendatzeko**

#### **II. artikulua**

Lehendakariak, Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzordearen iritziak entzunda, Osoko Bilkurarako deialdia egingo du diputatu nagusia izendatzeko, Araudi honetako bederatzigarren tituluko I. kapituluan ezarritako prozeduraren arabera izenda dadin Batzar Nagusiak eratu eta hama-bost egunen barruan<sup>20</sup>.

---

20. Epeak zenbatzeari dagokionez, ikus Araudi honen 82. eta 83. artikulua.



## BIGARREN TITULUA

### BATZARKIDEAK

#### I. KAPITULUA

#### Batzarkideen eskubideak

##### 12. artikulua

1. Batzarkideek Batzar Nagusien Osoko Bilkuretara joateko eskubidea dute, hitzarekin eta botoarekin, eta baita batzordeetara ere, batzordeko kide direnean.
2. Batzarkideek gutxienez batzorde bateko kide izateko eskubidea dute<sup>21</sup>, bai eta Araudi honek esleitutako zereginak betetzeko eta ahalmenak erabiltzeko ere.
3. Batzarkideek eskubidea dute batzordeen bilkuretara joateko batzordeko kide izan ez arren; hitz egiteko eskubidea dute, baina ez dute bozkatzeko eskubiderik<sup>22</sup>. *Ikus: [2015/09/8ko Mahaiaren Erabakia]*

---

21. Ikus Araudi honen 33. eta 37. eta hurrengo artikulua.

22. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



### 13. artikulua<sup>23</sup>

*Ikus: [2007/01/09 aurrekaria] [2014/01/14 aurrekaria]*

1. Batzarkideek, beren lana hobeto egiteko, beren batzarkide-taldea ja-inaren gainean jarri eta gero, Foru Aldundiari bere esku dituen da-tuak, txostenak eta agiriak eska diezazkieke, eta gauza bera eska die-zaiekete Foru Aldundiaren bidez bere menpeko organismo autono-moei, enpresa-entitate publikoei, merkataritza-sozietateei eta Aldun-diaren menpeko beste entitateei, bai eta Aldundiak ordezkartza duen entitateei ere zuzendaritza-organoetako parte bada, betiere, informa-zio hori edukitzeak ez baditu urratzen datu pertsonalak babesteko le-gez ezarrita dauden bermeak.
2. Eskatera, beti, lehendakariaren bidez helaraziko zaio foru-administra-zioari, eta foru-administrazioak hogei eguneko epean bete beharko du, edo, bestela, betetzea eragozten dioten arrazoiak azaldu beharko ditu idatziz, epe beraren barruan.
3. Bigarren atalean jarritako epea igaro denean, administrazioak esanbi-dez edo isilbidez uko egiten badio eskatutako agiriak edo informazioa emateari, edo eskatutakoaren zati bat bakarrik betetzen badu, eki-mena izenpetu duen batzarkideak Batzar Nagusietako lehendakariari

---

23. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia. Ikus, besteak beste: *Espainiako Konstituzioaren* 18.4 artikulua; abenduaren 5eko Lege Organikoa, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales (294 zk.-ko EAO, abenduaren 14koa); 290/2000 eta 292/2000 Konstituzio Auzitegiaren epaiak, biak azaroaren 30ekoak; 2016/679 Erregelamendua (EB) 2016ko apirilaren 27koa, Europako Par-lamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena; Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, *Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa* (44 zk.ko EHAA, martxoaren 4koa).



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

eska diezaioke administrazioari galdatzeko artikulua honetan ezarritakoa bete dezala. Horretarako, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu eta gero, batzarkideari jakinaraz diezaioke gobernuaren erabakiarekin ados dagoela eta zergatik dagoen ados, edo, bestela, Foru Aldundiari eskatuko dio bidali gabeko agiriak bidaltzeko. Foru Aldundiak ezezkoan jarraituz gero, Batzar Nagusiei kontu eman beharko die hurrengo Osoko Bilkuran.

4. Publikoarentzako eskuragarriak diren iturri ofizialak badituzte eskatutako datu, txosten edo agiriek, Foru Aldundiak aukera dauka eskatutakoa eskuragarri non dagoen esateko soilik, betiere, erreproduzitzea posible den kasuetan.
5. Eskatutako agirien izaera dela-eta edo indarrean dagoen araudia dela-eta ezinezkoa bada kopia bat egitea, administrazioak, bidali ordez, batzarkideari administrazio-bulegoetan bertan jar diezaioke eskuragarri eskatutakoa. Eskatutako agirien izaera tekniko oso konplexuak hala eskatzen duenean, batzarkidea dagokion gaiko adituekin joan daiteke, baldin eta adituek Ganberan egiaztatuta badute batzarkidearen batzarkide-taldeko aholkulari direla.
6. Halaber, batzarkideek Mahaiari eska diezaiokete, eskaeran agertzen bada bere batzarkide-taldeak badakiela, Ganberako lehendakariaren bidez informazioa eskatzeko Estatuko Administrazioari, Autonomia Erkidegoko gobernu-erakundeei edo Europar Batasuneko erakundeei, uste badute hein batean Gipuzkoako Lurralde Historikoari lotutako informazioa dela, indarrean dagoen araudiaren arabera.

### **14. artikulua**

1. Batzarkideek beren lana hobeto eta duinago bete dezaten, diru-ordainsari bat jasoko dute.
2. Batzar Nagusietako Mahaiak ezarriko ditu batzarkideen ordainsarien zenbatekoa, motak eta baldintzak, eta eguneratzeak zehaztuko ditu



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Batzar Nagusien aurrekontuan urtero ezarritako aurrekontu-aurreikuspenen arabera.

3. Batzarkideen ordainsari guztiek zerga-alorreko arau orokorrak bete beharko dituzte.

### **15. artikulua**<sup>24</sup>

Batzar Nagusien aurrekontuan sartuko dira batzarkideen gizarte-segurantza eta mutualitateak, baldin eta batzarkideek gizarte-segurantzaren edo mutualitateetan egoteko bide ematen zuen lana egiteari uzten badiote Batzar Nagusietan lan egiteagatik, eta Batzar Nagusien kontura jasotzen badute soldata.

Aurreko paragrafoan ezarritako bera gertatuko da Batzar Nagusietan lan egiteagatik zerbitzu berezietan dauden herri-funtzionarioen klase pasiboko kuoten kasuan.

### **16. artikulua**

Batzarkideei ezingo zaie erantzukizunik eskatu karguan dihardutela emandako iritziak, izandako jokaerak eta emandako botoak direla eta, ez eta batzarkide-izaera galdu eta gero ere.

---

24. Ikus 37/2006 Legea, abenduaren 7koa, kargu politiko eta sindikal batzuei gizarte segurantzaren araubide orokorra eta langabezia-babesa ezartzeari buruzkoa (293 zk.ko EAO, 2006ko abenduaren 8koa).



## II. KAPITULUA

### **Batzarkideen betebeharrak<sup>25</sup>**

#### **17. artikulua**

1. Batzarkideek Ganberaren Osoko Bilkuretara joan beharra daukate, eta batzordeetara ere bai batzordeko kide direnean.
2. Batzarkideek behin eta berriro eta arrazoirik eman gabe huts egiten dituztenean aurreko atalean ezarritako bilerak, lehendakariak diru-ordainsaria kentzea erabakiko du, Mahaiarekin adostuta, Bozeramailen Batzordearen iritzia entzunda eta batzarkideari ere entzunda.
3. Batzarkideek beren jokabidea Araudi honi egokitu behar diote, eta Araudiak agindutako funtzioak bete behar dituzte, batzarkide-karguari dagokion gizalegearekin, zuzentasunarekin eta duintasunarekin jokatzuz une oro.
4. Batzarkideek isilean gorde behar dituzte jarduerak, eztabaidak eta ebazpenak baldin eta, salbuespenez, isilpekoak badira.

#### **18. artikulua**

Batzarkideek ezin dute batzarkide-izaera arrazoitzat hartu edo ezin dute izaera horretaz baliatu merkataritzan edo beste lanbide batzuetan aritzeko, eta ezin dute, ezta ere, izaera horretaz baliatuz beste batzuei lagundu herri-administrazioen aurrean horrelako jardueretan aritzen.

---

25. Ikus Araudi honen V. tituluko VIII. kapitulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 19. artikulua

1. Batzarkideak batzarkide-izaera osoa lortzeko, batzarkide-izaera gal-tzen duenean eta inguruabarrak aldatzen zaizkion bakoitzean honako aitorten hauek egin behar ditu:
  - a) Bateriaezinak izan daitezkeen jardueren aitortena, eta, bateraga-riak izan arren, sarrera ekonomikoak edo ondarezko onurak lor-tzeko aukera ematen duten jarduerena.
  - b) Dituen ondarezko ondasunen aitortena.
2. Aitorten bakoitza, jarduerena eta ondasunena<sup>26</sup>, banaka egin behar da, Ganberako Mahaiak onartutako ereduaren arabera, eta aitortenak aldatzeko arrazoiak dauden bakoitzean eguneratu behar dira. Era be-rean, batzarkide-izaera galdu eta handik hilabeteko epearen barruan ere egin behar dira.
3. Jardueren eta ondasunen aitortenak notario-lekukotasunaren bidez egingo dira, edo, bestela, legelari nagusiaren aurrean. Legelari nagu-siak fede emango du egiaztagiri baten bidez, eta Ganberan eraturako interesen erregistro batean jasoaraziko da. Erregistro hori Batzar Na-gusietako lehendakariaren menpean egongo da zuzenean, eta edukia publikoa izango du ondarezko ondasunei buruz izan ezik: Ondasunei buruzkoa Bateriaezintasunen Batzordeak bakarrik ikusi ahal izango du bere zeregina betetzeko behar duenean.
4. Batzarkideek familiari buruzko kontuak ere aitortu ditzakete, artikulua honetan araututako gaiarekin zerikusia izan badezakete.
5. Legealdi oso bat igaro eta gero, batzarkide-izaera galdu deneko lege-aldia kontatu gabe, aitortenak suntsitu egin beharko dira<sup>27</sup>.

---

26. Ikus Araudi honen 3. eta 98. artikulua.

27. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



### III. KAPITULUA

#### Batzarkide-izaera kentzea eta galtzea

##### 20. artikulua

Batzarkideari eskubideak eta betebeharrak kenduko dizkiote kasu haue-  
tan:

- 1) Zigor-epai irmo batek berekin dakarrenean, edo epaia betetzeak ezinezko bihurtzen duenean batzarkide funtzioa gauzatzea.
- 2) Araudi honetako bosgarren tituluko VIII. kapituluan jasotako di-  
ziplina-arauak ezarrita, hala egitea bidezkoa denean.

##### 21. artikulua

Arrazoi hauengatik galduko du batzarkide-izaera batzarkideak:

- 1) Erabaki judizial irmo batek batzarkidearen hautaketa edo aldarri-  
kapena deuseztatu duelako hauteskunde-prozesuan.
- 2) Heriotzagatik, heriotza-deklarazioagatik edo erabaki judizial ir-  
moak ebatzitako ezintasunagatik.
- 3) Batzar Nagusietarako hauteskunde-deialdiaren ondorioz agintal-  
dia amaitu delako; dena den, Batzorde Iraunkorreko kideen jar-  
duna luzatu egingo da Batzar Nagusi berriak eratu arte<sup>28</sup>.
- 4) Batzarkideak batzarkide izateari uko egin diolako, Mahaiaren au-  
rrean eta pertsonalki. Idatzizko ukoa kasu bakarrean onartuko da:  
Zalantzarik ez dagoenean ezin duela batzarkideak berak joan, eta  
froga fede-emaileak egiaztatzen duenean idatziaren data eta izen-  
pea.

---

28. Ikus Araudi honen 34.1.1) eta 100. artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

- 5) Kargu publikorako erabateko desgaikuntzaren edo desgaikuntza bereziaren zigorra ezarri diolako epai judizial irmoak.



## HIRUGARREN TITULUA

### BATZARKIDE-TALDEAK

#### 22. artikulua

1. Batzarkide-taldea gutxienez hiru kidek osatu behar dute, hain zuzen ere, deia egina duten hiru kidek.
2. Talde politiko, koalizio edo alderdi bateko batzarkideen kopurua ez bada aurreko paragrafoko gutxienez iristen batzarkide-taldea osatzeko, eta ez badute beste bati gehitzea edo beste batean sartzea erabaki, talde mistoan sartuko dira. Talde mistoak gainerako taldeek bezala hartuko du parte Batzar Nagusien jardueretan.
3. Ezin dira batzarkide-talde desberdinetan eratu edo zatikatu hauteskundeetan talde, koalizio edo alderdi politiko berean agertu direnak.
4. Batzarkide-taldeak eratzeko, idazkia zuzendu behar zaio Ganberako Mahaiari, Batzar Nagusiak eratzeko bilkuratik hasita bost egunetan. Taldea eratu nahi duten batzarkide guztiek izenpetu behar dute idazkia, eta hau jarri behar du: Taldearen izena, bozeramailearen izena, bozeramailearen ordezkoko batena edo batzuen eta kide guztien izenen zerrenda.

Batzarkide-taldeen bozeramailearen edo haren ordezkoren izenen aldatetak jakinarazi egin behar dizkiote Batzar Nagusietako Mahaiari; horretarako, aurreko ataleko betekizunak jarraitu behar dituzte.

Batzarkide-talde batek hasieran zuen izena aldatu nahi izanez gero, Mahaiari eskatuko dio idatziz eta aldaketa arrazoituz. Mahaiak erabakiko du eskatutako izen-aldaketa, inguruabarren eta eskatzaileak emandako arrazoien arabera.



### 23. artikulua<sup>29</sup>

1. Talde mistoaren funtzionamendu-arauak taldea osatzen duten kideek erabakiko dituzte, horretarako akordioak hartuz. Arau horiek aniztasuna azalaraziko dela bermatu behar dute, eta talde mistoaren kopurua eta osaera aldatu delako arauak aldatzen eta egokitzen direnean ere aniztasuna azaleratuko dela bermatu behar da. Arauen berri Mahaiari eman behar zaio. Hogeita hamar egun igaro eta ez dagoe-nean akordiorik, edo epe horretan zehar akordioak hausten badira, Batzar Nagusietako Mahaiak erabakiko ditu behin betirako talde mistoaren funtzionamendu-arauak agintaldi osorako.
2. Talde mistoko kideek, eztabaidetan parte hartzen dutenean, guztira, batzarkide-talde bati dagokion denbora bera izango dute.  
Osoko Bilkuretan eta batzordeetan, talde mistoko kideen mintzaldiak zati berdinetan banatuko dira parte hartzea eskatu dutenen artean.
3. Talde mistoari batzordeetan dagozkion aulkiak, ahal dela, berdintasunez banatu behar dituzte taldeko kideen artean. Horretarako, taldeak proposamena aurkez diezaioke Mahaiari kide bakoitzaren eta guztien adostasuna agertzen duten izenpeekin. Proposamenik egon ezean, Mahaiak erabakiko du aulkiak nola banatu, taldeko kideen iritzia entzun eta gero.  
Batzordeen bilkuretan, talde mistoko batzarkideek elkar ordezkari de-  
zakete; horretarako, batzordeko mahaiari idatzia zuzendu behar di-  
ote, titularrak eta ordezkoak izenpetuta.
4. Talde mistoko kide bakoitzak, bere izenpearekin bakarrik eta bere izenean, batzarkideei dagokien edozein ekimen aurkez dezake, hala

---

29. Ikus Araudi honen 35.6 artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

nola, zuzenketak, boto partikularrak, interpelazioak, galderak, informazio-eskaerak edo agerraldi-eskaerak. Horrelakoetan, talde mistoko kide bakoitza gaitutako bozeramaile balitz bezala izango da, edozein dela ere kasu bakoitzean bozeramailea.

### 24. artikulua

1. Batzarkide-taldeetan sartzeko borondatea adierazten duten batzarkideak sar daitezke taldeetan; horretarako, bilkura-aldi bakoitzaren lehenengo bost egunen barruan idatzia bidali behar diote Batzar Nagusietako lehendakariari. Idatziak batzarkide-taldeko bozeramailearen oniritzia eduki behar du. Batzar Nagusiak eratzeko bilkura egin ondoren bihurtzen direnak batzarkide, batzarkide bihurtzen direnetik bost laneguneko epea dute batzarkide-talde batean sartzeko. Horretarako, Batzar Nagusietako Mahaiari idatzia aurkeztu behar diote. Idatzian, dagokion taldeko bozeramailearen onarpena agertu behar da. Bestela, talde mistora joango dira<sup>30</sup>.
2. Talde mistoa ez den beste batzarkide-talde bateko kide batek edo batzuek taldea utzi eta, ondorioz, taldeak ez baditu 22.1 artikuluko baldintzak betetzen, taldea desegin egingo da automatikoki, eta taldeko kideak talde mistora joango dira.  
Dena den, aurreko paragrafoak dioena ez da beteko baldin eta batzarkide batek kargua utzi arren bere ordezkoa batzarkide-taldean 1. atalak dioen epean sartzen bada.
3. Goiko 1. atalekoa ez den beste edozein arrazoirengatik uzten badio batzarkide batek talde bateko izateari, automatikoki talde mistora joango da eta talde mistoan egongo da bilkura-aldi horretan.

---

30. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **25. artikulua**

1. Batzar Nagusietako Mahaiak batzarkide-taldeei bulegoak eta baliabide nahiko emango dizkie, bai materialak bai giza baliabideak, eta aurrekontuan diru-laguntza bat esleituko die batzarkide kopuruaren arabera, bai eta osagarri finko bat ere, zenbateko berekoa batzarkide-talde guztientzako.
2. Batzar Nagusietako lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta Boze-ramaileen Batzordearen iritzia entzunda, artikulua honetako lehenengo puntuan ezarritako diru laguntzarako eskubidea eten edo ken diezaioke batzarkide-talde bati, betebeharretan behin eta berriro huts egin duelako.



## LAUGARREN TITULUA

### BATZAR NAGUSIEN ANTOLAKETA<sup>31</sup>

#### I. KAPITULUA

##### Mahaia<sup>32</sup>

##### 26. artikulua

1. Mahaia Batzar Nagusien organo gidaria da, Batzar Nagusietako lehendakariak agintzen du Mahaian, eta hark zuzentzen du Mahaia. Ganberak parte hartzen duen ekitaldietan, Mahaia da Ganberaren ordezkaria, ordezkari kide anitzekoa izan ere.
2. Mahaia lehendakariak, bi lehendakariordek eta bi idazkarik osatzen dute. Batzar Nagusietako legelari nagusia izango du aholkulari, eta, ez dagoenean, haren ordezeko legelaria.
3. Mahaiko kideak aukeratzeko Araudi honetako lehenengo tituluko arauei jarraituko zaie.
4. Mahaian ordezkariarik ez duten batzarkide-taldeek Mahaiko deialdia jasoz jasoko dute Mahaiaren jardueraren berri, bai eta eginiko Mahaia-aren akta osoa eta bilkura-egunkaria jasoz ere<sup>33</sup>.

---

31. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 12. artikulua.

32. Kontuan izan, orokorrean, Araudi honen lehenengo xedapen iragankorra.

33. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 27. artikulua

1. Mahaiko kideek honako arrazoi hauetako batengatik utziko dute kargua:
  - a) Batzarkide izateari uzteagatik.
  - b) Esanbidez uko egiteagatik.
  - c) Batzarkide-taldekoa izateari uzteagatik.
  - d) Foru Aldundiko kide izendatzeagatik<sup>34</sup>.
2. Agintaldian zehar Mahaiaren hutsik geratzen diren tokiak nork bete Osoko Bilkurak erabakiko du, aurreko artikulua ezarri bezala, aurreikuspenak egokituz bete beharreko tokien arabera.

### 28. artikulua

*Ikus: [2016/04/19 aurrekaria]*

1. Honako hauek dira Mahaiaren egitekoak:
  - 1) Batzar Nagusietako lana antolatzeak eta barneko araubide eta gobernuak eskatzen dituen erabaki eta neurri guztiak hartzea.
  - 2) Batzar Nagusien gastuak agintzea, zeregin horiek eskuordetu ere egin ditzakeen arren. *Ikus: [2017/10/2ko Mahaiaren Erabakia]*
  - 3) Parlamentu-idatziak eta agiriak izapidetu eta kalifikatzea, Araudi honen arabera, bai eta agiri horiek izapidetzeko onartzea edo ez onartzea ere.
  - 4) Batzar Nagusien aurrekontuaren proiektua egitea Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako<sup>35</sup> Batzordeari bidaltzeko, au-

---

34. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 24.3.a), 37.1 eta 47.2 artikulua.

35. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

rrekontuen gauzatzea zuzentzea, eta ekitaldi bakoitzaren amaieran aurrekontuen betetzeari buruzko txostena aurkeztea aipatutako Batzordeari<sup>36</sup>.

- 5) Batzar Nagusien jarduera sustatzea, jardunaren ildo nagusiak programatzea, Osoko Bilkuren eta batzordeen jarduera-egutegia zehaztea eta horien organoen lanak koordinatzea, betiere, Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzun ondoren.
  - 6) Batzordeen kopurua eta batzarkide-talde bakoitzak batzordeetan izan beharreko ordezkartza proposatzea Bozeramaileen Batzordeari.
  - 7) Osoko Bilkuren aretoan aulkiak nola banatu proposatzea Bozeramaileen Batzordeari, bai eta Batzar Nagusien egoitzan batzarkide-taldeak nola kokatu ere.
  - 8) Osoko Bilkuretako gai-zerrenda proposatzea Bozeramaileen Batzordeari.
  - 9) Araudi honetan esleitzen zaizkion beste egiteko guztiak eta beste organo bati bereziki esleitu gabeko guztiak.
2. Mahaiak agiriak kalifikatu eta izapidetzerakoan hartutako erabakiekin batzarkide-talderen bat ados egon ezean, berriro aztertzeo eska diezaioke, betiere, erabakia jakinarazi eta hiru egunen barruan. Berriro aztertzeo eskaera-idatziak izapideak etenda utziko ditu Mahaiak erabakia hartu arte.

Mahaiak behin betiko erabaki arrazoitua hartuko du, Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzun eta gero, eta hamar eguneko epean<sup>37</sup>.

---

36. Ikus martxoaren 27ko 4/2007 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko Foru Arauaren 2.5 artikulua (72 zk.ko GAO, 2007ko apirilaren 13koa).

37. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 29. artikulua

1. Batzar Nagusietako lehendakaria Batzar Nagusien ordezkari da, lanak bide onetik joatea bermatuko du, eztabaidak zuzenduko ditu, eztabaidetan ordena zainduko du eta ordainketak aginduko ditu. Eskuordetzeak egin ditzake bere egitekoetan.
2. Lehendakariari dagokio Araudi hau betetzea eta betearaztea. Bilkuretan, lehendakariak interpretatuko du Araudia zalantza dagoenean<sup>38</sup>, edo osatu egingo du hutsuneak dituen. Dena den, egoki baderitzo, sortutako arazoak garrantzi handia badu, bilkura etetea erabaki dezake, Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzutearren. Bilkuretatik kanpo, lehendakariak beti entzun beharko du Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia, horien irizpidea loteslea ez izan arren.
3. Araudia interpretatu eta osatzeko zereginetan ebazpen orokor bat emateko asmoa baldin badauka, Mahaia eta Bozeramaileen Batzordea alde agertu beharko dira lehenago. Lehendakariaren ebazpen horiek indarrean egongo dira harik eta beste ebazpen batek indargabetu arte edo Araudia eraberritzezkoan Araudian jaso arte.
4. Halaber, foru-arauek eta Araudi honek esleitzen dizkion beste egiteko guztiak beteko ditu lehendakariak.

### 30. artikulua

Lehendakaria ez dagoenean edo hark ezin duenean, lehendakariordeek ordezten dute lehendakaria, hurrenez hurren, haren egitekoak betez. Gainera, lehendakariak edo Mahaiak agindutako beste egitekoak ere bete behar dituzte.

---

38. Ikus Araudi honen 1.3 artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 31. artikulua

Hauek dira Mahaiko idazkarien egitekoak:

1. Osoko Bilkuretako, Mahaiko, Bozeramaileen Batzordeko eta Batzorde Iraunkorreko aktak baimentzea, lehendakariaren oniritziarekin, bai eta Batzar Nagusien eremuko beste bilkuretakoak ere, duten karguagatik doazenean bilkuretara.
2. Bozketetako emaitzak zenbatzea.
3. Egin beharreko ziurtagiriak baimentzea, bidezko erkatzeak eta adostasunak adieraziz.
4. Osoko Bilkuretan lehendakariari laguntza ematea, eztabaidak ordeanean eta bozketak zuzen egiten direla ziurtatzeko.
5. Batzar Nagusietako lanak behar bezala egin daitezen laguntzea, lehendakariaren aginduei jarraituz.
6. Lehendakariak edo Mahaiak beren esku utzitako beste egitekoak betetzea.

### 32. artikulua

Mahaia biltzeko deia lehendakariak egingo du, bere kabuz edo gutxienez bi mahaikidek eskatuta.

Berdinketa gertatzen bada, lehendakariak edo une horretan lehendakari-lanak egiten dituenak kalitatezko botoa izango du<sup>39</sup>.

---

39. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **32. bis artikulua**

Mahaiak barne-gobernuko funtzioak izaten jarraituko du bilkura-aldieta-tik kanpo eta ganbera desegiten denetik hauteskunde-egunaren bezperara arte<sup>40</sup>.

## **II. KAPITULUA**

### **Batzorde Iraunkorra<sup>41</sup>**

#### **33. artikulua**

1. Batzar Nagusietako lehendakaria da Batzorde Iraunkorreko lehendakaria, eta Mahaiko gainerako kideek eta batzarkide-taldeetako bozeramaileek osatzen dute.
2. Batzorde Iraunkorrerako deialdia lehendakariak egingo du, bere kabuz, bi batzarkide-taldek eskatuta edo Batzar Nagusietako kideen bostena ordezkatzan duten bozeramaileek eskatuta.
3. Batzorde Iraunkorrek gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren bidez: Hau da, bozeramaile bakoitzak bere batzarkide-taldeak Ganberan dituen aulki adina boto ditu.
4. Bileretara Batzar Nagusietako legelari nagusiak joan behar du, edo hark eskuordetu duen legelariak.

---

40. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

41. Kontuan izan Araudi honen lehenengo xedapen iragankorra (eta hitzaurreko hirugarren paragrafoa). Ikus, baita ere, uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 12.2 artikulua.



### 34. artikulua<sup>42</sup>

1. Bilkura-aldia ez delako edo deseginda dagoelako Ganbera ez dagoenean bilduta, Batzorde Iraunkorrak zaindu behar ditu Ganberaren ahalmenak. Horretaz gain, egiteko hauek ditu:
  - 1) Batzar Nagusien agintaldia amaitzen denean, Osoko Bilkurari dagokion eta atzeratu ezin diren egitekoak betetzea eta erabakiak hartzea<sup>43</sup>.
  - 2) Bi bilkura-aldien bitartean, gehiengo osoak erabaki duelako, deialdiak egitea Osoko Bilkuretarako edo, hala dagokionean, edozein batzorderen bilkuretarako.
2. Batzorde Iraunkorrak aztertu dituen gaien eta hartu dituen erabakien berri emango du Ganberaren hurrengo Osoko Bilkuran. Hauteskundeak egin ondoren, Batzar Nagusietako Mahaia aukeratutakoan, Mahaiari emango zaio haien berri, eta Mahaiak Osoko Bilkurari helaraziko dizkio eratze-bilkuraren hurrengo bilkuran.

---

42. Ikus Araudi honen 4.1, 58.4, 130., 181., 190. eta 191. artikulua.

43. Ikus Araudi honen 21.3) eta 100. artikulua.



### III. KAPITULUA

#### Bozerramaileen Batzordea

##### **35. artikulua** *Ikusi [1/2026 ebazpena]*

1. Bozerramaileen Batzordea batzarkide-taldeetako bozerramaileek osatzen dute, eta Batzar Nagusietako lehendakariak zuzenduko ditu bilkurak. Lehendakariak egingo du deialdia bere ekimenez, edo bi batzarkide-taldeak eskatuta, edo Ganberako kideen bostenak eskatuta. Bozerramaileen Batzordeak balioa izan dezan, batzarkide-taldeen erdia gehi bat bildu beharko dira, eta, gainera, Ganberako kideen gehiengo osoa ordezkatu beharko dute bildutakoek.
2. Mahaiko kideak bilera horietara joan ahal izango dira, eta eztabaidetan parte hartu ahal izango dute. Mahaiko idazkarietako batek joan beharra dauka, nahitaez.
3. Batzar Nagusietako legelari nagusia ere joango da, edo haren ordezkoa, eta Araudi honen arabera Mahaian dituen egiteko berak beteko ditu.
4. Bozerramaileen Batzorderako deialdiaren berri emango zaio Foru Aldundiari, ordezkari bat bidal dezan nahi izanez gero.
5. Bozerramaileen Batzordeak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren bidez, hau da, bozerramaile bakoitzak bere batzarkide-taldeak Batzar Nagusietan dituen aulki adina boto ditu.
6. Talde mistoaren bozerramailea talde mistoko kideek izendatuko dute; agintaldiaren modua eta iraupena libreki erabakiko dute aho batez, eta Ganberako Mahaiari zuzendutako idatzi batean jasoko dute. Talde mistoa osatzen duten batzarkideen kopurua aldatzen den bakoitzean proposamena berretsi edo aldatu egin behar dute.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Ezin badute aho batez ezer proposatu, talde mistoaren araudiak gaiari buruz dioena beteko da. Ezer ez badio, Mahaiak emango ditu auzia konpontzeko arauak.

### 36. artikulua

Egiteko hauek ditu Bozeramaileen Batzordeak:

1. Mahaiak Batzar Nagusien jardueraren ildo nagusiak programatu aurretik Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzun behar du, eta gauza bera Osoko Bilkuraren eta batzordeen jardueren egutegia ezartzeko eta Ganberaren organoak koordinatzeko.
2. a) Osoko Bilkuretako gai-zerrenda ezarriko du, Mahaiak proposatuta.  
b) Zenbat batzorde egongo diren eta batzarkide-talde bakoitzak batzordeetan zenbat ordezkari izango dituen ezarriko du, Mahaiak proposatuta.  
c) Osoko Bilkuren aretoko aulkiak esleituko ditu eta Batzar Nagusien egoitzan batzarkide-talde bakoitzak izango duen kokapena erabakiko du, Mahaiak proposatuta.  
d) adierazpen instituzionalak onartuko ditu aho batez<sup>44</sup>. *Ikus:: [2010/03/17 Aurrekaria]*
3. Araudi honek esleitzen dizkion gainerakoak.

---

44. 2019ko martxoaren 27ako Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia..



## IV. KAPITULUA

### Batzordeak

#### **37. artikulua**

Batzar Nagusiek batzordeak eratuko dituzte, hobeto lan egiteko.

Batzordeak arruntak, barne-araubidekoak eta bereziak izan daitezke.

#### **1. sekzioa Batzorde arruntak**

#### **38. artikulua**

*Ikus: [1/2013 EBAZPENEA]*

1. Agintaldi bakoitza hasterakoan, Mahaiak proposatuta, Bozeramaileen Batzordeak batzorde arruntak eratzea erabakiko du, eta bakoitzaren eskumen-eremua zehaztuko du.
2. Gai, proiektu edo arauz besteko proposamen bat ez denean batzorde zehatz baten eskumenekoa bereziki edo ez denean bere eskumenekoa bakarrik, edo dituen ezaugarriengatik komeni denean, Batzar Nagusietako Mahaiak, bere kabuz edo batzordeak eskatuta, erabaki haue-tako bat har dezake:
  - a) Baterako batzorde bat eratzea.
  - b) Batzorde eskudunei esleitzea gaia, bakoitzari dagokion zatia.

#### **39. artikulua**

Batzorde arrunten kide kopurua Bozeramaileen Batzordeak zehaztuko du, Mahaiak proposatuta, Araudi honetako 36.2.b artikulua dioenaren arabera, eta, betiere, irizpide hauei jarraituta:

1. Batzarkide-talde bakoitzak sortzen den batzorde arrunt bakoitzean gutxienez kide bat izateko eskubidea du.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Gainerako kideak esleitzeko, batzarkide-talde bakoitzak kopuruz duen pisua hartuko da kontuan.

### 40. artikulua

1. Batzordeek mahai bat aukeratuko dute haien kideen artean. Lehendakari bat, lehendakariorde bat eta idazkari bat izango ditu mahaiak. Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria aukeratzeko bozketak banan-banan egingo dira. Bozketa bakoitzean, batzarkide bakoitzak izen bat idatziko du boto-txartelean, eta boto gehien jasotzen dituen aukeratuko dute. Berdinketa gertatzen bada, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietako hauteskundeetan boto gehien lortu zituen alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteko batzarkidea izango da hautatua.
2. Ganberako Mahaiko edo Foru Aldundiko kideak ezin dira aukeratu batzorde bateko mahaikide.  
Batzorde bateko mahaiko kide izateari utziko diote arrazoi hauengatik: Ganberako Mahaiko kide bihurtzeagatik, batzarkide-izaera galitzeagatik, esanbidez uko egiteagatik, batzarkide-taldeko kide izateari uzteagatik eta Foru Aldundiko kide izendatze-agatik<sup>45</sup>.
3. Batzorde bateko lehendakaria eta lehendakariordea ez daudenean, daudenen artean adinez nagusia den batzarkideak hartuko ditu haien egitekoak. Batzorde bateko idazkaria ez dagoenean, daudenen artean adinez txikiena denak hartuko ditu haren egitekoak.

---

45. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 24.3.a), 37.1 eta 47.2 artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 41. artikulua

1. Batzorde arruntetarako deialdia batzordeko lehendakariak egingo du, bere kabuz, edo honako hauetako batek eskatuta:

- Batzar Nagusietako lehendakariak.
- Bi batzarkide-taldek.
- Batzordeko kideen bosten batek.
- Batzorde Iraunkorrek<sup>46</sup>.

Aurreko ataleko eskaera egiteko, gai-zerrenda jarri beharra dago. Gai-zerrendan Araudi honen arabera batzorde horretan eztabaidatu eta bozkatzeko moduan dauden gaiak bakarrik ager daitezke.

Batzordeko mahaiaren ustez eskaera aurreko atalean ezarritakoarekin bat badator, lehendakariak batzorderako deialdia egin behar du eskaera egiten denetik zazpi egunen barruan; nolana ere, Ganberako Mahaiak lana programatu, antolatu eta koordinatzeko ahalmena dauka. Deialdia proposatutako gai-zerrendarekin egin behar da.

2. Batzorde bakoitzerako deialdia gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi behar die legelariak kideei eta Batzar Nagusietako Mahaiari, denei aldi berean. Presa dagoenean ez da 48 orduko epea bete behar, betiere, batzordeak bilkura hasi aurretik presa dagoela berresten badu.
3. Batzorde arruntek bertan dauden kideen gehiengo soilez hartuko dituzte erabakiak. Berdinketa egonez gero, boto haztatuaren sistema erabiliko da, hau da, batzarkide-talde bakoitzak batzorde bakoitzerako izendatutako bozeramaileak bere taldeak Batzar Nagusietan dituen aulki adina boto izango ditu.

Berdinketak jarraituz gero, lehendakariaren botoak erabakiko du, Araudi honetako 74.3 artikuluan ezarritako kasuan izan ezik.

---

46. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

4. Batzorde arrunt bat zuzen eratzeko, gutxienez, kideen herenek egon behar dute.
5. Batzar Nagusiek beharrezko baliabideak jarriko dituzte eratu den batzorde arrunt bakoitzerako, bai teknikoak, bai administratibo, juridiko eta ekonomikoak ere.
6. Batzordeek gehienez bi hilabeteko epea dute edozein gai bideratzeko, baina inguruabar bereziengatik epea luzatzea edo murriztea erabaki dezakete Araudi honek edo Mahaiak.  
Araudiko 44.3 artikuluko kasuetan ezin izango balitz aurreko paragrafoko epea bete, batzordeko lehendakariak batzordeari azalduko dio zer egin duten 44. artikuluko agerraldiak gauzatzeko saiatzeko<sup>47</sup>.
7. Batzorde arrunten bilkura guztiak publikoak dira. Salbuespen bezala, lehendakariak edo batzarkide-talde batek proposatuta, batzorde arrunt bat publikoa ez izatea erabaki dezake kideen gehiengoak.

### 42. artikulua

*Ikus: [2008/06/10 aurrekaria] [2018/03/20ko Mahaiaren Erabakia]*

1. Batzarkide-taldeen batzorde baterako izendatuta duten kide bat edo batzuk ordezkatu ditzakete talde bereko beste kide batzuen bitartez. Horretarako, idatziz jakinarazi behar diote Batzar Nagusietako lehendakariari.  
Bilkura zehatz baterako ordezkapenaren berri ahoz emango diote bilkuran hasieran batzordeko lehendakariari, eta bilkura amaitutakoan ordezkapena eraginik gabe geratuko da<sup>48</sup>.

---

47. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

48. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Batzar Nagusietako lehendakariordeak edo idazkariak izan arren, batzordeetarako izendatu ditzakete haien batzarkide-taldeak. Batzar Nagusietako lehendakaria Araudi honek dioen batzordeetako kide bakarrik izango da.
3. Batzarkide-taldeak bozeramailea izango dute batzorde arrunt bakoitzean, aurreko artikuluko hirugarren atalak dioena betetzearen. Izendapena batzorde bakoitzeko lehendakariari jakinaraziko diote batzordeak egiten duen lehenengo bilkuran, eta lehendakariak batzarkide-taldee horren berri emango die. Bilkura zehatz batean bozeramailea ordeztzeko, artikuluko honen lehenengo atalari jarraitu beharko zaio.

### **43. artikulua** *[1/2024 ebazpena]*

Batzordeak ponentziak osa ditzakete batzordearen eskumeneko gai zehatzak aztertzeko.

Batzorde arrunt batean ponentzia bat eratzeko arau orokor hauei jarraituko zaie:

1. Batzarkide-talde batek batzorde arrunt batean ponentzia bat sortzeko eskaera egin dezake Batzar Nagusietako Mahaiari arrazoituta idatzia zuzenduz.
2. Idatzian honako hauek azaldu beharko dira: eskaeraren arrazoiak, ponentzia zer batzorde arruntetan sortu, ponentziak aztertu behar duen gai zehatza, proposatutako metodologia eta taldeak azterlana egiteko duen epea.
3. Batzar Nagusietako Mahaiak, ponentzia sortzeko eskaera kalifikatzen duenean eta izapidetzeko onartzen duenean, eskaera-idatzia batzarkide-talde guztiei helaraziko die, bai eta dagokion batzordeko lehendakariari ere.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

4. Batzordeko lehendakariak deialdia egin behar du hilabeteko epean. Bilkura egin baino 48 ordu lehenago arte, batzarkide-taldeen proposamenak aurkez ditzakete idatziz. Bilkuran, eskaera-idatzia eta batzarkide-taldeen proposamenak ikusi, eta erabakia hartuko du batzordeak.
5. Edonola ere, batzordeko lehendakariak zuzenduko ditu ponentziak, eta batzarkide-talde bakoitzeko bina ordezkari egongo dira; bi ordezkarietako batek, gutxienez, ponentzia sortu duen batzordeko kide izan behar du.  
Ponentzian parte har dezakete, baita ere, beste erakunde batzuen ordezkariak edo eragile sozialek, aztergaiarekin lotura zuzena badute, batzordeak hala erabakitzen duenean, baina ez dute botorik izango, ahotsa bai<sup>49</sup>.
6. Ponentzia diruz hornitu beharra badago, ponentziak aurrekontu bat egin eta Batzar Nagusietako Mahaiari aurkeztu behar dio onar dezan. Betiere, Mahaiak ponentziei lanerako behar duten laguntza teknikoa eta administratiboa emango die.
7. Ponentzien bilkurak ez dira publikoak izango, batzorde arruntak taldea sortzeko erabakian aurkakoa erabaki ezean. Ponentziako idazkaria batzorde arruntean idazkari aritzen den legelaria izango da.
8. Lana bukatzen duenean txostena egingo du ponentziak, eta kideen gehiengoaren iritzia jasoko du ondorioetan. Edonola ere, ondorio horien aldekoak zer talde diren jarri behar da. Bat ez datozen iritziak boto partikular gisa agertuko dira, eta boto partikularrak zer talde, ordezkari sozial edo erakunderenak diren ere bai. Betiere, erabakiak boto haztatuaren arabera hartuko dituzte.

---

49. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Ponentzia zer batzordetan sortu den, batzorde horretan aurkeztuko da amaierako txostena. Batzordeak eztabaidatuko du, eta, nahi badu, onartu egingo du. Batzordeak horrela hartutako erabakia Batzar Nagusietako Mahaiari helaraziko dio, kasuan kasu beharrezko akordioak har ditzan batzordearen erabakia zuzen gauzatu dadin.

### 44. artikulua

1. Batzordeak, Batzar Nagusietako lehendakariaren bidez, lana hobeto egiteko behar dituen datuak eta aurrekariak lor ditzake edo eska diezazkieke erakunde hauei: Foru Aldundiari, Autonomia Erkidegoko gobernu-organoei eta beste herri-agintaritzei.
2. Halaber, bide beretik, Foru Aldundiko diputatuei edo departamentuetako goi karguei agertzeko eska diezaiekete, eztabaidagaia dela eta galdetutakoaren berri emateko batzordeari. Batzordeak agerraldia gauzatzeko epea jarriko du, gaiaren garrantziaren arabera.
3. Batzordeek, batzarkide-talde batek eskatuta eta goian esandako bide beretik, pertsona fisikoei eta erakundeei ere dei diezaziekete, gai bati buruz aholkua edota informazioa emateko. *Ikus: [2018/06/5eko Mahaiaren Erabakia]*
4. Era berean, batzordeek, batzarkide-talde batek eskatuta eta Batzar Nagusietako lehendakariaren bidez, sektore publiko foraleko ardura-dunei ere deitu diezaziekete, zertarako deitu zaien, horren berri eman dezaten.



## 2. sekzioa Barne-araubideko batzordeak

### 45. artikulua

Gipuzkoako Batzar Nagusiek barne-araubideko hiru batzorde iraunkor izango dituzte agintaldi guztietan, eta hauek izango dira: Bateriaezintasunen Batzordea, Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordea, eta Eskaerretarako eta Herritarrekiko Harremanetarako Batzordea<sup>50</sup>.

### 46. artikulua

1. Bateriaezintasunen Batzordea<sup>51</sup> batzarkide-talde bakoitzeko ordezkari banak osatuko dute, eta lehendakari bat, lehendakariorde bat eta idazkari bat izango ditu.
2. Bateriaezintasunen Batzordeak erabakiak boto haztatuaren sistemaren bidez hartuko ditu. Lehenengo bozketan berdinketa egonez gero, bigarrenaz bozkatuko dute. Berdinketak jarraituz gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.
3. Bateriaezintasunen Batzordeko kidea 71.2 artikuluan aurreikusitako kasuan baldin badago, bozketan egiten denean, boto haztatua zenbaitzerakoan, haren aulkia ez da kontatuko.  
Bateriaezintasunen Batzordearen eztabaidak isilpekoak izango dira<sup>52</sup>.
4. Bateriaezintasunen Batzordeak batzarkideen bateraezintasunari edo bateragarritasunari buruzko irizpenak emango ditu, eta, gainera, bateraezintasun-araubidea indarrean dagoen araudiari egokitua egoteaz

---

50. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

51. Ikus Araudi honen 7., 9. eta 10. artikulua.

52. Ikus Araudi honen 59.2 artikulua bigarren paragrafoa.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

arduratuko da une oro. Halaber, batzarkideen estatutuari buruzko gaietan arituko da, Araudi honek ezarritakoaren arabera.

5. Bateriaezintasunen Batzordeak batzarkideen eta horien ordezkoen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzko irizpena aurkeztuko dio Osoko Bilkurari, eta irizpena Araudi honen arabera bideratuko da.
6. Ordezkapenen kasuan, irizpena gehienez zazpi eguneko epean eman beharko da, hau da, akreditatuak Batzar Nagusietan ondasun eta jardueren aitopena, ondo egina, ematen duenetik zazpi egunetan.

### **47. artikulua**<sup>53</sup>

*Ikus: [2011/10/06 aurrekaria] [2018/03/20ko MAHALAren ERABAKIA]*

1. Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordea Batzar Nagusietako lehendakariak, Mahaiko gainerako kideek eta batzarkide-talde bakoitzak izendatutako batzarkideek osatuko dute. Batzar Nagusietako lehendakaria izango da lehendakaria. Batzorde arruntetarako erabakitako kide kopurua izango du, bai eta batzarkide-talde bakoitzari dagokion proportzioa ere.  
Lehendakariordea eta idazkaria, hurrenez hurren, Ganberako lehendakariorde lehena eta idazkari lehena izango dira. Ez daudenean, lehendakariorde bigarrenak eta idazkari bigarrenak ordezkatzeko dituzte.
2. Ekitaldi bakoitzerako Batzar Nagusien aurrekontu-proiektua eztabaidatu eta onartuko du, onartzea dagokionean. Halaber, ekitaldi bakoitzaren amaieran, aurrekontuaren kitapena onartuko du.

---

53. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Araudi hau une oro Ganberaren eta indarrean dagoen legediaren beharrei egokitzeaz arduratuko da. Horretarako, erabakitzen dituen aldatetak proposatuko dizkio Batzar Nagusien Osoko Bilkurari.
4. Ezaugarri bereziak dituzten gaiak jorratuko ditu, dela ez direlako eskumenen arabera batzorde bati egoztekoak, dela esku hartu behar duten agintarien izaerak gomendatzen duelako, beti ere, Mahaiaren us-tez ez bada Araudiko 38.2 artikulua ezarri behar.
5. Araudiak esleitzen dizkion egitekoak ere beteko ditu.
6. Lana hobeto egin dezan, Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordeak ponentziak sor ditzake.

### **48. artikulua**

*Ikus: [2018/03/20ko MAHAIAren ERABAKIA]*

1. Eskaerretarako eta Herritarrekiko Harremanetarako Batzordeak Batzar Nagusiei zuzendutako eskaera, iradokizun, erreklamazio eta ke-xuak aztertuko ditu, baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonak banaka edo taldean aurkeztu badituzte edo, Gipuzkoan bizi ez arren, Lurralde Historikoan oinarritutako eskubide edo interesen jabeak badira eta, gainera, baldintza hauek betetzen badira:
  - a) Foru-administrazioak edo bertako eragile edo funtzionarioek egindako ekintzen ondorioz edo beren jokaeraren ondorioz, ordenamendu juridikoak aitortutako oinarritzko eskubide edo askatasun publikoren bat kaltetzeko arriskua egotea.
  - b) Foru-administrazioko erakundeen, organoen edo zerbitzuen funtzionamenduan atzerapenak edo hutsuneak egotea, eta horren ondorioz administratuak kaltetzea edo kaltetzeko arriskua egotea.
  - c) Lurralde Historikoko foru-erakundeen eskumenen eremuan sartzten den gai bati buruzkoa izatea.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Eskaeretarako eta Herritarrekiko Harremanetarako Batzordea Batzar Nagusietako Mahaiko kideek eta batzarkide-taldeek izendatutako batzarkideek osatuko dute, agintaldi bakoitzaren hasieran batzorde arruntetarako ezarritako kide kopuruarekin eta proportzio berean. Batzar Nagusietako lehendakaria izango da lehendakaria; lehendakariorde eta idazkari, berriz, Ganberako lehendakariorde eta idazkari lehenak izango dira, eta horiek ez daudenean, lehendakariorde eta idazkari bigarrenek ordezkatu dituzte.
3. Funtzionamendurako, batzorde arruntentzako dauden araei jarraituko die Eskaeretarako eta Herritarrekiko Harremanetarako Batzordeak, Araudi honetan esanbidez ezarritako zehaztasunak salbu.

### 49. artikulua

1. Kexuak eta eskaerak idatziz aurkeztu behar dira, eskatzaileak izenpetuta. Eskatzailearen nortasuna eta helbidea agertu behar dira, bai eta eskaeraren oinarri diren egitateak ere, argi eta arrazoituta. Kasua hobeto ulertzen lagunduko duten agiriak erantsiko zaizkio eskaerari.
2. Eskaeretarako eta Herritarrekiko Harremanetarako Batzordeak idatzia jaso izana adieraziko du, eta eskatzaileari hartu duen erabakiaren berri emango dio, hala dagokionean.
3. Batzordeak beharrezkoa ikusiz gero, eskatzailea ager dadila erabaki dezake, eskaera zehaztu dezan edo arrazoien azalpen gehiago eman ditzan.

### 50. artikulua

1. Eskaera-idatziko alegazioak ikusita, eta lortutako informazioaren arabera, idatzia artxibatu ezean, Batzordeak aukera hauek ditu, beste izapiderik egin gabe:



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

- a) Araudiak batzarkideen esku jartzen dituen baliabideak erabiltzea, eta galderak, ebazpen-proposamenak eta kasurako egokitzat dituen gainerako tresnak erabiltzea.
  - b) Gaiaren eskumena duen Batzar Nagusietako batzordeari helaraztea idatzia.
  - c) Osoko Bilkurari batzorde berezi bat sortzeko proposatzea, egitate zehatz batzuk iker ditzan.
  - d) Gaia Arartekoari<sup>54</sup> helaraztea eta egoki irizten badio zerbait egin dezala aholkatzea.
  - e) Batzar Nagusien eskumenen eremuan hutsuneak edo akatsak ikusiz gero, Mahaiari txostena bidal diezaioke ikusitakoa azaltzeko eta neurri zuzentzaileak proposatzeko, edo gaia sakondu beharra dagoela adierazteko, hain zuzen, ikerketarako batzorde berezi bat sortuz edo ponentzia bat sortuz batzorde arrunt batean. Proposamen horrek kasu horietarako aurreikusitako izapideei jarraituko die.
  - f) Jarduteko duen legitimazio-eremuan dituen bitartekoengana jostzea, eta beste bitarteko batzuk erabil ditzatela proposatzea horretarako legitimazioa dutenei.
2. Aurreko neurri bat baino gehiago erabil daiteke aldi berean, neurriek uzten duten heinean.
  3. Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Arauak edo indarrean dagoen gainerako legediak Gipuzkoako Lurralde Historikoari esleitzen dizkion eskuduntzetatik kanpo dagoenean eskaeraren gaia, Batzordeak erakunde eskudunei bidal diezaietke eskaera.

---

54. Ikus, horri buruz, otsailaren 27ko 3/1985 Legea, "Arartekoa" erakundea sortu eta arautzen duena (63 zk.ko EHAA, 1985eko abenduaren 22koa).



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

4. Hartutako neurrien berri eskatzaile partikularrari emango diote, eta, eskatzaileak bat baino gehiago badira, eskaera izenpetu duen lehenengoari.
5. Batzordeak bere jardueri buruzko txostena aurkeztuko dio, urtero, Osoko Bilkurari. Honako hauek jasoko ditu txostenak:
  - a) Zenbat kexu eta eskaera jaso diren, eta zer motatakoak.
  - b) Atzera bota dituzten eskaerak eta kexuak, bideratzen ari direnak eta bideratu dituztenen emaitzak.Aparteko txostenak ere aurkez diezazkioke Osoko Bilkurari salatu-tako egitateen izaerarengatik edo garrantziarengatik komeni denean.

### **3. sekzioa Batzorde bereziak**

#### **51. artikulua**

Batzorde bereziak dira helburu zehatz baterako sortzen direnak, hain zuzen ere, batzordea sortzeko erabakiak zehazten duen lanerako. Agindu-tako lana amaitzen duenean desegiten da batzorde berezia, bai eta kideen gehiengoak erabakitzen duenean edo agintaldia amaitzen denean ere.

Batzorde bereziak azterketarako edo ikerketarako izan daitezke.

#### **52. artikulua**

Batzorde bereziak sortzeko, Araudi honek ebazpen- proposamenentzat ezarritako izapide berak egin behar dira, zehaztasun hauekin:

1. Batzorde berezia sortzeko eska dezakete bi batzarkide-taldek, Batzar Nagusietako kideen bostenak, Ganberako Mahaiak edo Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluak erabakita <sup>55</sup>.

---

<sup>55</sup>. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Azken bi kasuetan, Batzar Nagusietako lehendakaria edo diputatu nagusia izango dira bozeramaile, hurrenez hurren, eta txostengile izango dira izapideak egiterakoan. Bigarren kasuan, proposatzaile guztien izenean funtzio hori egingo duen batzarkidearen izena agertu behar da proposamenaren idatzian.

2. Edonola ere, batzorde berezi bat sortzeko proposamena Batzar Nagusien Osoko Bilkurak bakarrik eztabaida eta onar dezake.
3. Proposamenaren idatzian eskaeraren arrazoiak agertu behar dira, bai eta eskaeraren izaera, azterketa edo ikerketaren objektua, lanerako oinarrizko plana eta batzorde bereziak irauteko epea ere.
4. Batzorde bereziari ezarriko zaizkion barne-arauak batzordea eratzeko erabakian zehaztuko dira. Horien ordeztu, Araudi honetan batzorde arruntentzako jasotakoak ezarriko zaizkio. Edonola ere, Batzar Nagusietako Mahaiari dagokio horri buruzko zalantzak argitu eta interpretatzea, eta, horiek ebazteko, beharrezko irizpenak emango ditu.

### **53. artikulua**

1. Aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Batzar Nagusien Osoko Bilkurak ikerketa-batzorde bat sortzea erabaki dezake, Lurralde Historikoan interes publikoa izan dezakeen edozein gai argitzeko.
2. Batzarkide-talde bakoitzeko ordezkari batez osatuko da ikerketa-batzordea. Erabakiak boto haztatuaren bidez hartuko ditu. Horretarako, batzarkide-talde bakoitzak ordezkariaren eta ordezkoaren izenak jakinaraziko dizkio Batzar Nagusietako Mahaiari, batzordeak lehenengo bilera egin baino lehen. Titularra ez dagoenean bakarrik joan daiteke izendatutako ordezkia, eta ordezkia ezin du beste inork ordeztu.
3. Osoko Bilkurak erabakiko du, ikerketa-batzordea sortzeko erabakian, bilkurak publikoak edo isilpekoak izango diren.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Bileretan ezin dira batzordeko kide ez diren batzarkideak egon. Batzarkide-taldeek ordezeko izendatutakoak egon daitezke bakarrik, titular gisa ez dihardutenean hitz egiteko eskubiderik gabe joan daitezkeelako bileretara<sup>56</sup>.

4. Ikerketa-batzordeak lehendakari bat aukeratuko du bere kideen artean, gehiengo soilez. Lehendakariak egingo du batzordearen bilere-tarako deialdia, bai eta karguari dagozkion beste egitekoak ere. Idazkari arituko da Mahaiak horretarako izendatuko duen Batzar Nagusietako legelaria.
5. Ikerketa-batzordeak, lehenengo hiru bilkuretan, lanerako plan zehatza eta egutegia onartuko ditu, eta Batzar Nagusietako Mahaiari jakinaraziko dizkio. Lanerako planarekin batera arrazoitutako aurrekontua aurkeztuko du, aurreikusitako gastuekin, eta aurrekontua diruz hornitzeko eskatuko du. Aurrekontua Batzar Nagusietako Mahaiak onartu behar du.
6. Ikerketa-batzordeak, Ganberako lehendakariaren bidez, edozeinen agerraldia eska dezake. Pertsona hori abokatuarekin edo aholkulariarekin etor daiteke. Agerraldiaren eskaeran honakoak azaldu behar dira: agertu behar duenaren identifikazio nahikoa, zeri buruz informatu behar duen, noiz, zer ordutan eta nora etorri behar duen, erabakiaren eguna eta zer ikerketa-batzordetan agertu behar duen. Agertu behar duenak dituen eskubideak ere azaldu behar dira eskaeran. Betiere, zitazioa fede ematen duen moduren batean egin behar da, eta bost lanegun lehenago gutxienez.
7. Ikerketa-batzordeak, lana bukatzen duenean, txostena egingo du, on-dorioak jasotzeko. Batzordeko kideen gehiengoak onartu behar du

---

56. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

txostena. Boto haztatuaren araua erabiliko da, eta ondorioak zein taldek onartzen dituen jasoko da.

Ondorioekin ados ez dauden iritziak boto partikular gisa jasoko dira, iritzien jabeek horrela eskatzen badute.

Ikerketa-batzordearen azken txostena Batzar Nagusietako Mahaiari bidaliko diote hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dezan, eztabaidatua eta onartua izateko.

8. Ikerketa-batzordeak, lanean diharduela, delitu-zantzuak antzemanegero, Batzar Nagusietako Mahaiari horren berri eman behar dio.
9. Ikerketa-batzorde batek Batzar Nagusien egoitza kanpo bildu nahi badu, edo kide batzuk egoitza kanpora bidali nahi baditu, erabaki aurretik Ganberako lehendakariari horren berri eman behar dio.

### **54. artikulua**

1. Osoko Bilkurak erabakita, 52. artikulua aurreikusitako prozeduraren arabera, Gipuzkoako Batzar Nagusiek azterketa-batzorde bat era dezakete interesa duten gaiak aztertzeko, gaiek Gipuzkoako Lurralde Historikoari eragiten dioten politikekin zerikusia izan dezaketenean.
2. Osoko Bilkurak erabaki behar du azterketa-batzordea eratzea. Batzar-kide-taldeek batzorde arruntetan dituzten ordezkarien proportzio eta kopuru bera izango dute gehienez. Lehenengo hiru bilkuretan lane-rako plan zehatza eta egutegia onartuko ditu batzordeak. Lanerako planarekin batera aurreikusitako gastuen arrazoituta aurrekontua aurkeztuko du, eta Mahaiak onartu beharko dio.
3. Azterketa-batzordeak erabaki dezake foru-gobernuaren ordezkariak egongo direla batzordean, modu finkoan edo aldi baterako, lana ondo egiteko beharrezkotzat dituenen. Eta gauza bera erabaki dezake eragile sozialei eta erakunde-eragilei buruz. Ordezkar horiek batzordean hitz egiteko eskubidea izango dute.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

4. Batzordearen lana ondorioen txosten batean jasoko da. Txostena batzordearen gehiengoak onartuko du, eta ados ez dauden iritziak boto partikularretan jasoko dira, berariaz eskatzen badute iritzi horien jabeek.

Amaierako txostena Batzar Nagusietako Mahaiari bidaliko diote, deitzen den hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dezan.

## V. KAPITULUA

### Osoko Bilkura

#### 55. artikulua

1. Batzar Nagusien Osoko Bilkurarako deialdia lehendakariak egingo du, Mahaiarekin adostuta, bere ekimenez edo gutxienez Batzar Nagusietako kideen bostena ordezkatzan duten bi batzarkide-taldek edo gehiagok eskatuta<sup>57</sup>.
2. Aurreko ataleko eskaerak beti proposatu beharko du gai-zerrenda bat, baina zerrendako gaiak Araudi honen arabera Batzar Nagusien Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka daitezkeenak izan behar dira<sup>58</sup>.

---

57. Ikus martxoaren 27ko 1/1987 Legea, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kondeira Lurraldeetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzkoa (72 zk.ko EHAA, 1987ko apirilaren 10ekoa; akatsen zuzenketa: 85 zk.ko EHAA, apirilaren 30ekoa): lehen artikulua arabera Batzar Nagusiak berrogeita hamaika kidek osatuko dituzte.

58. Ikus Araudi honen 61. eta 58.5 artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Mahaiaren iritziz, Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda, eskaera aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera bada, lehendakariak deialdia egingo du proposatutako gai-zerrendarekin, eskaera egiten denetik hamabost egun naturalen barruan egin dadin bilkura.
4. Osoko Bilkura ondo eratuta egongo da kideen erdia gehi bat daudenean.
5. Osoko Bilkuretan aulki batzuk gorde behar dira diputatu nagusiarentzat eta foru-diputatuentzat.

### **56. artikulua**

Osoko Bilkuraren bilkura bakarra izango da deialdiko gai-zerrenda bukatu arte. Dena den, erabakiak onartzeko beharrezko quorumari buruz Araudi honek dioena bete behar da<sup>59</sup>.

## **VI. KAPITULUA**

### **Baliabide materialak eta giza baliabideak**

#### **57. artikulua**

Batzar Nagusiek bere egitekoak aurrera eramateko behar dituzten baliabide materialak eta giza baliabideak izango dituzte, bereziki dokumentazioarako eta aholkularitzarako zerbitzu teknikoak.

---

59. Ikus Araudi honen 72. artikulua.



## BOSGARREN TITULUA

### FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

#### I. KAPITULUA

##### Bilkurak

##### 58. artikulua

1. Bilkura-aldi arrunta irailean hasi eta hurrengo urteko uztailaren bira arte izango da<sup>60</sup>.
2. Batzar Nagusien Osoko Bilkura nahitaez bilduko da, urtero, uztailaren bian, handikiro, eta historian izan duen tradizioaren arabera tokia urtero aldatuko da. Bilkura horrek amaiera emango dio bilkura-aldi arruntari.
3. Mahaiak gai bat Osoko Bilkuran eztabaidatzeko kalifikatzen duenetik hurrengo 40 egunen barruan egin behar da Osoko Bilkura arrunta, bi salbuespenekin: Mahaiaren iritziz bideratzen ari diren gai batzuk elkartzea komeni denean, edo Araudiaren ondorioz ezinezkoa denean gaia epearen barruan bideratzea.
4. Lehendakariak, Bozeramaileen Batzordearekin adostuta, ohiz kanpoko bilkura-aldi bat egotea edo ohiz kanpoko bilkurak egitea erabaki dezake, Foru Aldundiak eskatuta, Batzorde Iraunkorrek eskatuta edo Batzar Nagusietako kideen herenak eskatuta. Eskarera, ohiz kanpoko

---

60. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 12.4 artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

bilkurako gai-zerrenda agertu behar da. Gai-zerrenda bukatzen denean amaituko da ohiz kanpoko bilkura.

5. Ohiz kanpoko bilkuretarako deialdia eta behin betiko gai-zerrenda egiteko, Araudi honek bilkura arruntei buruz dioena bete behar da, bai batzordeen kasuan bai Osoko Bilkuren kasuan.

### 59. artikulua

1. Osoko Bilkurak publikoak izango dira, kasu hauetan izan ezik:
  - 1) Bateriaezintasunen Batzordeak eginiko proposamen, irizpen, txosten edo ondorioak eztabaidatzerakoan.
  - 2) Osoko Bilkurak hala erabakitzen duenean kideen gehiengoz eta hauetako norbaiten ekimenez: Batzar Nagusietako Mahaiaren ekimenez, Foru Aldundiaren ekimenez, bi batzarkide-taldeen ekimenez edo Ganberako kideen bostenaren ekimenez. Bilkura isilpekoa izateko eskaera egin denean, bozkatu egingo da, eztabaidarik gabe, eta aurrerantzean bilkura isilpekoa izango da edo ez, erabakitakoaren arabera.
2. Batzordeen bilkurak publikoak izango dira kasu hauetan izan ezik: Kideen gehiengoak erabakitzen duenean, batzordeko mahaiaren ekimenez, Foru Aldundiaren ekimenez, bi batzarkide-taldeen ekimenez edo kideen bostenaren ekimenez. Bilkura isilpekoa izateko eskaera egin denean, bozkatu egingo da, eztabaidarik gabe, eta aurrerantzean bilkura isilpekoa izango da edo ez, erabakitakoaren arabera. Edonola ere, isilpekoak izango dira Bateriaezintasunen Batzordearen eta ikerketa-batzordeen bilkurak eta lanak, Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera<sup>61</sup>.

---

61. Ikus Araudi honen 9. eta hurrengoak, 46. eta 60.5 artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Isilpekoak ez diren bilkuretara jendea joan daiteke, gonbidapen bat izanez gero eta kasu bakoitzean lehendakariak ezarritako formalitateak betez gero.

Batzar Nagusietako Mahaiak ikus-entzunezko bitartekoak jartzea bultzatuko du, horrela, bilkurak transmitituz, jendeak bilkuretan sartzeko bidea izan dezan<sup>62</sup>.

### 60. artikulua

1. Osoko Bilkuretako eta batzordeetako akta egingo da, eta puntu hauek jasoko dira: Eztabaidatutako gaien zerrenda laburra, parte hartu duten pertsonak, izandako gorabeherak eta, betiere, hartutako erabakiak.
2. Batzordeen bilkuretako aktak legelariak egin, eta idazkariak baimenduko ditu, lehendakariaren oniritziarekin. Batzordeko kideen esku jarriko dira deialdiarekin batera, bilkuren hasieran onar ditzaten.
3. Osoko Bilkuretako aktak legelariak egingo dituzte, eta idazkariak baimenduko ditu, lehendakariaren oniritziarekin. Gero, batzarkide-taldeetako bozeramaileen esku jarriko dira.
4. Osoko Bilkurako aktaren edukiari buruz erreklamaziorik ez badago izenpetu zenetik zazpi egunen barruan, onartutzat joko da. Bestela, hurrengo Osoko Bilkuran erabakiko da.
5. Isilpeko bilkuretako aktak ale bakarrean idatziko dira, eta Batzar Nagusietako Lehendakariak gorde eta zainduko du alea. Batzarkide orok kontsultatu ahal izango du, Mahaiak hala erabakiz gero.

---

62. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## II. KAPITULUA

### Gai-zerrenda

#### 61. artikulua

1. Lehendakariak ezarriko du Osoko Bilkurako gai-zerrenda, Bozera-maileen Batzordearekin adostuta. Puntu hori bozkatzerakoan boto haztatua erabiliko da.
2. Batzordeetan, gai-zerrenda batzordeko lehendakariak ezarriko du, batzordeko mahaiaren iritzia entzunda, Batzar Nagusietako Mahaiak ezarritako egutegia errespetatuta.
3. Osoko Bilkuraren gai-zerrenda alda daiteke. Erabaki hori kideen gehiengo soilak hartu behar du, lehendakariak proposatuta, edo, bestela, bi batzarkide-taldek, kideen seienak edo Bozera-maileen Batzordeak eskatuta<sup>63</sup>.
4. Batzordeen gai-zerrendak ere alda daitezke modu berean, baina ekimena hauek izan dezakete: Batzar Nagusietako lehendakariak, batzordeko mahaiak, bi batzarkide-taldek edo kideen bostenak.
5. Gai berri bat erantsi behar denean, bai Osoko Bilkuran bai batzordeetan, gaiak izapideak beteta eduki behar ditu eta zerrendan sartzeko moduan egon, salbuespen batekin: Presako arrazoiak daudenean kideen bi herenek erabaki dezakete gaia Araudiko baldintza hori bete gabe eranstea zerrendan.

---

63. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

6. Aurreko paragrafoko salbuespena kenduta, ezin da gairik aztertu, ez batzordetan ez Osoko Bilkuran, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago txostena, irizpena edo gaiari buruzko agiriak eskura jarri gabe, batzordeei buruz 41. artikulua dioena gertatzen denean izan ezik.

### III. KAPITULUA

#### Eztabaidak

##### 62. artikulua

1. Batzar Nagusietako lehendakariak antolatu eta zuzenduko ditu Osoko Bilkurretan eztabaidak. Batzordeetan, batzordeko lehendakariak egingo du lan hori, bere eskumenen barruan.
2. Araudi honek eztabaidak arautu arren, lehendakariak ahalmena du, Bozera maileen Batzordearekin edo batzordeko bozera maileekin adostuta, eztabaidak eta bozketak antolatzeko, zenbat aldiz eta zenbat denboraz parte hartu garrantziaren arabera aldatzeko, bai eta taldeen zein gaien inguruabarrak neurtuta, talde bakoitzari gai zehatz batean dagozkion txandak gehitu edo murrizteko ere.

##### 63. artikulua

1. Batzarkideek ezin dute hitza hartu lehendakariari eskatu gabe eta hark eman gabe.
2. Lehendakariak batzarkide bati hitza ematen badio baina ez badago bertan, hitza hartzeari uko egiten diola ulertuko da. Eztabaidatutako ekimena hark edo haren taldeak proposatu bazuen, proposamena bertan behera geratzen dela ulertuko da. Hala ere, gai batean batzarkide batek hitza duenean bere taldeko beste batzarkide batek har dezake hitza, lehendakariari jakinarazi eta gero.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Batzarkide eta batzarkide-talde batzuek txanda bera batera erabiliko dutela iragartzen dutenean, hitz egiteko hurrenkera ezar dezakete, aldez aurretik horren berri eman ez gero lehendakariari.
4. Ganberako Mahaiko lehendakariordeek edo idazkariek edo batzorde bateko lehendakariak eztabaidetan parte hartu nahi dutenean bere aulkia utzi behar dute, eta eztabaida bukatutakoan aulkira itzuli. Ganberako lehendakariak Araudiak aurreikusitako eztabaidetan bakarrik hartu ahal izango du parte, eta kasu horietan aurreko paragrafoan ezarritakoa bete beharko da<sup>64</sup>.

### **64. artikulua**

Hitza erabiltzen ari denari ezin zaio hitzaldia eten, lehendakariak bakarrik eten diezaioke, denbora agortu zaiola esateko, gaiari lot dakiola edo portaera alda dezala eskatzeko, hitza kentzeko, edo Ganberari, kideren bati edo publikoari portaera aldatzeko eskatzeko.

### **65. artikulua**

Foru Aldundiko kideek hitza har dezakete eskatzen duten bakoitzean, lehendakariak ahalmena duen arren eztabaidak antolatzen.

Diputatu nagusia edo foru-diputatuak aipatutako aukeraz baliatzen bada, hitz egiteko txanda bukatzen zaienean, batzarkide-taldeek eskubidea izango dute erantzuteko edo zuzentzeko, behin bakarrik. Dena den, diputatu nagusiak edo foru-diputatuak eman diezaiokete bukaera eztabaidari.

---

64. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## 66. artikulua

1. Eztabaidan zehar aipamenen batek lehendakariaren ustez balio-iriztiak edo zehazgabetasunak baditu batzarkide bati buruz edo haren jokabideari buruz nahiz batzarkide-talde baten izen onari edo duintasunari buruz, aipatua izan den batzarkideak edo batzarkide-taldearen ordezkariak hitz egiteko aukera izango du, gehienez ere bost minutuz, egindako aipamenei ez besteri erantzuteko, eztabaidaren mui-nean sartu gabe. Muga horiek gainditzen baditu batzarkideak, lehendakariak hitza kenduko dio berehala.
2. Bilkura beraren barruan bakarrik erantzungo zaie aipamenei. Aipatu-takoa aretoan ez badago, taldeko beste batzarkide batek hitz egin dezake haren izenean; bestela, aretoan egon gabe aipatua izan denak hurrengo bilkuran parte hartu ahal izango du.

## 67. artikulua

1. Eztabaida dagoenean dagoela, batzarkideek hitza eska dezakete ustekabea, aurretiaz konturen bat argitzeko, haien ustez geroko eztabaidarako erabakigarria delako. Kontu horri buruz aldeko txanda bat eta aurkako bat bakarrik egongo dira, eta gero bozketa egingo da, lehendakariak ondo irizten badio.
2. Gai bat eztabaidatzen hasi aurretik, edozein batzarkidek gaia atzeratzeko eska dezake, behar diren inguruabar material edo formalak eman arte edo eragozten dutenak desagertu arte. Lehendakariak erabakiko du atzeratu edo ez.
3. Eztabaidan zehar, edozein batzarkidek hitza eska dezake ordena ezartzeari buruz bada, eta hitza emango zaio honako hauek eskatzen dituenean: gai-zerrendako gaiak eztabaidatzeko hurrenkera logikoa eta kronologikoa errespetatzeko, bilkuretarako ezarritako prozedura errespetatzeko, edo eztabaidaren gorabeherak direla eta hurrenkera



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

logiko bat proposatzeko. Betiere, lehendakariak erabakiko du eskutakoari buruz.

4. Eztabaida dagoenean dagoela, batzarkideek Araudia betetzeko eskatu ahal izango dute. Horretarako, ezartzeko eskatzen duten artikulua aipatu behar dute. Auzi hori ez da eztabaidatzerik izango, eta lehendakariak erabakitzen duenari men egingo zaio.
5. Darabilten gaia argitzeko egokiak diren arauak edo agiriak irakurtzeko eska dezake edozein batzarkidek eztabaidan zehar edo botoa eman baino lehen. Lehendakariak irakurketak uka ditzake uste badu alferrik direla, gaitik aldentzen direla edo eztabaida luzatzeko direla.
6. Batzarkide-talde batek eskatuta, lehendakariak denbora baterako eten dezake bilkura, atsedena hartzeko edo ados jartzea nahiz kontsultak egitea ahalbidetzeko.

Edonola ere, lehendakariak erabakiko du, arrazoituta, mahai gainean jarritako gaiak onartzea edo ez onartzea, eta, onartuz gero, hizlariak zenbat denboraz parte hartuko duten.

### **68. artikulua**

Edozein eztabaidatan, parte-hartzaile batek beste norbaiten argudioen kontra eginez gero, beste horrek erantzuteko aukera bakarra dauka, gehienez bost minutuz.

### **69. artikulua**

1. Araudiak bereziki arautu ezean, eztabaidetan taldeek jarrera agertzeko txanda bat izango dute, eta edozein gai eztabaidatzerakoan hitzaldiak ez du hamar minutu baino gehiago iraungo. Erantzuteko txandak ere egon daitezke.
2. Osoko eztabaidetan, aldeko txanda eta aurkako txanda izango dira, hogeita hamar minutukoak. Erantzuteko txanda ere egon ahal izango da, hamar minutukoa.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Araudiak ezarritako denbora igarotakoan, lehendakariak hizlariari bukatzeko bi aldiz eskatu eta gero hitza kenduko dio, eta hortik aurrera esandako ezer ez da ez aktan ez bilkura-egunkarian agertuko.
4. Lehendakariak hizlari bati hitza ken diezaioke gaiari ez zaiolako lotzen, bitan gaiari lotzeko eskatu eta gero. Lehendakariaren erabaki horren aurrean ez dago ezer egiterik.
5. Bilkura batean ezin da hitzaldi bat etenarazi edo eten hurrengo bilkura batean jarraitzeko.

### 70. artikulua

1. Lehendakariak uste badu gai bat behar adina eztabaidatu dela, eztabaida amaitzea erabaki dezake, Mahaiaren iritzia entzun ondoren.
2. Batzarkide-talde bateko bozeramaileak eskatuta ere erabaki dezake hori. Eskaera hori egiten dutenean, aldeko eta aurkako txanda emango zaio bozeramaile bakoitzari, gehienez bost minutukoa.

## IV. KAPITULUA

### Bozketak

#### 71. artikulua<sup>65</sup>

*Ikus: [2025/05/07 aurrekaria]*

1. Batzarkideen botoa pertsonala da, eta ezin da eskuordetu, kasu haue-tan izan ezik:

---

65. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

- a) Haurdunaldian zehar arriskuan egoteagatik batzarkide emakumezkoak ezin duenean Osoko Bilkuretara joateko betebeharra bete, beste batzarkide bati eskuordetu diezaioke botoa.
- b) Amatasun-, aitasun-, adopzio- edo harrera-baimenagatik batzarkideak ezin duenean osoko bilkuretako eztabaida eta bozketetara joateko betebeharra bete, beste batzarkide bati eskuordetu diezaioke botoa.
- c) Mahaiaren ustez ospitalizazioa, gaixotasun larria edo luzaroko ezintasuna ematen bada, eta batzarkideak ezin badu osoko bilkuretara joan, beste batzarkide bati eskuordetu diezaioke botoa.

Botoa eskuordetzeko, Batzar Nagusietako Mahaiari idatzia zuzendu behar zaio, eta idatzian jarri behar da zer arrazoiengatik eskatzen den eskuordetzeko, botoa eskuordetzen duen pertsonaren nahiz eskuordetzan hartzen duen pertsonaren izenak jarri behar dira, bai eta botoa zer eztabaida eta zer bozketetarako eskuordetzen den ere, edo, dago-kionean, eskuordetzaren iraupena. Mahaiak, eskaera izapidetzeko onartzerakoan, eskuordetutako botoa erabiltzeko prozedura eta gehienezko iraupena ezarriko ditu.

2. Batzarkide batek ezingo du bozkatzeko eskubidea erabili eztabaidagaia bere estatutuari buruzkoa denean.
3. Bozketa bat hasitakoan, ezin da eten, batzarkideek ezin dute bilkura-gelatik atera edo sartu, Araudi honetako 74. artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik, eta lehendakariak ezin du hitza eman bozketa bukatu arte.

### **72. artikulua**

1. Erabakiak hartzeko, Ganberako organoek Araudiaren arabera osatu behar dute bilkura, eta kide gehienek bertan egon behar dute.
2. Aurreko paragrafoa gorabehera, batzarkide batek quoruma egiazta-zeko eskatu eta ez badago aurreko paragrafoan ezarritako quoruma,



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

bozketa ordu betez atzeratuko da. Gero, bozketa baliozkoa izango da organoko kideen herena baino gehiago badaude.

3. Bozketa hasi baino lehen eskatu behar da quoruma dagoen edo ez egiaztatzeko. Behin hasita, ezin da erabakiaren balioa aurkaratu, edozein dela ere boto-emaitelen kopurua.

### **73. artikulua**

*Ikus: [2015/12/09 aurrekaria]*

1. Legeek, foru-arauek edo Araudi honek gehiengo bereziak eskatzen ez dituenean, erabakiak bertan dauden batzarkideen gehiengo soilez hartuko dira.
2. Gehiengo soila da aldeko botoak aurkakoak baino gehiago izatea, absentzioak, boto zuriak eta baliogabeko botoak kontuan hartu gabe.
3. Gehiengo osoa lortzeko, kopuru honek eman behar du boto bera: Dagoen organoko eskubidezko kideen kopurua bitan zatitu eta emaitzaren hurrengo zenbaki osoak. Salbuespena izango da Araudiak, foru-arau batek edo lege batek esanbidez adierazten duenean kide hautetsiak hartuko direla kontuan zenbaketa egiteko; orduan, berezitasun horrek izango du lehentasuna.

### **74. artikulua**

1. Bozketan berdinketa dagoenean, berriro bozkatuko dute. Berriro ere berdinketa badago, bozketa atzeratuko da; lehendakariak erabakiko du zenbat denboran, Mahaiaren iritzia entzun ondoren. Denbora hori igarotakoan, bilkura berean, batzarkideei aretotik ateratzen eta sartzen utzita, berriro bozkatuko dute. Berriz ere berdinketa egonez gero, bozketagaia baztertzen dutela ulertuko da.
2. Aurreko atalean ezarritakotik kanpo geratzen dira batzordeetako bozketak. Batzordeetako bozketetan, Araudi honetako 41.3 artikulua diosena ezarriko da.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Dena den, araugintzarako prozeduran batzordeak eskumen osoa duenean, artikulua honen 1. atalean aurreikusitako eran ebatziko da berdinketa.

### **75. artikulua**<sup>66</sup>

Batzar Nagusiek erabakiak hartzeko modu hauek dituzte:

- a) Lehendakariaren proposamena baiestea.
- b) Bozketa arrunta egitea.
- c) Jendaurrean bozkatzea, izen-abizenez deituta.
- d) Isilpean bozkatzea.
- e) Mahaiaren iritzia entzun ondoren, lehendakariak kasu bakoitzean egoki irizten dion beste eraren bati jarraitzea.

### **76. artikulua**

Lehendakariak bere proposamena iragarri eta inork ez badu eragozpenik edo aurkakorik azaltzen, baiespenez onartuta geratuko da.

### **77. artikulua**

Bozketa arrunta bi era hauetan egiaztatu dezake lehendakariak, Mahaiairekin ados jarrita:

- a) Eskua jasoz. Lehenik, alde daudenek jasoko dute eskua, gero, aurka daudenek, eta, azkenik, abstenitzen direnek. Lehendakariak emaitzaren gainean zalantza badu, edo, emaitza aldarrikatu eta gero batzarkide-talde batek kontaketa berriro egiteko eskatzen

---

66. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

badu, lehendakariak berriro kontatzeko aginduko dio idazkariari. Hurrengo eztabaida hasitakoan ezingo da ezer erreklamatu<sup>67</sup>.

- b) Bide elektronikoa erabiliz egiaztatuko da batzarkide bakoitzak zer boto eman duen, bai eta azken emaitzak ere.

Bide elektronikoa erabiltzerakoan batzarkideren bat konturatzen bada ezin duela garaiz bozkatu tresna ez dabilelako, berehala jakinarazi behar dio lehendakariari. Lehendakariak bozketa etengo du tresna begiratzeko eta beharrezkoa bada konpontzeko. Hori egindakoa, bozketa egingo da. Arazoak bere horretan jarraituz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita, bozketa egin ahal izateko neurriak hartuko ditu.

Bozketa etenda dagoen bitartean, batzarkideek ezin dute ez aretotik atera ez sartu.

### 78. artikulua

1. Jendaurreko bozketa, banan-banan deituz, kasu hauetan egingo da:
  - a) Araudiak dioenean.
  - b) Bi batzarkide-taldek eskatzen dutenean.
  - c) Organoa osatzen duten batzarkideen bostenek eskatzen dutenean.

Batzuk jendaurrekoa eta beste batzuk isilpekoa eskatzen badute, bozketa isilpekoa izango da.

2. Jendaurreko bozketa banaka deituz egiten denean, idazkari batek batzarkideen izen-abizenak esango ditu, eta «bai» edo «ez» erantzungo dute, edo abstenitu egingo direla adieraziko dute. Osoko Bilkuran, alfabetoaren hurrenkeran egingo dira deiak, zozketaz ateratako abizena

---

67. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

duen batzarkidearengandik hasita. Foru Aldundiko kide diren batzarkideek eta Mahaiko kideek bukaeran bozkatuko dute. Batzordeetan, kideen abizenen alfabeto-hurrenkerari jarraituko zaio.

### 79. artikulua

Isilpeko bozketa bi modu hauetan egin ahal izango da:

- a) Bide elektronikoz. Nork bere botoa beste inork ikusi gabe emango duela bermatuko da.
- b) Boto-txartelen bidez, lehendakariak erabaki duelako, pertsonak aukeratu behar direlako edo hala egiteko eskatu dutelako bi batzarkide-taldek edo organoa osatzen duten kideen bostenek. Batzarkideei izenez deituko diete, alfabeto-hurrenkeran, Mahaira joan eta txartela boto-ontzian sar dezaten.

### 80. artikulua (Ezabatua) <sup>68</sup>

### 81. artikulua <sup>69</sup>

1. Gai bati buruzko bozketa edo bozketen multzoa amaituta, batzarkide-talde bakoitzak bost minutuz hitz egin ahal izango du botoa azaltzeko, baldin eta ez badu eztabaidan hitz egin.  
Txanda horretako jarduna mugatuko da azaltzera zergatik eman duten botoa. Hizlariak horretara mugatu behar du, ezin du eztabaida berri hasi, eta ezin du aurreko eztabaidetan beste batzarkide-taldeen emaniko argudioei buruz hitz egin.

---

68. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

69. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Foru-arauden proiektu eta proposamenak batzordean eztabaidatzen direnean, azken bozketaren ondoren eman ahal izango da botoaren azalpena, nahiz eta aurreko eztabaidan hitz egin izan.
3. Batzarkide-talde batek eztabaidan parte hartu eta horren ondorioz botoa aldatu badu, azalpenak emateko eskubidea izango du.
4. Bozketa isilpekoa izan denean ezingo dute botoari buruzko azalpenik eman. Ez dira onartuko, ezta ere, pertsona bakoitzaren banakako botoari buruzko azalpenak, baina kasu honetan bai: isilpekoa ez den bozketan, azalpenak emateko txanda eska dezake bere taldeak emandako botoaren kontrako botoa eman duenak.

## V. KAPITULUA

### Epeak zenbatzea eta agiriak aurkeztea

#### 82. artikulua

1. Non eta kontrakoa ezartzen ez den, Araudi honetan egunka adierazitako epeak egun baliiodunka zenbatuko dira, eta hilabeteka adierazitakoak, berriz, datatik datara.
2. Bilkura-aldia bukatzen denean zenbaketa eten egingo da, behintzat gaia ez badago ohiz kanpoko bilkura bateko gai-zerrendan sartuta. Kasu horretan, Batzar Nagusietako Mahaiak esango du zein egun bihurtu baliiodun ohiz kanpoko bilkura egin ahal izateko beharrezko izapideak betetzeko, ez beste ezertarako.
3. Aurreko atala gorabehera, bilkura-aldia bukatu arren, idatziz erantzuteko galderei eta informazio-eskaerei erantzuteko epeak ez dira etengo, Mahaiak izapidetzeko onartu dituenen.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 83. artikulua

1. Batzar Nagusietako Mahaiak Araudi honetan ezartzen diren epeak laburtzea edo luzatzea erabaki dezake, arrazoituz gero.
2. Salbuespenetan izan ezik, epeak ezingo dira beste hainbeste baino gehiago luzatu, ez eta erdia baino gutxiago laburtu ere.

### 84. artikulua

1. Agiriak Mahaiak dioen egunetan eta ordutegian aurkez daitezke Batzar Nagusietako idazkaritza nagusiko erregistroan. Epe barruan aurkeztutako agiriak onartuko dira, indarrean dauden arauk eskatutako baldintzak betetzen badituzte.
2. Batzar Nagusietako idazkaritza nagusiko erregistroan aurkeztutako idatziek zer motako ekimena den bereizteko aukera eman behar dute, eta erreferentziako izenburua eduki beharko dute goian.
3. Euskarri informatikoan edo internet bidez aurkez daitezke agiriak, Batzar Nagusietako Mahaiak jartzen dituen arauak beteta.

## VI. KAPITULUA

### Gaiak presakotzat jotzea

### 85. artikulua

1. Batzar Nagusietako Mahaiak gai bat presako prozeduraren arabera bideratzea erabaki dezake, Foru Aldundiak edo ekimenaren egileak eskatzen duenean, presa behar bezala arrazoitua badago<sup>70</sup>.

---

70. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Aurreko erabakia hartzerakoan, Mahaiak epe berriak ezarriko ditu, zeintzuek epe arrunten erdia iraungo baitute, salbuespenezko inguruabarrak egon ezean behintzat.

## VII. KAPITULUA

### Batzar Nagusien argitalpenak eta haien lanen publizitatea

#### 86. artikulua

Hauek dira Batzar Nagusien argitalpen ofizialak:

- 1) Gipuzkoako Batzar Nagusien Aldizkari Ofiziala.
- 2) Osoko Bilkurako, Batzorde Iraunkorreko eta isilpekoak ez diren batzordeetako bilkura-egunkariak.

#### 87. artikulua

1. Honako hauek argitaratuko dira Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean<sup>71</sup>: Foru-arauen proiektuak eta proposamenak, ebazpen-proposamenak, ponentzien txostenak, batzordeek araugintza-prozeduratik kanpo emandako irizpenak, interpelazioak, berretsi beharreko hitzarmen-proiektuak, eta Mahaiaren ustez behar bezala ezagutzeko eta izapide araugileetarako argitaratu beharreko testu eta agiri guztiak, bai eta lehendakariak agindutakoak ere.
2. Lehendakariak, presagatik eta Ganberaren lana antolatzeagatik, agindu dezake agirien kopiak bitarteko mekanikoen bidez egiteko, eta

---

71. Batzar Nagusien lehenengo Aldizkari Ofiziala 2006ko azaroaren 7an argitaratu zen.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

banatzeko eztabaidatuko dituen organoko batzarkideei. Nolanahi ere, dagokionean, Aldizkarian argitaratu beharko dira.

### 88. artikulua

1. Bilkura-egunkarietan oso-osorik jasoko dira jendaurreko bilkuretan egindako hitzaldi guztiak eta hartutako erabaki guztiak, eta izan diren gorabeheren berri ere emango da.
2. Isilpeko bilkuretako erregistro grafiko, soinudun edo idatziak Lehendakaritzan gordeko dira.

### 89. artikulua

1. Gizarte-komunikabideei Batzar Nagusien organoen jardueren berri emateko neurri egokiak hartuko ditu Mahaiak.
2. Batzar Nagusietako Mahaiak arautuko du komunikabideetako profesionalak Ganberan esleituta dituzten lokaletara nola sartu, eta joatea daukaten bilkuretara nola sartu.  
Grabazio grafiko eta soinudunak ere Ganberako Mahaiak baimendu behar ditu, eta, horretarako, egokitzen dituen arauak emango ditu<sup>72</sup>.
3. Batzar Nagusien jarduerarekin lotutako agiri guztiak publikoak dira, gairen bati buruz esanbidez aurkakoa ezartzen denean izan ezik. Mahaiak arautuko du nola eta zein eratan emango den agiritara sarbidea.

### 89. bis artikulua<sup>73</sup>

1. Batzar Nagusiek bere jarduera publikoen gardentasun ahalik eta handiena bermatuko dute.

---

72. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

73. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Mahaiak neurri egokiak hartuko ditu herritarrek web-orriaren bidez parlamentu-izaerako dokumentaziorako sarbidea izan dezaten, eta dokumentazioaren izapideen jarraipena egiteko aukera izan dezaten. Halaber, Mahaiak arautuko du Batzar Nagusien web-orriaren barruko gardentasunaren atarian jarriko den informazioaren edukia.

### VIII. KAPITULUA

#### Batzar Nagusien diziiplina

##### 1. sekzioa Batzar Nagusietako lehendakariak gaiari lotzeko edo portaera aldatzeko eskatzea

###### 90. artikulua

1. Hizlariari gaiari lotzeko eskatuko dio lehendakariak gaitik aldentzen bada, digresio arraroak egiten baditu edo lehendik eztabaidatua edo bozkatua dagoenaren gainera itzultzen bada.
2. Lehendakariak hitza kenduko dio hizlariari, hitzaldi berean hirugarrenez eskatu behar balio gaiari lotzeko.

###### 91. artikulua

Lehendakariak portaera aldatzeko eskatuko die batzarkide eta hizlariei arrazoi hauengatik:

---

arabera idatzia. Ikus 19/2013 Legea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa eta Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko 4/2019 Foru Arauaren 2.2 artikulua eta lehenengo xedapen gehigarria (4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru-gobernantza publikoaren esparruan) (53zk.ko GAO, martxoaren 18koa)



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

- 1) Batzar Nagusien, batzarkideen, aldundietako, udaletako, erkidego-etako edo Estatuko erakundeen, edo beste edozein pertsona edo erakunderen izen ona iraintzen duten hitzak esateagatik, edo irudi nahiz mezu grafikoak erakusteagatik.
- 2) Eztabaidak behar bezala egin daitezen ezarritakoa ez betetzeagatik hitzaldietan.
- 3) Bilkuretako ordena hausteagatik etenaldiekin edo beste edozein modutara.
- 4) Hizlari bati hitza kendu arren hitz egiten jarraitzen saiatzeagatik.

### **92. artikulua**

1. Batzarkide edo hizlari bati bilkura berean lehendakariak hiru aldiz eskatu badio portaera aldatzeko, hitza ken diezaioke; horretarako, bigarren aldian ondorioez ohartarazi behar dio. Lehendakariak bilkuran ez jarraitzeko zigorra ezarri ahal izango dio, eta erabaki hori ezingo da eztabaidatu.
2. Bilkura-aretotik irteteko eskatu arren batzarkideak uko egiten badio, kanporatua izan dadin beharrezko iruditzen zaizkion neurriak hartuko ditu lehendakariak. Kasu horretan, gainera, hurrengo bilkurara joatea debeka diezaioke lehendakariak, 97. artikuluan ezarritakoa gorabehera.
3. Aurreko artikuluko lehenengo ataleko kasuan, lehendakariak batzarkide edo hizlariari egin dituen irainak zuzentzeko eskatuko dio, eta bilkura-egunkarian ez daitezela agertu aginduko du. Eskaera horri uko egiteak portaera aldatzeko behin eta berriz eskatzea ekar dezake, artikulua honetako aurreko ataletan aurreikusitako ondorioekin.



## **2. sekzioa Batzar Nagusien esparruko ordena**

### **93. artikulua**

Batzar Nagusien esparruan eta leku guztietan ordena egon dadin zainduko du lehendakariak, bere ahalmenak erabiliz. Horretarako, egokitzat jotzen dituen neurri guztiak hartu ahal izango ditu, eta ordena hausten dutenak epaileen esku ere utziko ditu behar izanez gero.

### **94. artikulua**

Inork Batzar Nagusien esparruan, bilkura batean edo bilkuratik kanpo, batzarkide izan edo ez, istilu larria sortzen baldin badu bere jarduerarekin edo hitzekin, berehala kanporatuko dute.

Batzarkidea baldin bada, gainera, batzarkide-izaera kenduko dio lehendakariak unean bertan, gehienez ere hilabeterako. Ganberak, Mahaiak proposatuta eta 97. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zigorra luzatu edo larritu dezake.

### **95. artikulua**

1. Tribunetan ordena egon dadin zainduko du lehendakariak jendaurreko bilkuretan.
2. Tribunetan norbaitek onespenezko edo gaitzespeneko adierazpenak egiten baditu, ordena hausten badu edo ez badauka behar bezalako portaera, berehala kanporatuko dute bilkura-aretotik lehendakariak aginduta. Gertatutakoa delitu edo falta izan badaiteke, Batzar Nagusietako segurtasun-zerbitzuei bidezko eginbideak betetzeko aginduko die lehendakariak, egoki irizten badio.
3. Bilkura ohi bezala egitea eragozten duten gorabeherak gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiaren iritzia entzunda, bilkura eten edo amaitu dezake.



### **3. sekzioa Batzarkideen erantzukizunak**

#### **96. artikulua**

Araudi honetako 12tik 15era bitarteko artikuluek batzarkideari ematen dizkion eskubideetako batzuk kentzea erabaki dezake Mahaiak 90. artikuluko kasuan eta beste kasu hauetan:

- 1) Osoko Bilkuretara edo batzordeko bilkuretara nahita ez denean joaten behin eta berriro edo nabarmenki. Horretaz gain, Araudi honetako 17.1 eta 25.2 artikuluetan ezarritakoa ere beteko da.
- 2) Araudi honetako 17.3 artikuluan ezarritako sekretu- betebeharra hausten duenean.

#### **97. artikulua**

1. Batzarkide-izaeraren erabilera aldi baterako kentzea erabaki dezake Ganberaren Osoko Bilkurak, parlamentu-diziplina dela-eta, honako kasu hauetan:
  - 1) Aurreko artikuluan aurreikusitako zigorra ezarri eta bete ondoren, batzarkideak jokabide berari eusten dionean.
  - 2) Batzarkideak armak daramatzanean Batzar Nagusien barruan.
  - 3) Bilkura-aretotik kanporatua izan, baina batzarkideak ez duenean handik atera nahi.
  - 4) Batzarkideak Araudi honetako 18. artikulua ezarritakoa urratzen duenean.
  - 5) Batzarkideak, bere zereginetan diharduela, Araudi honetako 17.2 artikulua dioena nabarmen urratzen duenean.
2. Aurreko ataleko lehenengo hiru kasuetan Ganberako Mahaiak egingo du proposamena, eta laugarren eta bosgarren kasuetan Bateriaezintasunen Batzordeak. Proposamen horiek Ganberak aztertuko ditu, isilpeko bilkuran. Batzarkide-taldeek eztabaidan parte hartzeko aukera



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

izango dute, bozeramaileen bitartez. Gero, Ganberak hartuko du erabakia, beste izapiderik gabe.

### 98. artikulua

1. Artikulu honetan arautuko dira jardueren eta ondasunen aitortpena dela-eta jarri ahal izango diren zigorrak, hau da, Araudi honetako 3. eta 19. artikuluetan aurreikusitako aitortpenari buruzkoak.
2. Aitortpena ezarritako epeetan ez aurkeztea hutsegite arina izango da, eta ohartarazpena egingo zaio egileari. Ohartarazpenean, eginbeharra betetzeko eskaera ere egingo zaio.
3. Hutsegite larriak izango dira honako hauek:
  - a) Aitortpena ez aurkeztea, aurkezteko eskatu arren.
  - b) Aurkeztutako aitortpenetako okerrak edo hutsuneak ez konpontzea, konpontzeko eskatu arren.
  - c) Aitortpenetan agertu beharreko datuak ezkutatzea edo gezurrezko datuak ematea.

Hutsegite larriak zigortzeko, eskubide ekonomikoak kenduko zaizkio hilabete eta hiru hilabete artean.

4. Hutsegite oso larriak dira honako hauek:
  - a) Zigortua izan arren, hutsegite larria behin eta berriro egitea.
  - b) Garrantzi ekonomiko edo sozial handiko datuak ezkutatzea edo gezurrezkoak ematea.

Hutsegite oso larriak zigortzeko, eskubide ekonomikoak kenduko zaizkio hiru hilabete eta sei hilabete artean.

5. Batera ezintasunen Batzordeak<sup>74</sup> hasiko du espediente, eta, hala badagokio, Batzar Nagusietako Mahaiari proposatuko dio zigorra, behin betiko ezar dezan.

---

74. Ikus Araudi honen 46. eta 59.2 (bigarren paragrafoa) artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

6. Betiere, hutsegiteen egileek ez dagozkien diru kopuruak jaso badi-tuzte, itzuli egin beharko dituzte.

### 99. artikulua

1. Diziplina-espeditente bat eginaz bideratuko dira atal honetan aurrei-kusitako prozedura zigortzaileak. Betiere, azalpenak emateko aukera emango zaio interesatuari. Berrogeita zortzi orduko epea izango du, gutxienez, nahi dituen alegazioak aurkezteko.
2. Bai proposamenak bai erabaki zigortzaileak arrazoiak adierazi be-har dituzte, eta zigorraren hedadura eta iraupena ere bai. 25.1 arti-kuluan aurreikusitako diru-laguntzaren zati alikuota murriztea ekar dezake zigorrak. Murriztapen hori nahitaezkoa izango da 97. artiku-luan aurreikusitako aldi baterako etenduraren kasuan.
3. Zigorra ekarri duten gertaerak delitu izan daitezkeela uste badu Ma-haiak, organo judizial eskudunari jakinaraziko dio lehendakariak.
4. Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizi-alean argitaratuko dira ezarritako zigorrak.

## IX. KAPITULUA

### Legebiltzarreko izapideak iraungitzea

#### 100. artikulua

Batzar Nagusien agintaldia bukatzen denean, izapidetze-bidean dauden gai guztiak iraungi egingo dira, Batzorde Iraunkorrari dagozkionak edo legeak dioelako luzatu beharrekoak izan ezik<sup>75</sup>.

---

75. Ikus Araudi honen 34.1 artikulua eta 21. artikulua 3) atala.



**SEIGARREN TITULUA**  
**ARAUGINTZA-PROZEDURA<sup>76</sup>**

**I. KAPITULUA**

**Araugintza-prozedura arrunta**

**1. sekzioa Araugintzarako ekimena**

**101. artikulua**

Hauek daukate araugintzarako ekimena Batzar Nagusien aurrean:

1. Batzarkideek eta batzarkide-taldeek, Araudi honetan aurreikusitako-ari lotuta<sup>77</sup>.
2. Foru Aldundiak<sup>78</sup>.

---

76. Kontuan izan uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 6.1 artikulua.

77. Zentzu berean, uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 10.1.a) artikulua. Ikus, baita ere, Araudi honen VI. tituluko I. kapituluko 5. sekzioa, 115. eta hurrengo artikulua.

78. Zentzu berean, uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 10.1.b) artikulua. Ikus, baita ere, Araudi honen 102. eta hurrengo artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Lurralde Historikoko udalek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauari jarraiki (6/2005 Foru Araua, uztailearen 12koa)<sup>79</sup>.
4. Herritarrek, araugintzarako herri-ekimena arautzen duen Foru Arauan aurreikusitakoari jarraiki<sup>80</sup>.

### 2. sekzioa Foru-arau proiektuak

#### 102. artikulua

1. Foru Aldundiak bidalitako foru-arauen proiektuek zioen adierazpena eta artikuluen testua izan beharko dituzte.
2. Halaber, aurrekariak ere izan behar dituzte, proiektuari buruz iritzia eman ahal izateko beharrezko aurrekariak. Horretarako, dokumentu hauek erantsi behar zaizkio, gutxienez: hastapen-agindua; memoria orokorra, non entzunaldi, kontsulta edo informazio publikoko izapideetan izan diren alegazioak —halakorik izan bada— jaso behar diren eranskin bezala; Departamentuak eginiko txosten juridikoa; genero-eraginaren ebaluazio-txostena, eta eragin txarrak arintzeko neurri zuzentzaileak, halakorik badenean; aurrekontu-eraginari buruzko txostena, zeinak, aurrekontuentzako karga bat bada, finantza-ketari buruzko txostena ere jaso behar duen. Lege Aholkularitzako

---

79. Kontuan izan uztailearen 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 11. artikulua. Ikus, baita ere, Araudi honen 116.1.4) eta 120. artikulua.

80. Zentzu berean, uztailearen 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 10.1.d) artikulua. Ikus, baita ere, Araudi honen 116.1.3) eta 119. artikulua, eta apirilaren 10eko 7/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Herritarren Arau Ekimena Arautzekoa (79 zk.ko GAO; 2007ko apirilaren 24koa, 1112 or. eta hurrengoak).



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Batzordeak irizpena eman duen kasuetan irizpena ere bidali behar da<sup>81</sup>.

3. Aurrekarietan, behar denean, foru-arau proiektuak generoaren araberaren izan dezakeen eragina neurtu behar da, eta bidezko neurri zuzentzaileak jaso.
4. Batzar Nagusietako Mahaiak, proiektua izapidetzeko onartu duenean, argitara dadila aginduko du<sup>82</sup>, dagokion batzordera bidaliko du, eta argitaratu denetik hiru eguneko epea emango du batzarkide-taldeek Foru Aldundiko kideen agerraldia eska dezaten, proiektua hobeto ezagutzeko behar dutela uste badute.

### 103. artikulua

*Ikus: [2011/11/07 (2) aurrekaria]*

1. Informazioa emateko agerraldiak egindakoan, edo aurreko artikuluko 4. ataleko epea igarotakoan, Mahaiak hamabost eguneko epea irekiko du zuzenketak aurkezteko. Zuzenketak aurkezteko idatzia Mahaiari zuzenduko zaio.
2. Zuzenketak osokoak izan daitezke, edo foru-arau proiektuaren artikuluei buruzkoak.
3. Zuzenketa foru-arau proiektuaren egokitasunari, printzipioei edo espirituari buruzkoa denean eta proiektua atzera Foru Aldundiari itzultzeko eskatzen duenean, osoko zuzenketa da. Proiektuaren testuaren orde bestetatu bat proposatzen duenean ere osoko zuzenketa da. Osoko zuzenketak batzarkide-taldeek aurkez ditzakete, eta Batzar Nagusietan ordezkariak duen alderdi, talde edo koalizio bakoitzak

---

81 .2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

82. Ikus Araudi honen 87. artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

ere bai, talde mistokoak direnean Araudiaren arabera kopuruagatik ezin dutelako batzarkide-taldea osatu.

4. Zuzenketa partzialak aurkez ditzakete batzarkideek, artikuluetan testua kendu, erantsi edo ordezteko. Zuzenketa aditzera eman behar dute bere taldeko bozeramailea jakinean dagoela. Eransteko eta ordezteko zuzenketa, proposatzen den testua jaso behar da. Halaber, zuzenketa proposa daitezke arauaren izenburuarentzat, zioen adierazpenarentzat, atalen izenburuarentzat, atalen antolaketa sistematikoarentzat, eta xedapen gehigarri, aldi baterako xedapen, indargabetezko xedapen edo azken xedapenarentzat, bai eta araua osatzen duten eranskinarentzat ere.

### 104. artikulua

1. Foru-arauari egindako zuzenketa aurrekontu-kredituak gehitzea edo aurrekontu-sarrerak gutxitzea badakar, Foru Aldundiaren adostasuna behar du izapidetzeko<sup>83</sup>. Bi kasu hauetan ez zaio iritziko kreditu-gehitzea dakarrela zuzenketa: Batetik, behin betiko onartua izanez gero eragina etorkizuneko aurrekontu-ekitaldi baterako atzeratzen denean; bestetik, batzarkide edo batzarkide-talde proposatzaileak zuzenketa aurkezterakoan adierazten duenean aurrekontu-kredituen zenbateko osoa gaituz gero gastuak indarrean dagoen aurrekontuko zein partidaren kontura ordainduko diren.
2. Horretarako, Batzar Nagusietako Mahaiak Foru Aldundiari bidaliko dizkio aipatutako gehitzea edo gutxitzea dakartzaten zuzenketa.

---

83. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 31.5.a) artikulua eta Araudi honen 126. artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Foru Aldundiak erantzun arrazoitua eman behar du hamabost eguneko epean. Epe hori luzatzea erabaki dezake Mahaiak. Epea igarota, Aldundiaren isiltasunak adostasuna adieraziko du.

### **105. artikulua**

1. Osoko zuzenketa bakoitzaren eztabaida Osoko Bilkuran egingo da, 69. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
2. Eztabaida hasi baino lehen, Foru Aldundiko kide batek foru-arau proiektua aurkez dezake.
3. Eztabaida bukatuta, Batzar Nagusietako lehendakariak bozketan jarriko du proiektua Foru Aldundiari atzera itzultzea edo ez, edo, ordezko testua aurkeztu badute, onartzea edo ez.
4. Osoko Bilkurak proiektua itzultzea erabakitzen badu, proiektua baztertutzat joko da, eta Batzar Nagusietako lehendakariak horren berri emango dio Foru Aldundiari.
5. Ordezko testua duen osoko zuzenketa batek aurrera egiten badu, Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko da ordezko testua, Mahaiak beste epe bat irekiko du artikuluen zuzenketak aurkezteko, eta testua dagokion batzordeari bidaliko dio.

### **3. sekzioa Batzordeko eztabaida**

#### **106. artikulua**

Zuzenketak aurkezteko epea bukatu denean, eta osoko zuzenketa eztabaida bukatu denean –eztabaida egin bada–, batzordeak ponentzia bat izendatu ahal izango du, foru-arauaren proposamena eta aurkeztutako zuzenketak aztertzeko. Arau hauei jarraiki jardungo du ponentziak, eta ordezko arauak izango ditu 43. artikulukoak:



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

1. Ponentzia batzarkide-talde bakoitzeko kide batez osatuko da, eta boto haztatuz hartuko ditu erabakiak. Zuzenketak aurkeztu dituzten talde mistoko kideek ponentziako kide izateko eskubidea dute.
2. Ponentzia eratu denean, kideek barne-funtzionamendurako arauak eta lanerako plana ezarriko dituzte.
3. Ponentziak batzordeari txosten arrazoitua aurkeztuko dio, aurkeztutako zuzenketei buruz egokiak iruditzen zaizkion proposamenak bilduta. Halaber, batzarkide-talderik ez badago aurka, aldaketak iradoki ahal izango ditu zuzenketarik izan ez duten artikuluei buruz, egoki iritziz gero.
4. Batzordeak, ponentzia eratzerakoan, txostena batzordeko kideei eza-gutzera emateko epea jarriko du. Dena den, batzordeko mahaiak txostena egiteko epea luzatu dezake proiektuaren garrantzia dela-eta, lanaren zailtasuna dela-eta edo beste inguruabarrak direla-eta.

### **107. artikulua**

1. Ponentziak txostena egindakoan, batzordeko eztabaida hasiko da. Eztabaida artikuluz artikulua egingo dute. Artikulu bakoitza eztabaidatzerakoan, batzordeko kideek hitz egin ahal izango dute, eta batzordeko kide ez izan arren talde mistoaren ordezkariak ere bai, artikuluen zuzenketen egile direnean.
2. Batzordeak zioen adierazpena foru-arauaren atariko gisa jasotzea erabakitzen badu, artikuluekin bukatutakoan eztabaidatuko dira zioen adierazpenaren gainean aurkeztutako zuzenketak.
3. Eztabaida antolatu ahal izango du lehendakariak, batzordeko mahaiarekin ados jarrita. Horretarako, artikulu bakoitza eztabaidatzeko gehienezko denbora, hitz egiteko eskaeren kopurua kontuan izanik bakoitzari dagokion denbora, eta irizpenaren ondorioentzako guztira izango den denbora ezarriko ditu.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

4. Artikulu bat eztabaidatzen ari direla batzordeko kide batek edo 1. puntuan aipatutako talde mistoaren ordezkariak idatziz zuzenketa berri bat aurkeztuz gero, izapidetzeko onar dezake mahaiak, baldin eta lehenago aurkeztutako zuzenketa eta artikulua testuaren artean erdibideko adostasuna bilatzeko bada. Erdibideko zuzenketa bozkatzeko, ordea, hasierako zuzenketa erretiratzea ekarri beharko du erdibideko zuzenketa.
5. Izapidetzeko onartuko dira, baita ere, huts eta akats teknikoak, terminologikoak edo gramatikalak konpontzeko egindako zuzenketak.

### **108. artikulua**

1. Zuzenketa ez denean batzordearen irizpenean jaso, egin duen batzar-kide-taldeak zuzenketa mantentzeko Osoko Bilkuran defendatzeko.
2. Batzordearen irizpenearekin ados ez dauden taldeek egoki deritzen boto partikularrak aurkez ditzakete Osoko Bilkuran defendatzeko. Boto horiek proiektuaren testuan zuzendua izan denari buruzkoak izango dira.
3. Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mantendutako zuzenketak eta batzordearen irizpenari egindako boto partikularrak batzordeko mahaiari zuzendu behar zaizkio, idatziz, eztabaidaren edozein unetan edo, bestela, irizpena amaitu eta hurrengo berrogeita zortzi orduen barruan.
4. Epe hori igarota, eta ahalik eta azkarren, batzordeko mahaiak Ganberako Lehendakariara bidaliko du irizpena, batzordeko lehendakariak eta idazkariak sinatuta, mantendutako zuzenketekin eta aurkeztutako boto partikularrekin batera, egon badira.



#### **4. sekzioa Osoko Bilkurako eztabaida**

##### **109. artikulua**

1. Batzordeak proiektu baten irizpena egin duenean, Osoko Bilkurako eztabaida hasteko, Foru Aldundiak ekimena aurkez dezake, baldin eta aurkezpena osoko eztabaidan egin ez bazen, eta batzordeko kide batek irizpena aurkez dezake, batzordeak hala erabaki badu. Hitzaldi horiek ezingo dute hamabost minutu baino gehiago iraun.
2. Irizpenaren gaineko boto partikularrik ez badago, eta zuzenketak ez bada dira mantendu, lehendakariak irizpen osoa bozkatzeko aginduko du, salbuespen honekin: Batzarkide batek artikulua bat edo batzuk bananduta bozkatzeko eska dezake, eta, orduan, lehendakariak Araudiko 112. artikuluan jasotako ahalmenak erabiliko ditu.

##### **110. artikulua**

1. Zuzenketak mantendu dituztenean eta boto partikularrak egon direnean, artikuluz artikulua eztabaidatuko dira.
2. Artikulu baten eztabaida bukatutakoan, bozketak egingo dira. Lehenengo, boto partikularrak eta zuzenketak bozkatuko dira, lehendakariaren ustez irizpenaren testutik gehien urruntzen denetik hasi eta hurbilen dagoenera. Azkenean, irizpeneko testua bozkatuko da. Zuzenean eta eztabaidarik gabe bozkatuko dira artikulua ez daukate-nean ez boto partikularrik ez mantendutako zuzenketarik.

##### **111. artikulua**

1. Lehendik aurkeztutako zuzenketen eta irizpenaren testuaren arteko erdibideko zuzenketak aurkeztuz gero, izapidetzeko onar daitezke, eta horrek erdibidekoaren gai izan diren zuzenketak erretiratzea eka-rriko du.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Huts eta akats teknikoak, terminologikoak edo gramatikalak konponitzeko egindako zuzenketa teknikoak ere onar daitezke izapidetzeko.
3. Beste zuzenketa batzuk ere onar daitezke izapidetzeko, baldin eta batzarkide-talde guztiek izenpetu badituzte.

### **112. artikulua**

110. artikuluan agindutakoa gorabehera, lehendakariak ahalmen hauek ditu:

1. Proiektu bat eztabaidatzeko gehienezko denbora finka dezake alde zurreratik, Mahaiarekin ados jarrita eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda. Denbora hori aurreikusitako hitzaldien artean banatuko du, eta, bukatutakoan, geratzen diren bozketak egingo dira.
2. Eztabaidak eta bozketak gaika, artikulua multzoka, zuzenketa multzoka edo artikuluetako paragrafoa antola ditzake, hala komentariu den testua konplexua delako, asmoetan eta zuzenketetan antzekotasunak edo loturak daudelako edo batzarkide-taldearen jarreraren arteko norgehiagoka politikoa argiago geratuko delako.

### **113. artikulua**

Foru-arau bat onartu eta berrogeita zortzi ordu igaro baino lehen, Osoko Bilkurak onartutako testua berriro batzordera bidal dezake Mahaiak kasu honetan: Boto partikular bat onartu, zuzenketa bat onartu edo artikulua bozkatu eta gero lortutako testua inkongruentea edo iluna denean puntuaren batean. Batzordeak hamabost eguneko epea dauka idazketa harmonikoa egiteko. Idazketa berriak Osoko Bilkurak hartutako erabakiak errespetatu behar ditu. Testua Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio azken erabakia har dezan, eta bozketa bakarrean onartu edo baztertuko du osorik, Bozeramaileen Batzordeak zuzenketa aho batez onartzen ez badu behintzat.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **114. artikulua**

Izapidetzen ari den foru-arauaren proiektu bat erretira dezake Foru Aldundiak, baldin eta batzordeak ez badu irizpena osorik onartu.

### **5. sekzioa Foru-arauaren proposamenak**

#### **115. artikulua**

Foru-arauaren proposamenak artikuluetan antolatuta aurkeztuko dira, eta zioen adierazpena eta egoki iritzitako aurrekariak jasoko dituzte.

#### **116. artikulua**

1. Honako hauek daukate foru-arauaren proposamenak aurkezteko ahalmena:
  - 1) Batzarkide-taldeek, bozeramailearen izenpearekin bakarrik.
  - 2) Batzarkide batek, Batzar Nagusietako beste lau kideren izenpekin.
  - 3) Gipuzkoako herritarrek, herri-ekimen araugilea arautzen duen Foru Arauak dioenaren arabera<sup>84</sup>.
  - 4) Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauak dioenaren arabera (6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa)<sup>85</sup>.

---

84. Ikus apirilaren 10eko 7/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Herritarren Arau Ekimena Araztekoa eta Araudi honen 119. artikulua.

85. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 11. artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Ekimena aurkeztuta, proposamena argitaratzeko aginduko du Mahaiak<sup>86</sup>, bai eta Foru Aldundiari bidaltzeko ere. Foru Aldundiak, idatzi arrazoituaren bidez, proposamena aintzat hartzeari buruz duen irizpidea adieraziko du, eta, aurrekontu-kredituak gehitzea edo aurrekontu-sarrerak gutxitzea badakar, baita izapidetzeko onartzearekin ados dagoen edo ez ere, Araudi honetako 104. artikuluan aurreikusi bezala<sup>87</sup>.
3. Hamabost egun edo ezarritako epea igaro arren Foru Aldundiak ez badu aditzera eman aurkeztutako proposamenarekin ados dagoen edo ez, proposamena Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartzeko moduan izango da, aintzat hartu ala ez erabakitzeko. Zerga-arauen kasuan, Foru Aldundiak hogeita hamar eguneko epea dauka aintzat hartzeari buruzko iritzia emateko.

### 117. artikulua

1. Aintzat hartzeari buruzko eztabaidan, osoko eztabaidetarako ezarritakoari jarraituko zaio. Lehenendabizi, Foru Aldundiaren irizpidea irakurriko da, irizpiderik idatzi balu.
2. Gero, aztergai den foru-arauaren proposamena aintzat hartuko duen ala ez galdetuko dio lehendakariak Batzar Nagusien Osoko Bilkurari. Erantzuna baiezkoa bada, berehala argitaratzeko eta batzorde eskudunari bidaltzeko aginduko du Mahaiak. Zuzenketak artikuluei baka-rrik egin ahal izango zaizkie, eta zuzenketak aurkezteko epea amaitu-takoan, foru-arauen proiektuetarako aurreikusitako izapide bera izango du proposamenak.

---

86. Ikus Araudi honen 87. artikulua.

87. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 31.5.a) artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **118. artikulua**

Foru-arau bat proposatu duenak proposamena erretiratzen badu aintzat hartua izan aurretik, erretiratzeak indarra dauka. Aintzat hartzea erabaki eta gero, erretiratzeak indarra izateko, gutxienez bi batzarkide-taldek eskatu behar dute eta Ganberaren Osoko Bilkurak onartu behar du.

### **119. artikulua**

Batzar Nagusietako Mahaiak aztertuko ditu herri-ekimenetik datozen foru-arauaren proposamenak, arauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikusteko. Betetzen badituzte, 117. artikuluan aurreikusitakoari lotuko zaio proposamenaren izapidea, ekimen horiek arautzen dituen foru-arauak ekar ditzakeen berezitasunak gehituta<sup>88</sup>.

### **120. artikulua**

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauko 11. artikulua (6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa) aipatzen dituen udalek aurkeztutako foru-arauen proposamenak Mahaiak aztertuko ditu, legez eta araudiz ezarritako baldintzak betetzen diren ikusteko. Betetzen badituzte, 117. artikulua ezarritakoari lotuko zaio izapidea, berezitasun honekin: Ekimena izan duten udalek izendatutako hiru ordezkari parte hartuko dute Osoko Bilkuran, proposamena aintzat hartzeko izapidean, foru-arauaren proposamena defendatzeko.

---

88. Aipaturiko apirilaren 10eko 7/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Herritarren Arau Ekimena Arautzekoa.



## II. KAPITULUA

### Araugintza-prozedura bereziak

#### 1. sekzioa Batzordeak araugintza-ahalmen osoa edukitzea

##### 121. artikulua

1. Proiektu edo proposamenak ez direnean garrantzi bereziko gaiiei buruz, Mahaiak erabaki dezake, Bozeramaileen Batzordearekin ados jarrita, irizpena egiteko ardura duen batzordeak araugintzarako eskumen osoa hartzea, azken onarpena Osoko Bilkurak eman beharrik izan gabe. Eskuordetzeko erabakia Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.
2. Hala ere, erabakia argitaratu eta hiru eguneko epean bi batzarkidetalde edo batzarkideen bostena eskuordetzearen aurka azaltzen badira, Osoko Bilkurak erabakiko du gaia.
3. Inoiz ezingo da eskuordetzea era orokorrean edo zehaztu gabe egin.
4. Artikulu honek ez du 125. artikuluan jasotako kasua arautzen: Lurralde Historikoaren aurrekontuen foru-arau proiektua bideratzeko, bere araei jarraituko zaie.

#### 2. sekzioa Foru-arau proiektua irakurraldi bakarrean onartzea

##### 122. artikulua

1. Foru-arau proiektuaren edo aintzat hartu den foru-arauaren proposamenaren izaerak hala aholkatzen duenean, edo erraza delako hala egin daitekeenean, Batzar Nagusien Osoko Bilkurak erabaki dezake zuzenean irakurraldi bakarrean izapidetzea Osoko Bilkuraren aurrean. Mahaiak proposatu behar du hori, aho batez, eta Bozeramai-



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

leen Batzordearen iritzia entzun behar du Osoko Bilkurak onartu aurretik. Irakurraldi bakarra onartuz gero, ez dago zuzenketak aurkezteko eskubiderik.

2. Erabakia hartutakoan, eztabaida egingo da, osoko eztabaidetarako ezarritako araei lotuta, eta gero bozketa bakarra egingo da proiektu osoarentzat.
3. Foru Aldundiak Ganberako Mahaiari eska diezaioke, arrazoituz, irakurraldi bakarraren bidea erabiltzeko foru-arau proiektua izapidetzeko. Eskaera hori artikuluko 1. atalaren arabera izapidetuko da.

### **3. sekzioa Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren proiektua<sup>89</sup>**

#### **123. artikulua**

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak aztertu eta onartzeko, araugintzarako prozedura arruntari jarraituko zaio, baina sekzio honetan ezartzen diren salbuespenekin.
2. Aurrekontu orokorren foru-arau proiektuak Batzar Nagusien gainarako lanen aldean lehentasuna dauka izapidetzerakoan.
3. Aurrekontua eztabaidatzerakoan, artikuluen testua eta gastuen eta sarriren egoera eztabaidatuko da, nahiz eta eranskinak diren beste agiri batzuk ere azter daitezkeen.

---

89. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 31.l.b) artikulua eta martxoaren 27ko 4/2007 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko Foru Arauaren 49. artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

4. Batzordeko lehendakariak eta Batzar Nagusietako lehendakariak eztabaidak eta bozketak antolatu ditzakete aurrekontuaren egiturari ondoen datorkion bezala.

### **124. artikulua**

1. Arauaren proiektua kalifikatu eta izapidetzeko onartu eta gero, Mahaiak batzarkide-taldeei bidaliko die, azter dezaten kalifikatu denetik gehienez hamar egun baliodunen barruan.
2. Epe hori bukatutakoan, Foru Aldundiaren ordezkariak aurrekontuetan eskuduna den batzordearen aurrean agertuko dira, partiden izaerari eta kopuruari buruzko informazio-eskaerak argitu ditzaten.
3. Aurreko ataleko agerraldiak bukatutakoan, Mahaiak zuzenketak egiteko ohiko epea irekiko du. Aurreko paragrafoan aurreikusitako prozedurarekin bat datorrenez, ez dira onartuko oinarritzat partiden azalpenik eza duten zuzenketak.
4. Aurrekontu orokorren foru-arau proiektuari osoko zuzenketa egin dakioke, bai eta artikuluen testuaren zuzenketa, sekzio oso batena edo aurrekontuen programa, kapitulu, artikulua nahiz kontzeptuena ere.
5. Mahaiak behin betiko kalifikazioa egiteko ahalmenak ditu, baina hauek joko dira osoko zuzenketatzat:
  - a) Foru-arau proiektuaren egokitasunari, printzipioei eta espirituari buruz ari diren eta proiektu osoa edo proiektuaren egitura osatzen duten sekzio osoak proposatzen dutenak; edo departamentu bati dagokion aurrekontua kentzeko edo Foru Aldundiari itzultzeko proposatzen dutenak; edo aurrekontua kentzea proposatzen dutenak.
  - b) Gastu osoaren edo sarrera osoaren kopuruetan aldaketa positiboa edo negatiboa proposatzen dutenak.
6. Aurrekontuen proiektuari zuzenketa partzialak egin dakizkioke: sekzio bakoitzari buruz, programei buruz, edo barruko kapitulu, artikulua edo



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

kontzeptuei buruz. Betiere, zuzenketaren testuan adierazi behar da zer programari eta sailari dagokion zuzenketa.

7. Kontzeptu batzuen kreditua handitzea badakar zuzenketak, izapidetzeko onartua izateko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, aurrekontuko beste kontzeptu batean kopuru bereko jaitsiera proposatu beharra dauka.

Zuzenketa proiektuko artikuluen testuari buruzkoa izan eta automatikoki kreditu bat handitzea badakar, aurreko paragrafoko baldintzak bete behar ditu baita ere.

8. Aurrekontuen proiektuari eginiko zuzenketak sarrerak gutxitzea badakar, Foru Aldundiaren adostasuna behar du izapidetzeko. Sarrera gutxitzen duela ulertuko da zuzenketa proiektuko artikuluen testuari buruzkoa izan eta horko zerga-xedapenak aldatzen dituenean. Hau da, zerga-xedapenok zerga-zorraren kopurua zehazten duten elementuei buruzkoak izanik, zorraren kopurua txikitzen duenean zuzenketak.

### **125. artikulua<sup>90</sup>**

1. Zuzenketak kalifikatu eta izapidetzeko onartu ondoren, Batzar Nagusien Osoko Bilkurak aurreko artikuluko 5. puntuko osoko zuzenketak eztabaidatu eta erabakiko ditu. Osoko Bilkura horrek sarrera eta gastu osoen behin betiko kopuruak finkatuko ditu.
2. Jarraian, aurrekontuetan eskuduna den batzordeak gainerako zuzenketak eztabaidatuko ditu, eta irizpena Osoko Bilkurari aurkeztuko dio.

---

90. Batzar Nagusien Osoko Bilkurak 2009ko azaroaren 4an onartutako Araudiaren aldaketaren arabera dago idatzia (2009ko azaroaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aldaketa).



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Osoko Bilkurako azken eztabaidan, batzarkide-taldeek hitz egiteko txanda orokor bat izango dute, batzordearen irizpenari eta zuzenketei edo boto partikularrei buruzko jarrera azaltzeko.

### **126. artikulua**

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontuak onartu direnean, Foru Aldundiak aurrekontu-ekitaldi bereko gastu publikoa handitzea edo sarrerak txikitzea dakarten arau-proiektuak aurkez ditzake.

Arau-proiektu edo arau-proposamen bati eginiko zuzenketak gastua handitzea edo sarrerak txikitzea dakarrenean, Araudi honetako 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz bideratuko da.

### **4. sekzioa Kontu orokorrak onartzea<sup>91</sup>**

#### **127. artikulua**

1. Urteko kontu orokorra onartzen duen foru-arau proiektua jasotzen denean, batzarkide-taldeei bidaliko zaie, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak<sup>92</sup> fiskalizazio-txostena egin arte itxarongo da.

---

91. Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 31.1.b) artikulua, eta jadanik aipaturiko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantzen eta Aurrekontuen Araubideari buruzko Foru Arauaren 121. eta hurrengoak eta 128. artikulua.

92. Ikus otsailaren 5eko 1/1988 Legea, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena (44 zk.ko EHAA, 1988ko martxoaren 3koa), Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren gehiengoko partaidetza edo finantziazioa daukaten erakundeak arautze aldera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzeko martxoaren 1eko 6/2012 Legearen eraginez aldatua (martxoaren 12ko, 51. zk.ko EHAA).



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ikuskatze-txostena bidaltzen duenean, batzarkide-taldeei bidaliko zaie, eta kontu orokorraren foru-arau proiektua berriro hasiko da bideratzen.
3. Proiektua Osoko Bilkuran izapidetuko da irakurraldi bakarraren bidez<sup>93</sup>.
4. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ikuskatze-txostena batzarkide-taldeei bidali eta 15 egun igarotakoan, kontu orokorra onartzen duen foru-arau proiektua dagokion Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartzeko moduan egongo da.

### **5. sekzioa Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Araua aldatzea**

#### **128. artikulua**

Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Araua aldatzeko proiektu eta proposamenak Araudi honetan araugintzarako prozedurari buruz jasotako arauetara jarraiki bideratuko dira, baina onartzeko Batzar Nagusien eskubidezko kideen gehiengo osoak bozkatu beharko du alde<sup>94</sup>.

---

93. Ikus Araudi honen 122. artikulua.

94. Zentzu berean, uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren azken xedapena.



## ZAZPIGARREN TITULUA

### ARAU-INDARRA DUTEN FORU ALDUNDIAREN XEDAPENAK KONTROLATZEA

#### 129. artikulua

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauko (6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa) 13. artikulua aurreikusitako eskuordetzea erabiltzen duenean Foru Aldundiak, testu artikulatua edo testu bategina jasotzen duen jakinarazpena bidaliko die Batzar Nagusiei, eta Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko da<sup>95</sup>.
2. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauko 13.7 artikulua ezarritakoaren arabera (6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa), eskuordetzeko foru-arauak ezartzen duenean Batzar Nagusiek eskuordetutako araugintza-ren kontrol gehigarria egin behar dutela, foru-arauak berak jasotako aurreikuspenei jarraituko zaie, eta aurreikusten ez duen guztian artikuluhoni.
3. Testu artikulatua edo bategina argitaratu eta hurrengo hilean inork, ez batzarkideek, ez batzarkide-taldeek, ez badu eragozpenik aurkeztu, ulertuko da Foru Aldundiak ondo erabili duela araugintzarako eskuordetzea.

---

95. *Uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 13. artikulua (foru-dekretu araugileei buruzkoa).*



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

4. Esandako epean Batzar Nagusietako Mahaiari zuzendutako idatzi baten bidez eskuordetzeari eragozpenak aurkezten bazaizkio, Mahaiak dagokion batzordeari edo Osoko Bilkurari bidaliko dizkio, eragozpenak aurkeztu dituen batzarkide-taldeak edo batzarkideak eskatutakoaren arabera.
5. Batzordeak edo Osoko Bilkurak ebazpena emango du Mahaiak horretarako ezarritako epean.
6. Eskuordetzeko foru-arauak aurreikusiko ditu kontrolaren eragin juridikoak.

### 130. artikulua

1. Dekretu-arau<sup>96</sup> bat baliozkotzeko edo indargabetzeko eztabaida eta bozketa Batzar Nagusien Osoko Bilkurak edo Batzorde Iraunkorrak egingo du, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egun igaro baino lehen.
2. Foru Aldundiko kide batek azalduko ditu Batzar Nagusietan dekretu-araua egiteko arrazoiak, eta gero eztabaida egingo da, Araudi honetako 69. artikulua ezarritakoaren arabera.
3. Eztabaida amaituta, bozketa egingo da. Baiezko botoak baliozkotzearen aldekoak izango dira, eta ezezkoak indargabetzearen aldekoak.
4. Dekretu-araua baliozkotuta dagoenean, batzarkide-talderen batek foru-arauaren proiektu gisa izapidetu nahi badu, eskaera hori Ganberak erabakiko du. Alde badago, presako prozeduraren bidez izapidetuko da, Araudi honetako 105. artikuluan aurreikusitako osoko eztabaida izan ezik.

---

96. Ikus *uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren* 14. artikulua (foru-dekretu araei buruzkoa). Halaber, ikus *martxoaren 27ko 4/2007 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantzen eta Aurrekontuen Araubideari buruzko Foru Arauaren* 61.3 artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

5. Dekretu-arau bat baliozkotzeko edo indargabetzeko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.



## ZORTZIGARREN TITULUA

# POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA ETA BATZAR NAGUSIEK KONTROL-LANA ETA SUSTATZE-LANA EGITEKO MODUAK

## I. KAPITULUA

### Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena

#### 131. artikulua

1. Urteko bilkura-aldia hasterakoan, irailetik abendura artean, Osoko Bilkurak, beste bilkuren artean, Foru Aldundiaren politika orokorrari buruzko eztabaida bat egingo du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauko 54. artikulua dioenaren arabera (6/2005 Foru Araua, uztailearen 12koa)<sup>97</sup>.  
Diputatu nagusiak idatzi bat bidali behar die Batzar Nagusiei eztabaida baino 48 ordu lehenago, eta idatzian azaldu behar ditu Foru Aldundiaren ildo nagusiak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren egoerari buruz, bai eta agintaldian zehar araugintzaren arloan egitea aurreikusten duenari buruz ere.
2. Agintaldiko lehenengo ekitaldian ez da nahitaezkoa izango eztabaida hori egitea.

---

97. Ikus uztailearen 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 26.2.a) artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Eztabaida hasteko, diputatu nagusiak hitz egingo du, gehienez bi orduz. Gero, Batzar Nagusietako lehendakariak bilkura etetea erabaki dezake, gehienez 24 orduz. Bilkura berriro hasitakoan, batzarkide-talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du gehienez hogeita hamar minutuz.
4. Foru Aldundiak batzarkide-taldeen ordezkariari erantzun ahal izango die hizpidera ekarri dituzten gaiei buruz, banaka edo multzoan. Batzarkide-taldeen erantzun dezakete, egoki irizten diotena adierazteko; talde bakoitzak hamar minutu izango ditu horretarako.

### **132. artikulua**

*Ikus: [2006/09/28 aurrekaria] [2006/10/02 aurrekaria]*

1. Eztabaida bukatu eta gero, batzarkide-taldeen hogeita lau orduko epea daukate mozioak aurkezteko. Osoko Bilkurak eztabaidatuko ditu proposamenak, eta epea bukatu eta hurrengo bost egunetan egin beharko da Osoko Bilkura hori. Mahaiak izapidetzeko onartuko ditu eztabaidagaiaren arabera egokiak direnak, eta batzarkide-taldeei eza-gutaraziko dizkie izapidetzeko onartutako proposamenak. Batzarkide-taldeen erdibideko mozioak aurkeztu ditzakete, jatorrizko proposamenak osorik edo zati batean erretiratu.
2. Gero, mozioak aurkeztu dituzten taldeen hitz egingo dute lehendabizi, mozioak defendatzeko, gehienez hogeita minutuz, eta, gero, gainerako taldeen iritzia emateko, denbora tarte berarekin. Talde bakoitzak erantzuteko bost minutuko tarte izango du.
3. Mozioak aurkeztu diren hurrenkeran eztabaidatu eta bozkatuko dira. Erdibideko mozioen kasuan, aurkezteko unea zehazteko, erretiratu diren mozioetatik azkena hartuko da kontuan.
4. Mozio bat bozkatu eta onartutakoan, gainerakoak bozkatuko dira soilik bestearekin bateragarriak eta kontraesanik gabeak badira Mahaiaren iritziz.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

5. Onartutako mozioak betetzeko, 162. artikuluan aurreikusitakoari lotuko zaio.

## II. KAPITULUA

### Eztabaida monografikoak eta Foru Aldundiaren planak eta txostenak

#### 133. artikulua

1. Jardun politikoari eta gobernu-jardunari buruzko eztabaida monografikoak egin daitezke, Foru Aldundiak eskatzen duenean, bi batzarkide-taldek eskatzen dutenean edo Batzar Nagusietako batzarkideen bostenek eskatzen dutenean<sup>98</sup>.
2. Foru Aldundiaren eskaerak nahiz Batzar Nagusien ekimenak gaiak zehaztu behar dituzte, eztabaidagaia finkatu ahal izateko, eta eztabaida zer organoren aurrean egitea nahi den adierazi behar dute.
3. Mahaiak, ekimenaren edukia ikusita eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda, pentsa dezake egokiagoa dela eskatutakoa ez den beste organo batean bideratzea gaia. Hori gertatuz gero, Mahaiak eskatzaileari jakinaraziko dio, hark iritzia eman dezan zazpi eguneko epean. Ez badago ados, Mahaiak behin betiko erabakia hartuko du, arrazoitua, Bozeramaileen Batzordearekin ados jarrita.
4. Eskatzaileak eskaera atzera bota dezake eztabaida hasi aurretik edozein unetan.

---

98. Kontuan izan *uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 55.2 artikulua.*



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **134. artikulua**

1. Eztabaida Foru Aldundiak eskatu duenean, Foru Aldundiaren ordezkaria hasiko da hizketan, gehienez ordubetez. Gero, Ganberako lehendakariak –edo batzordekoak– epe zehatz batean etetea erabaki dezake, bozeramaileen iritzia entzun eta gero.
2. Berriz ere bilkurari ekiten zaionean, batzarkide-talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du, gehienez ordubetez, talde txikienetik handienera kopuruz duten pisuaren arabera.
3. Foru Aldundiak batzarkide-taldeek eginiko galderei banaka edo multzoan erantzun diezaieke, eta batzarkide-taldeek hamar minutuko tartea izango dute erantzuteko.
4. Eztabaida amaitutakoan, gehienez bi orduko epea emango zaie batzarkide-taldeei mozioak aurkez ditzaten. Eskuduna den mahaiak eztabaidagaien arabera egokiak direnak onartuko ditu, eta batzarkide-taldeei bidaliko dizkie.
5. Berriz ere bilkurari ekiten zaionean, Araudi honetako 132. artikuluko 2. ataletik 5. atalera bitartean agindutakoaren arabera egingo da.

### **135. artikulua**

1. Eztabaida Batzar Nagusiek eskatzen badute, proposamena egin duten taldeen ordezkariak hasiko dira hizketan, eta gehienez hogeita hamar minutuz arituko dira; jarraian, gainerako taldeek hartuko dute hitza, txikienetik handienera, hogeita hamar minutuz aritzeko baita ere.
2. Gero, aurreko artikuluko 3. ataletik 5. atalera bitartean agindutakoari jarraituta egingo da bilkura.

### **136. artikulua**

Foru Aldundiak bidalitako txosten, plan edo antzeko agiriren bat jasotzen badute Batzar Nagusiek, Mahaiak testua argitaratzeko aginduko du, edo,



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

gutxienez, aurkeztu dutelako berria argitaratzeko. Gainera, Bozeramailen Batzordearekin ados jarrita, nola izapidetu erabakiko du, alegia, Osoko Bilkuran edo dagokion batzordean. Aurreko artikulua ezarriko dira ordezko arau gisa.

### III. KAPITULUA

#### Interpelazioak eta galderak<sup>99</sup>

##### 1. sekzioa Interpelazioak

##### 137. artikulua

*Ikus: [2006/11/21 aurrekaria] [31/10/2007aurrekaria] [2007/12/18 aurrekaria]*

1. Batzarkideek, batzarkide-taldearen bitartez, interpelazioak egin diezazkiekete Diputatuen Kontseiluari<sup>100</sup> eta Kontseiluko kide bakoitzari, Foru Aldundiaren edo departamentu baten jokabidearen arrazoiei edo asmoei buruz, Aldundiaren politikari dagozkion gai zehatz batzuetan edo garrantzia publiko berezia duten gaietan.
2. Interpelazioak idatziz aurkeztu behar dira Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean, Osoko Bilkura egin baino zazpi egun lehenago beranduenez.

---

99. Ikus *uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 55.1.b) artikulua.*

100. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Mahaiak egiaztatuko du aurkeztutako idatziak aurreko ataletako baldintzak betetzen dituela, proposatutako gaiak eta emandako arrazoiak kontuan hartuta. Ez baditu baldintzak betetzen, ezezkoa jakinaraziko zaio ekimena izan duenari, beste era batera proposa dezan, nahi badu. Dena den, forma-akats soilak konpontzea onartuko du Mahaiak.
4. Idatzia interpelazioa dela kalifikatu denean, Foru Aldundiari eta batzarkide-taldeei bidaliko zaie, Batzar Nagusietako lehendakariaren bidez, idatzia argitaratu arren.
5. Interpelazioak Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartuko dira irizpide hauen arabera:
  - a) Osoko Bilkura bakoitzean batzarkide-talde bakoitzak ezin ditu bi interpelazio baino gehiago egin.
  - b) Interpelazioak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera izapidetuko dira.

### **138. artikulua**

Interpelazioak Osoko Bilkuran aztertuko dira. Egileak hitz egiteko aukera dauka, gero Foru Aldundiak erantzutekoa, eta bakoitzak erantzuteko tarte bana dute ondoren. Lehenengo hitzaldiek gehienez hamar minutu iraungo dute, eta bigarrenek bost.

### **139. artikulua**

1. Batzarkide-taldeak edo interpelazioaren egileak –bere taldearen bidez– mozioa aurkez dezake eztabaida egitea eta Ganberak jarrera hartzea bultzatzeko, Foru Aldundiak emandako azalpenen eta interpelazioan azaldutako gaien inguruan.
2. Interpelazioa aztertu duen Osoko Bilkura amaitu eta handik berrogeita zortzi orduen barruan aurkeztu behar da mozioa. Mahaiak begiratu du mozioaren testuak lotura duen gaiarekin eta interpelazioa



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

izapidetzerakoan adierazitakoekin. Hala bada, hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartuko da. Zuzenketak aurkeztu ahal izango dira Osoko Bilkura hasi baino hogeita lau ordu lehenago arte.

3. Mozioen eztabaida, bozketa eta betetze-kontrola ebazpen-proposamenentzat ezarritakoaren arabera egingo da.

### 2. sekzioa Galderak

#### 140. artikulua

*Ikus: [2007/10/31 aurrekaria]*

1. Batzarkideek galderak egin diezazkiokete Diputatuen Kontseiluari<sup>101</sup> edo Kontseiluko kide bakoitzari.
2. Galderak idatziz aurkeztu behar zaizkio Mahaiari.
3. Galdera norbere interes hutserako egin bada, ez da onartuko.
4. Mahaiak egiaztatuko du idatziak sekzio honetako baldintzak betetzen dituela, eta, hala bada, berehala Foru Aldundiari bidaltzeko aginduko du.

#### 141. artikulua

Galdera egin duenak besterik adierazi ezean, ulertuko da idatzizko erantzuna nahi duela. Ahozko erantzuna eskatu badu, berriz, erantzuna dago-kion batzordean jasoko duela ulertuko da, besterik zehaztu ezean.

#### 142. artikulua

*Ikus: [21/11/2006 aurrekaria]*

---

101. 2014ko uztailearen 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

1. Osoko Bilkuran erantzutea nahi bada, galdera idatziz aurkeztu behar da Mahaiaren aurrean, Osoko Bilkura egiteko eguna baino zazpi egun lehenago. Testuan galdera soil eta bakarria agertuko da, gai jakin bati buruz, eta gertaera, egoera edo informazio bati buruz galdetuko da, edo galde daiteke Foru Aldundiak gai batean erabakiren bat hartu duen edo hartu behar duen, edo gai bati buruz Batzar Nagusiei agiri-  
ren bat bidali behar dien edo informazioa eman behar dien.
2. Sarrera-erregistroaren hurrenkeraren arabera sartuko dira galderak Osoko Bilkurako gai-zerrendan. Dena den, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita, Osoko Bilkura bakoitzeko gai-zerrendan zenbat galdera sar daitezkeen erabakiko du, eta zer irizpideren arabera banatuko diren.
3. Galdera egin eta erantzuteko, guztira, hamabi minutu daude, eta hitza hartzeko tarte hauek izango dira:
  - Egileak galdera irakurri eta labur azalduko du. Bi minutu izango ditu horretarako.
  - Foru Aldundiko kideak erantzun egingo du. Lau minutu izango ditu horretarako.
  - Ekimena izenpetu duenak hitz egingo du berriro galdetzeko edo egokitzeak dituen oharrak egiteko. Bi minutu izango ditu horretarako.
  - Foru Aldundiko kideak azken erantzuna emango dio, lau minututan.

Lehendakaria arduratuko da ezarritako denborak zorrotz errespetatzeaz. Denbora bukatu ahala txanda hitza duen hurrengoari emango dio, edo hurrengo gaiari ekingo dio.

4. Foru Aldundiak edozein unetan eska diezaiokie Mahaiari, arrazoituz eta galdera bakoitzarekin behin bakarrik, hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dezala galdera. Kasu horretan izan ezik, aurkeztu diren baina gai-zerrendan sartu ez diren galderak eta gai-zerrendan sartutakoak baina izapidetu ez direnak hurrengo Osoko Bilkurarako



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

mantendu nahi badira, berriro egin beharko dira. Bestela, ulertuko da bertan behera geratu direla.

### **143. artikulua**

*Ikus: [2010/09/29 aurrekaria] [2016/10/25 aurrekaria] [1/2018 Ebazpena]*

1. Batzordean ahoz erantzutea nahi diren galderak idatziz egin behar dira, eta Foru Aldundiari helarazten zaizkionetik zazpi egun igarota-koan batzordeko gai-zerrendan sartzeko moduan egongo dira.
2. Galdera Foru Aldundiko nori zuzendu, kide hori departamentuko beste goi kargu batzuekin etor daiteke, nahi duelako edo horrela es-  
katu diolako galderaren egileak.
3. Galdera horiek honela bideratuko dira:
  - Egileak galdera irakurri eta galderaren testua azalduko du, labur. Gehienez bost minutu izango ditu horretarako.
  - Foru Aldundiko kideak erantzun egingo du. Hamar minutu izango ditu horretarako.
  - Galdera egin duenak hitz egingo du, berriro galdetzeko edo ego-  
kitzat dituen oharrak egiteko. Bost minutu izango ditu horretara-  
rako.
  - Foru Aldundiko kideak azken erantzuna emango dio, bost minu-  
tutan.
4. Batzordeko mahaiak prozedura egokitu egin dezake gai beraren gai-  
nean galdera batzuk daudenean, edo gaiiek antzeko berezitasun edo in-  
guruabarrak dituztenean. Edonola ere, aurreko atalean ezarritako txan-  
dak eta denborak errespetatu beharko ditu.

### **144. artikulua**

*Ikus: [2011/11/02 aurrekaria] [2011/11/07 aurrekaria]*

1. Idatziz erantzutea nahi diren galderak Mahaiari aurkeztuko zaizkio. Mahaiak izapidetzeko onartuko ditu baldin eta edukiagatik ez bada



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

13. artikuluan informazioa edo agiriak eskatzeko aurreikusitako prozedura erabili behar.

2. Galdera idatziz erantzuteko hoguei eguneko epea dago, Foru Aldundiari helarazi zaionetik.
3. Foru Aldundiak erantzuteko epea luzatzeko eska dezake, arrazoiak emanaz. Orduan, epea beste hamar egunez luzatuko da.
4. Foru Aldundiak ez badu erantzuna Araudiak agindutako epean ematen, eta ez badu atzeratzearen berri ere ematen, Batzar Nagusietako lehendakariak dagokion batzordearen hurrengo gai-zerrendan sartzeko aginduko du. Orduan, ahozko galdera gisa izapidetuko da. Erabaki horren berri emango zaio Foru Aldundiari.

### **3. sekzioa Arau orokorrak**

#### **145. artikulua**

1. Gai-zerrendan gai berari buruzko edo elkarri lotutako gaiei buruzko interpelazio edo galderak daudenean, Batzar Nagusietako Mahaiak elkartu egin ditzake, eta aldi berean eztabaida daitezela agin dezake.
2. Mahaiak, Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda, adieraz dezake ezin direla interpelazio eta galdera jakin batzuk izapidetzeko onartu bilkura-aldi berean bideratutako beste interpelazio edo galdera bat errepikatzen dutelako.

#### **146. artikulua**

Interpelazioa edo galdera izenpetu duena ez badago, haren ordeztu batzarkide-talde bereko beste batek hitz egin ahal izango du Osoko Bilkuran edo batzordean. Horretarako, aldeztu aurretik ezagutarazi behar zaio gora-behera lehendakariari.

Bestela, aurkeztutako interpelazioa edo galdera bertan behera geratuko da.



## IV. KAPITULUA

### Informatzeko bilkurak: agerraldiak

#### 147. artikulua

Foru Aldundiaren erantzukizuneko kontu bat luzea, konplexua edo teknikoki zaila delako, edo duen izaeragatik ezin denean galdera edo interpelazio soil baten gai izan, Foru Aldundiak informazio-agerraldia egin ahal izango du.

#### 148. artikulua

*Ikus: [1/2018 Ebazpena]*

Diputatuen Kontseiluko kideak<sup>102</sup> edo Foru Aldundiko goi karguak dagoen batzordean agertzeko eska dezakete batzarkide-taldeek, haien eskumeneko gaietara buruz informazioa dezaten<sup>103</sup>. Eskaera idatziz eta arrazoituta egin behar diote Ganberako Mahaiari. Diputatuen Kontseiluko kideek ere eska dezakete agerraldi hori<sup>104</sup>. Bi kasuetan ere, Foru Aldundiko kideak haien departamentuetako agintari eta funtzionarioekin ager daitezke.

Mahaiak eskaera kalifikatu duenetik hamabost eguneko epean egin behar dira agerraldiak, behar bezala arrazoituta zioek eragotzi ezean.

---

102. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

103. *Ikus uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketara, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 55.1.c) artikulua.*

104. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 149. artikulua

Foru Aldundiko kideak beren kabuz ager daitezke beren eskumeneko gai bati buruz informatzeko. Mahaiaik ere erabaki dezake agertu behar dutela, bi batzarkide-taldek edo Batzar Nagusietako kideen bostenak eskatzen badu, eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda.

Agerraldi horiek egiten den lehenengo Osoko Bilkuran gauzatu behar dira, behar bezala arrazoitutako zioek eragotzi ezean.

### 150. artikulua

1. Aurreko artikuluetan aurreikusitako informazioa emateko bilkurak urrats hauei jarraituko die:
  - 1) Ekimena Batzar Nagusietatik etorri bada, eskaera izenpetu duten taldeen edo batzarkideen ordezkari batek edo batzuek hitz egingo dute, gehienez hamabost minutuz.
  - 2) Foru Aldundiko kideek azalpenak emango dituzte ahoz
  - 3) Batzarkide-taldeen ordezkariak hitz egingo dute gehienez hamar minutuz, txikienetik hasi eta handienera. Dena den, agerraldia eskatu duten taldeak hasiko dira, agerraldiaren objektuari buruz jarrrerak azaldu, galdetu edo oharrak egiteko.
  - 4) Foru Aldundiko kideek erantzun egingo dute, banaka edo multzoan.
2. Lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita, beste tarte bat eman diezaike batzarkideei galdera laburrak egin ditzaten edo argibideak eska ditzaten jaso duten informazioari buruz. Lehendakariak esango du gehienez zenbat denboran hitz egin dezaketen.



## V. KAPITULUA

### Ebazpen-proposamenak

#### 151. artikulua

Batzarkide-taldeek ebazpen-proposamenak aurkez ditzakete, Batzar Nagusiek gai jakin baten gainean eztabaida dezaten eta erabaki bat har dezaten<sup>105</sup>.

#### 152. artikulua

1. Ebazpen-proposamenak aurkezteko, idatzia aurkeztu behar zaio Mahaiari, eta bertan garbi adierazi izenburua, gaia, arrazoiak eta Ganberari iritzia eman dezan aurkezten zaion testua.
2. Idatzia kalifikatu eta izapidetzeko onartu ondoren, Mahaiak, gaiaren garrantzia eta proposatzailearen iradokizuna kontuan hartuta, Osoko Bilkuran edo dagokion batzordean bideratzeko aginduko du.
3. Batzarkide-taldeek osoko zuzenketak edo ebazpen-proposamenaren atal bakoitzari buruzko zuzenketak aurkez ditzakete Mahaiak kalifikatu duenetik zazpi eguneko epean.  
Osoko zuzenketek ebazpen-proposamenarekin kongruenteak izan behar dute, Mahaiak izapidetzeko onartzekotan.

#### 153. artikulua

Gai-zerrendan jasota dagoen ebazpen-proposamena eztabaidatu egingo da. Ebazpen-proposamena proposatu duen taldeak gehienez hamabost minutuz hitz egingo du. Ondoren, zuzenketak aurkeztu dituzten batzarkide-taldeek hitz egingo dute hamar minutuz, eta, segidan, aurkeztu ez

---

105. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

dituztenek. Batzarkide-talde bakoitzak erantzuteko bost minutuko tartea izango du. Hitzaldiak bukatutakoan ebazpen-proposamena bozkatuko dute.

### **154. artikulua<sup>106</sup>**

Mahaiak ebazpen-proposamen bat presaka izapidetzeko kalifikatzen duenean, ebazpen-proposamena proposatu duen taldeak hala eskatu duelako, hurrengo Osoko Bilkurako edo batzordeko gai-zerrendan sartuko da automatikoki.

Zuzenketak aurkezteko epea Osoko Bilkura edo batzordea hasi baino hogeita lau ordu lehenago amaituko da.

Ganberako lehendakariak edo dagokion batzordeko lehendakariak zuzenketei bide eman diezaioke, salbuespen batekin: dagokion organoaren mahaiko kideren batek zalantzak baditu izapidetzeko onartzeari buruz. Orduan, Ganberako edo batzordeko mahaia biltzeko deialdia egin behar da zuzenketa kalifikatu eta izapidetzeko onartzeko.

### **155. artikulua**

*Ikus: [2006/11/20 aurrekaria] [2007/09/20 aurrekaria] [2007/12/12 aurrekaria] [2009/10/07 aurrekaria]*

Hitzaldi guztiak amaitutakoan, ebazpen-proposamenaren xedapenen atala eta zuzenketak bozkatuko dira, era honetan:

1. Osoko zuzenketen kasuan, lehendabizi jatorrizko testua bozkatuko da. Onartzen bada, osoko zuzenketak bertan behera geratuko dira, eta

---

106. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

zuzenketa partzialak bozkatuko dira. Bestela, osoko zuzenketak bozkatuko dira. Osoko zuzenketa bat onartzeak gainerako zuzenketak bertan behera geratzea dakar.

2. Zatikako zuzenketei dagokienean, lehendabizi proposamenaren atal bakoitzari dagozkion kentze-zuzenketak bozkatuko dira. Onartzen ez badira eta eranste-zuzenketak badaude, bozkatu egingo dira, testu nagusia baino lehen. Ordezkatze-zuzenketak badaude, lehendabizi testu nagusiari eustea bozkatuko da; onartzekotan, zuzenketak bertan behera geratuko dira, eta testu nagusia kentzekotan, berriz, zuzenketak bozkatuko dira.

### 156. artikulua

*Ikus: [2011/09/06 aurrekaria] [2014/05/20 aurrekaria] [2022/02/22 aurrekaria]*

1. Ebazpen-proposamen bat izapidetzeko onartzen denean, bideratzen ari den bitartean, ezin da gai berari buruz beste ebazpen-proposamenik izapidetu, lehenengo mozioa proposatu duenak bi ekimenak pilatzea onartzen badu izan ezik.
2. Ebazpen-proposamen batek bilkura-aldi berean izapidetutako beste bat errepika badezake, Mahaiak erabaki dezake izapidetzeko ez onartzea, Bozaramaileen Batzordearen iritzia entzunda.
3. Osoko Bilkura bakoitzean ezingo dira batzarkide-talde bakoitzeko hiru ebazpen-proposamen baino gehiago bideratu<sup>107</sup>.

---

107. 3. apartatua Batzar Nagusien Osoko Bilkurak 2009ko azaroaren 4an onartutako Araudiaren aldaketaren arabera dago idatzia (2009ko azaroaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aldaketa).



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **157. artikulua**

Onartutako ebazpen-proposamenek urteko zenbaki korrelatiboa izango dute, eta betetzen diren kontrolatzea titulu honetako VIII. kapituluaren arabera egingo da.

## **VI. KAPITULUA**

### **Adierazpen instituzionalak**

### **158. artikulua. (Ezabatua)<sup>108</sup>**

*Ikus: [1/2021 EBAZPENA] [1/2022 EBAZPENA]*

## **VII. KAPITULUA**

### **Ondareari eta finantzei buruzko baimenak eta informazioak**

### **159. artikulua<sup>109</sup>**

1. Indarrean dagoen legediaren arabera Batzar Nagusiek ondarezko edukia duten arauz besteko izaerako egintzak baimendu behar dituztenean, honako prozedura honi jarraituko zaio.

---

108. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera ezabatua.

109. Ikus *uztailaren 9ko 8/1996 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondarearen Foru Arauaren* (135 zk.ko GAO; 1996ko uztailaren 12koa) 47.2, 50.1, 52.4 eta 64.4 artikulak.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Baimen-eskaera aurkeztu behar zaio Mahaiari txosten batekin batera. Txostenak baimena behar dela-eta komeni dela arrazoitu behar du. Gainera, proposatzen den eragiketaren mugak eta bermeak adierazi behar ditu, eta egintza berezi egiten duten inguruabarrak eta zehaztasunak ere bai.
3. Eskaera kalifikatu eta izapidetzeko onartu denean, batzarkide-taldeei banatuko zaie; edonola ere, idazkaritza nagusian haien esku geratuko da eskaera eta erantsitako agiriak.
4. Eskaera batzarkide-taldeei helarazi eta hurrengo zazpi eguneko epean ez badute eskaera aldatzeko edo ukatzeko proposamenik aurkeztzen, eskaera onartutzat joko da, eta horren berri ematen duen egiaztagiria bidaliko zaio Foru Aldundiari.
5. Aurreko atalean esandako epearen barruan batzarkide-taldeek eskaera aldatzeko edo ukatzeko proposamenak aurkeztuz gero Mahaiaren aurrean, eskaerak eta proposamenak ogasun- eta finantza-alorreko batzorde eskudunari helaraziko zaizkio. Batzordeak erabakiko du eskaera eta proposamenen gainean, eta erabaki hori Foru Aldundiari jakinaraziko zaio.
6. Ondarezko eta finantzako izaera duten egintzek ez badiote ezarritako prozedurari jarraitzen, ulertuko da Batzar Nagusiek ez dituztela baimendu.

### **160. artikulua**<sup>110</sup>

Lurralde Historikoko finantza-araudiak agintzen duenean Foru Aldundiak aldian behin horrelako gai ei edo antzekoei buruzko informazioa eman behar diela Batzar Nagusiei, Mahaiak ogasun- eta finantza-alorreko

---

110. Ikus *martxoaren 27ko 4/2007 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko Foru Arauaren* 129. artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

batzorde eskudunari bidali behar dizkio jasotako agiriak, eta Batzordeko Mahaiak legez ezarritako epeak bete ote diren egiaztatuko du.

### VIII. KAPITULUA

#### **Araugintza balioestea eta Batzar Nagusien erabakiak betetzen ote diren kontrolatzea**

##### **161. artikulua<sup>111</sup>**

1. Uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Era-kunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arau-aren 6.4 artikuluko txostena izapidetzeko onartutakoan<sup>112</sup>, Ganberako Mahaiak hiru eguneko epe bat irekiko du batzarkide-taldeek, egoki baderitzote, Foru Aldundiko kideen agerraldia eska dezaten.
2. Agerraldi-eskaerarik aurkeztu gabe epea bukatuz gero, Mahaiak espe-dientea amaitutzat joko du.
3. Eskatutako informatzeko bilkura dagokion batzordean gauzatuta-koan, batzarkide-taldeek mozioak aurkezteko aukera izango dute, ba-tzordearen bilkura bukatu eta hurrengo 48 orduetan. Ganberako Ma-haiak egiaztatuko du mozioak txostenaren edukiaren arabera egokiak diren edo ez, eta hala badira batzordearen hurrengo bilkuraren

---

111. 2019ko martxoaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako Gipuzkoako Batzar Nagusietako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

112. Artikulu honek xedatzen duenaren arabera: "Foru arau guztiek –Gipuzko-ako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzeakoak eta Lurralde His-torikoaren Kontu Orokorra onartzeakoak izan ezik– Batzar Nagusien araugintza ebaluatzeko prozedura bete beharko dute".



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

gai-zerrendan sartuko dira. Mozioak jorratzeko bilkura hasi baino hogeita lau ordu lehenago arte erdibideko zuzenketak aurkeztu ahal izango dira.

4. Mozioen eztabaida eta bozketa Araudiko 132. artikuluko 2. ataletik 5. atalera bitartean agindutakoaren arabera egingo da.

### **161. bis artikulua**<sup>113</sup>

Mahaiak agindu dezake, batzorde batek, bi batzarkide-taldek edo Batzar Nagusietako kideen bostenak eskatuta, eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda, batzorde eskudunak kontrolatu eta balioetsi behar duela foru-arau batek jasotako edo gai jakin bateko politika publikoa nola betetzen eta gauzatzen den.

### **162. artikulua**<sup>114</sup>

*Ikus: [1/2008 Ebazpena]*

1. Batzar Nagusiek onartutako eta Foru Aldundiari zuzendutako moziok eta ebazpenak nola betetzen diren azaldu behar dio Foru Aldundiak batzorde eskudunari. Foru Aldundiak hamabost eguneko epea dauka horretarako, mozio edo ebazpenak ezarritako epea amaitzen denetik, eta, eperik jarri ezean, onartu zirenetik hiru hilabetera.
2. Mozioak eta ebazpenak nola betetzen diren azaltzeko, Foru Aldundiak komunikazioa bidal diezaieke Batzar Nagusiei, edo batzordearen aurrean agertu nahi duela adieraz dezake.

---

113. Kontuan izan 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan (martxoaren 18ko 53 zk.ko GAO)

114. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Eskumena duen batzordearen bilera prozedura honen arabera egingo da:
  - 1) Batzarkide-taldeek duten jarrera adierazteko aukera izango dute, hamar minutuz.
  - 2) Txanda horren ondoren, ekimenaren betetzeari buruzko bozketa egingo da.

Foru Aldundiak batzordearen aurrean agertzea aukeratu badu, batzordeak ekimenaren betetzeari buruzko bozketa beste bilera batera atzeratuko du, baldin eta batzarkide-talde batek hala eskatzen badu.

4. Foru Aldundiak aurreikusitako epea luzatzeko eskatuko balu, Mahaiak erabaki beharko du luzatu edo ez, betiere, Araudiko 83. artikularen arabera.
5. Aurreikusitako epea igaro eta Foru Aldundiak ez badu komunikazioa bidali, edozein batzarkide-taldek eskatu ahal izango du gaia automatikoki hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartzeko.



## BEDERATZIGARREN TITULUA

# DIPUTATU NAGUSIA IZENDATZEA ETA HARI KONFIANTZA EMAN ETA KENTZEA

## I. KAPITULUA

### Diputatu nagusia izendatzea<sup>115</sup>

#### 163. artikulua

1. Batzar Nagusiek aukeratuko dute diputatu nagusia, Batzar Nagusien eskubidezko kideen artean, isilpeko bozketa eginaz.
2. Batzar Nagusietan ordezkari-talde politiko edo hauteskunde-konfiantza bakoitzak aurkez dezake hautagaiaren proposamena Mahaiaren aurrean, batzarkide-taldearen bidez, Osoko Bilkura egin baino 72 ordu lehenago beranduenez.

#### 164. artikulua

1. Bilkuraren hasieran, Mahaiko idazkarietako batek proposatu dituzten hautagaien izenak irakurriko ditu.  
Jarraian, hautagai bakoitzak bere foru-gobernurako programaren ildo nagusiak azalduko ditu gehienez 90 minutuz.
2. Gero, batzarkide-talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du, gehienez 30 minutuz.

---

115. Kontuan izan *uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Era-kunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren* 20. eta 21. artikulua (diputatu nagusiaren hautapen eta izendapenari buruzkoak). Ikus, baita ere, Araudi honen 11., 168, 170.2 eta hurrengoak eta 174. artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Proposatutako hautagai bakoitzak batzarkide-taldeen ordezkarietara erantzun diezaieke, gehienez 30 minutuz. Batzarkide-taldeetara ordezkarietara ere erantzuteko aukera izango dute, 10 minutuz. Gero, bilkura etengo da eta Mahaiak esango du noiz ekingo zaion berriro, bozketa egiteko.
4. Bilkura berriro hasita, diputatu nagusia aukeratu dute.
5. Batzarkide bakoitzak aukeratu duen hautagaiaren izena idatziko du dagokion boto-txartelean. Hautagai bakarria badago, boto-txartelean haren izena jarriko du botoa eman nahi badiu, eta zurian utziko du ez badiu botoa eman nahi.
6. Diputatu nagusi izendatzeko, hautagai batek Batzar Nagusietako kide hautetsien botoen gehiengo osoa lortu behar du lehenengo bozketan. Hautagaietatik inork ez badu gehiengo osoa lortzen, bigarrenegun egingo da bozketa, eta boto kopuru handiena lortzen duena izendatu dute diputatu nagusi.
7. Bigarren bozketan berdinketa gertatuz gero, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu zituen alderdi politikoko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteko hautagaia izendatu dute diputatu nagusi.

### **165. artikulua**

Batzar Nagusiek diputatu nagusia izendatu arte, ezin da gai-zerrendan beste gairik sartu, behintzat aparteko eta presako arrazoirik ez badago gairen bat sartzea aholkatzen duena. Mahaiak eta Bozeramaileen Batzordeak erabakiko dute arrazoi horiek ba ote dauden.



## II. KAPITULUA

### Konfiantza-eskaera<sup>116</sup>

#### 166. artikulua

Diputatu nagusiak, Foru Aldundiak eztabaidatu eta gero, Batzar Nagusien aurrean konfiantza-eskaera aurkez dezake programa dela-eta edo politika orokorreko adierazpena dela-eta<sup>117</sup>.

#### 167. artikulua

1. Konfiantza-eskaera idatzi arrazoituan aurkeztu behar da Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean, Diputatuen Kontseiluaren ziurtagiria-rekin batera<sup>118</sup>.
2. Mahaiak idatzia izapidetzeko onartu, eta lehendakariak idatziaren berri emango dio Bozeramaileen Batzordeari; gainera, Osoko Bilkura-rako deialdia egingo du, gai-zerrendan gai bakar hori dagoela.
3. Konfiantza-eskaeraren eztabaida arau hauei lotuta egingo da:
  - 1) Diputatu nagusiak Osoko Bilkurari azalduko dio, denbora-mugarik gabe, konfiantza-eskaera.
  - 2) Hitzaldia bukatutakoan, Batzar Nagusietako lehendakariak bilkura etetea erabaki dezake, gehienez hogeita lau orduz. Eten

---

116. Horri dagokionez, ikus *uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 57. artikulua* (konfiantza-eskaerari buruzkoak) dioena.

117. Ikus *uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 26.2.b), 30.2 eta 31.3.b) artikulua*.

118. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

ezean segidan, eta, bestela, etenaldia igarotakoan, batzarkide-talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du gehienez hogeita hamar minutuz.

- 3) Diputatu nagusiak eta foru-diputatuek nahi adina aldiz hitz egin dezakete. Batzarkide-taldeen ordezkarietara erantzuten dietenean, ordezkari bakoitzak erantzuteko aukera izango du, hamar minutuz.
4. Eztabaida bukatutakoan, konfiantza-eskaeraren proposamena bozkatuko da.
5. Emandako botoen gehiengo soilak lortuz gero, konfiantza emana dago.

### **168. artikulua**

Batzar Nagusiek diputatu nagusiari konfiantza ukatuz gero, diputatu nagusiak dimisioa aurkeztuko du berehala, eta beste bat aukeratuko dute, Araudi honetako 163. artikulua araberak. Dimititu duenetik hogeita hamar eguneko epean aukeratu behar dute diputatu nagusia.

### **169. artikulua**

1. Koalizio-gobernua dagoenean, agintaldian zehar gobernuko alderdien osatura aldatzen bada, diputatu nagusia, ez badu konfiantza-eskaerarik aurkeztu, Ganberaren aurrean agertuko da aldatetaren arrazoiak emateko eta gobernu-programa defendatzeko.
2. Eztabaida egiteko arau hauei jarraituko zaie:
  - a) Diputatu nagusiak gobernua aldatzeko arrazoiak azalduko dizkio Ganberari, denbora-mugarik gabe.
  - b) Hitzaldia amaitutakoan, hitza batzarkide-taldeen ordezkarietara hartuko dute banan-banan, gehienez hogeita hamar minutuz.
3. Eztabaida bozketarik gabe amaituko da.



### III. KAPITULUA

#### Zentsura-mozioa<sup>119</sup>

##### 170. artikulua

1. Batzar Nagusiek Foru Aldundiari erantzukizun politikoa eska diezaiokete zentsura-mozioa onartuz.
2. Zentsura-mozioa gutxienez hamabost batzarkidek proposatu behar dute Mahaiaren aurrean, eta diputatu nagusi izateko hautagaia proposatu beharra daukate. Hautagaiak foru-gobernuaren programaren ildo nagusiak azaldu beharko ditu.

##### 171. artikulua

Zentsura-mozioak Araudiak eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu du Mahaiak, eta izapidetzeko onartuko du. Zentsura-mozioa aurkeztu dutela jakinaraziko die diputatu nagusiari eta batzarkide-taldeetako bozeramaileei.

Zentsura-mozioa aurkeztu eta hurrengo bi egunetan ordezkio mozioak aurkez daitezke. Aurreko artikuluko 2. ataleko baldintzak bete beharko dituzte, eta aurreko atalean izapidetzeko onartzeko aipatutako bide berari jarraituko diote.

##### 172. artikulua

Izapidetzeko onartutako mozioen berri eman zaienean diputatu nagusiari eta batzarkide-taldee, lehendakariak Osoko Bilkurarako deialdia

---

119. Ikus *uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketan, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren* 58. artikulua ("zentsura-mozioa") ezartzen duena. Kontuan izan, baita ere, Foru Arau bereko 56. artikulua aurrakusten duena.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

egingo du. Osoko Bilkurak helburu bakarra izango du: zentsura-mozioa eztabaidatzea. Mozioa aurkeztu denetik gutxienez bost egun igaro behar dira Osoko Bilkura egiteko.

### **173. artikulua**

1. Eztabaida hasteko, zentsura-mozioa izenpetu duten batzarkideetako batek mozioa defendatuko du, gehienez laurogeita hamar minutuz. Jarraian, mozioan diputatu nagusi izateko proposatutako hautagaiak hitz egin dezake, denbora-muga berarekin, bere gobernu-programa azaltzeko.
2. Hitzaldi horiek bukatutakoan, Batzar Nagusietako lehendakariak bilkura etetea erabaki dezake, gehienez hogeita lau orduz. Bilera berriz hasitakoan, zentsura jaso duen diputatu nagusiak hasiko du eztabaida, eta gehienez laurogeita hamar minutuz hitz egin ahal izango du. Gero, eskatzen duten batzarkide-taldeen ordezkariak hitz egingo dute, gehienez hogeita hamar minutuz. Hitz egiten dutenek eskubi-dea dute erantzuteko, hamar minutuz.
3. Zentsura-mozio bat baino gehiago aurkeztu badituzte, Batzar Nagusietako lehendakariak, Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda, gai-zerrendan sartu diren mozio guztiak batera eztabaidatzea erabaki dezake, baina bozketa banaka egingo da, aurkeztu diren hurrenkera berean.
4. Zentsura-mozio bat onartzen bada, aurkeztutako gainerakoak ez dira bozkatuko.
5. Zentsura-mozio bat onartzeko Batzar Nagusietako kide hautetsien gehiengo osoaren aldeko botoa behar da.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### 174. artikulua

Batzar Nagusiek zentsura-mozio bat onartzen badute, diputatu nagusiak kargua galduko du, eta mozioan azaldutako hautagaia diputatu nagusi aldarrikatuko da.

### 175. artikulua

Batzarkideen gehiengoak ez badu zentsura-mozioa onartzen, izenpetu dutenek ezin dute beste bat aurkeztu bilkura horretatik sei hilabete igaro arte.

### 176. artikulua

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauko (6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa) 59. artikuluan<sup>120</sup> aurreikusitako banakako zentsura-mozioa edozein foru-diputaturi aurkez dakiok, diputatu nagusiaren ordezkari bitarteko diputatu nagusiari ere bai. Zentsura-mozio horiek bideratzeko, diputatu nagusiari buruzkoentzat ezarritako arauak beteko dira, indarrean dagoen legediko salbuespenak kenduta.

---

120. artikulua horrek hau dio:

*«Foru-diputatu bati erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio bere eskumen-esparruaren barruan mozio-zentsura bat aurkeztuta; horretarako diputatu nagusiari mozio-zentsura aurkezteko bete behar diren baldintza berberak bete beharko dira, izangai berria proposatzea izan ezik, eta mozioa onartzen baldin bada diputatu nagusiak berehala kendu beharko du kargutik eta ordezkaria izendatu beharko du.»*



## HAMARGARREN TITULUA

### FORU ALDUNDIAREN PROPOSAMENAK BERRESTEA

#### 177. artikulua

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauko (6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa) 8.3 artikuluko a) eta b) ataletan aurreikusitako eskumenak hartzeko edo lagatzeko Foru Aldundiaren proposamenak Batzar Nagusietako Mahaiari bidaliko zaizkio, berrets ditzan. Mahaiak Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du, eta behala batzarkide-taldeei helaraziko dizkie.
2. Proposamenak argitaratu eta zazpi egun igarotakoan, Osoko Bilkuran aztertzeko prest egongo dira.
3. Foru Aldundiko kide batek proposamena aurkeztu eta gero, Osoko Bilkurako eztabaidan, batzarkide-taldeek txanda bana izango dute jarrerak azaltzeko, eta, gero, erantzuteko bigarren txanda bat.
4. Eztabaida bukatutakoan, bozketa egingo da Foru Aldundiaren proposamena berretsi edo ez erabakitzeko.

#### 178. artikulua

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauko (6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa) 8.3 artikuluko c) atalean aipatzen diren hitzarmenak berresteko, honela bideratuko da:

- a) Foru Aldundiak Batzar Nagusiei hitzarmen-proiektua bidaliko die, beharrezko aurrekariekin batera, Batzar Nagusiek erabaki dezaten.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Komunikazio hori Mahaiak izapidetzeko onartuko du, eta Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du. Jarraian, batzarkide-taldeei bidaliko die.

- b) Agiriak jaso eta hurrengo zazpi egunetan batzarkide-taldeek aurka jartzeko proposamenak aurkez ditzakete, arrazoiak labur azaltzen dituen idatziaren bidez.
- c) Aurka jartzeko proposamenak aurkezteko epea igarotakoan, ez bada proposamenik egon, ulertuko da Ganberak hitzarmena egitea baimentzen duela, eta hori ezagutaraziko zaio Foru Aldundiari, Batzar Nagusietako lehendakariaren bidez.
- d) Aurka jartzeko proposamenak aurkezten badira, Mahaiak erabakiko du Osoko Bilkurari edo gaiaren arabera dagokion batzordeari bidaltzea, Mahaiak Foru Aldundiaren komunikazioa jaso eta hogeitau eguneko epean erabaki dezan. Bilkuran, osoko eztabaidetarako ezarritako prozedura jarraituko da.



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

## HAMAIKAGARREN TITULUA

### BATZAR NAGUSIEN HARREMANA BESTE ERAKUNDEEKIN

#### I. KAPITULUA

#### Legegintzarako ekimena Eusko Legebiltzarraren aurrean<sup>121</sup>

##### 179. artikulua

1. Euskal Herriko Autonomia Estatutuko (3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa) 27.4 artikulua araberako lege-proposamenak egiten direnean Eusko Legebiltzarreko Mahaiari bidaltzeko, Araudi honetan araugintza arrunterako ezarritako prozedurari jarraituko zaio, hurrengo ataletako berezitasunak gehituta.
2. Aurreko ataleko lege-proposamenak Batzar Nagusien Osoko Bilkurako eskubidezko kideen gehiengo osoak onartu behar ditu, azken bozketan.
3. Osoko Bilkurak esango du lege-proposamenak Eusko Legebiltzarraren zein batzarkidek defendatuko dituzten. Horretarako, batzarkide bakoitzak Osoko Bilkurak alde aurretik erabaki duen izen ko-

---

121. Ikus *Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren [abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa (306 zk.ko EAO, 1979ko abenduaren 22koa)] 27.4 artikulua, 2008ko abenduaren 23an egindako ohizko Osoko Bilkuran onartutako Eusko Legebiltzarraren Araudiko (34 zk.ko EHAA, 2009ko otsailaren 18koa) 132.c), 148.1.c) eta 180. artikulua, eta uztailearen 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 31.1.e) artikulua.*



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

purua idatziko du boto-txartelean, gehienez ere hiru; boto gehien jasozten dituzten batzarkideak izango dira hautatuak. Berdinketak badaude, berriro bozkatuko da boto kopuru bera lortu dutenen artean, behar adina alditan.

## II. KAPITULUA

### Arbitraje Batzordearekin bete beharreko prozedura<sup>122</sup>

#### 180. artikulua

1. Batzarkide-taldeek, idatzi bat aurkeztuz, proposatu dezakete Batzar Nagusiek eskumen-arazoa aurkezteko Arbitraje Batzordearen aurrean, Eusko Legebiltzarrean izapidetzen ari den lege-proiektu edo proposamen zehatz baten aurka.
2. Hamar egun naturalen barruan aurkeztu behar dituzte idatziak batzarkide-taldeek, ekimena Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, edo, Eusko Legebiltzarreko kideei jakinarazteko prozedura erabili denean, Batzar Nagusiek jakinarazpena jaso dutenetik. Kasu horretan, legelari nagusiak batzarkide-taldeei bidaliko die ofizioz Eusko Legebiltzarraren jakinarazpena, erregistroan sartu den egun berean.  
Lege-proiektu edo lege-proposamenak presako izapideari jarraituko diola erabaki denean, batzarkide-taldeek sei egun natural dituzte idatzia aurkezteko.

---

122. Ikus *Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren* 39. artikulua eta *13/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Ebazpen Batzordea arautzen duena* (142 zk.ko EHAA, 1994ko uztailaren 27koa).



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

3. Arbitraje Batzordearen aurrean eskumen-arazo bat aurkezten duen idatzian ondo zehaztu behar du batzarkide-taldeak bere ustez lege-proiektu edo lege-proposamenak zer urraketa ekarri duen eskuduntzetan, eta arrazoitu egin behar du, eta urratu dituen xedapenak aipatu behar ditu, estatutukoak edo legetakoak.
4. Mahaia berehala bilduko da, idatziak aurkezteko epea beteko dela bermatzeko moduan, batzarkide-taldeen idatziak kalifikatu eta izapidetzeko onartzeko. Mahaiak idatziak izapidetzeko ez onartzea erabaki dezake, nabarmena bada ez dutela eskumen-arazorik sortzen edo aurreko atalak eskatutako zioen azalpena edo urratutako xedapenen aipamena falta baditu.

### 181. artikulua

1. Batzar Nagusien Osoko Bilkurari dagokio Arbitraje Batzordearen aurrean eskumen-arazoak jartzea erabakitzea, salbuespen honekin: Mahaiak erabaki dezake, Batzar Nagusien jardueren egutegia dela-eta, Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordeak<sup>123</sup> egingo duela hori.

Bilkura-aldien arteko garaian, edo Batzar Nagusiak deseginda daudenean, Batzorde Iraunkorrak bideratuko du gaia.

Eskumen-arazoa aurkezten duen idatzia izapidetzeko onartu denean, Mahaiak erabakiko du arazoa eztabaidatuko duen organoari helaraztea idatzia.

Eskumen-arazoa Arbitraje Batzordeari aurkezteko dagoen epea amaitu baino gutxienez hiru egun lehenago egin behar da arazoaz eztabaidatuko duen bilkura.

2. Eztabaida era honetan egingo da:

---

123. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

- a) Lehendabizi, eskumen-arazoa aurkeztu nahi duen batzarkide-taldearen ordezkariak hitz egingo du 10 minutuz. Talde bat baino gehiago direnean eskumen-arazoa aurkeztu nahi dutenak, idatziak Ganberako erregistroan sartu diren hurrenkeraren arabera hitz egingo dute.
  - b) Jarraian, gainerako batzarkide-taldeen hitz egingo dute, bakoitzak hamar minutuz, duten jarrera azaltzeko.
  - c) Lehenengo txanda hori amaitutakoan, erantzuteko bost minutuko tartea izango du batzarkide-talde bakoitzak, hitzaldien hurrenkera berean. Horrela, lehendakariak eztabaida amaitutzat eman, eta bozkatu egingo dute.
3. Eskumen-arazoa aurkezteko proposamen guztiak bozkatuko dituzte, erregistroan sartu diren hurrenkera berean, salbuespen hauekin: Lehendik onartutako batekin kontraesana izatea, edo lehendik onartutako baten barruan sartzea.
  4. Batzar Nagusiak eskumen-arazoa Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztea onartu dutenean, lehendakariak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari horren berri emango dio egun berean.

### **182. artikulua**

Arabako edo Bizkaiko Lurralde Historikoetako foru-erakundeek edo Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako eskumen-arazoaren prozeduretan alderdi bezala pertsona daitezke Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Arbitraje Batzordeak horretarako ezarritako epearen barruan. Horretarako, legetari nagusiak ofizioz bidaliko die batzarkide-taldee, erregistroan sartu den egun berean, Arbitraje Batzordearen jakinarazpena, eskumen-arazo bat aurkeztu izanari buruzkoa. Hiru egunetan batzarkide-taldeen ez baidute Batzar Nagusiak arazoaren prozeduran pertsonatzeko eskatzen, ja-



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

kinarazpena artxibatu egingo da. Bestela, aurreko artikuluetako izapide-ari jarraituko zaio, eta Mahaiak Arbitraje Batzordeak ezarritako epeari egokituko dizkio izapidetzeko epeak.

### **183. artikulua**

Arbitraje Batzordeak aurkeztu den eskumen-arazoa erabaki arte, Batzar Nagusiek atzera egin dezakete eskumen-arazoa aurkezten. Horretarako, arazoa proposatu zuen batzarkide-taldea edo Batzar Nagusien kideen herena ordezkatzan duten batzarkide-taldeek idatzia aurkez dezakete atzera egiteko eskatzeko. Idatzia kalifikatu eta izapidetzeko onartu denean, gaia Osoko Bilkurara eramango da, eta han eztabaidatuko da 181. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera. Eztabaida bukatutakoan, Batzar Nagusiek aurkeztu zuten eskumen-arazoan atzera egiten duten edo ez bozkatuko da.

### **184. artikulua**

Eskumen-arazoaren objektua Batzar Nagusietatik datorrenean, Batzar Nagusiek, batzarkide-taldeek ekimenez, prozedura hasteko eskaeran eskatutakoa onar dezakete Arbitraje Batzordeak erabakia hartu aurretik edozein unetan. Erabaki hori Arbitraje Batzordeari helaraziko diote. Eskaera kalifikatu eta izapidetzeko onartzen denean, aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera izapidetuko da.

Alderdiak eskumen-arazoan eskatutakoa onartuz gero, ekimena artxibatuko da, salbuespen honekin: Batzar Nagusiek uste dutenean arazoa aurkezteko idatzian eskatutakoak eragiten ez dion zatiak jarraitzea posible dela eta komeni dela. Orduan, Araudi honetako 187. artikuluan aurreikusitako izapidea beteko da.



### 185. artikulua

Aurreko zenbakietan aurreikusitako eskaerak ukatu zaizkienean batzar-kide-taldeei, ezingo dute zentzu bereko beste eskaerarik aurkeztu berriro.

### 186. artikulua

1. Foru-arauaren proiektu edo proposamen baten aurka eskumen-arazoa aurkeztu duenak Batzar Nagusiei horren berri ematen dienean, Mahaiak izapideak eteteko aginduko du, Arbitraje Batzordea arautzen duen Legeko (13/1994 Legea, ekainaren 30ekoa) 52. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.
2. Eskumen-arazoa izapidetzeko onartu dela jakinarazi denetik bost eguneko epean, Batzar Nagusietako Mahaiak, bere kabuz edo Ganberako gehiengo ordezkatzen duten bi batzarkide-taldek eskatuta, Arbitraje Batzordeari eska diezaioke etendura bertan behera uzteko. Eskaeran, etendura bertan behera uztea arrazoitzen duten zio edo aparteko inguruabarrak azaldu behar dira, argi eta garbi.
3. Honako kasu hauetan berriro ekingo zaio prozedurari, eteteko agindu zen unean utzi zen tokitik:
  - Arbitraje Batzordeak eskumen-arazoa izapidetzeko ezin dela onartu dioenean.
  - Arbitraje Batzordeak etendura bertan behera uzten duenean.
  - Ekimenen ordenamendu juridikoarekin bat datorrela aitortzen duenean.
  - Eskumen-arazoa aurkeztu zuenak atzera egiten duenean.
4. Arbitraje Batzordeak etendura zati batean utz dezake bertan behera, eta proiektu edo proposamenaren zati bati dagokionez eten dezake izapidea, horrela ekimenak ulermen-batasuna eta kongruentzia ez dituela galtzen uste badu. Orduan, Mahaiak erabaki behar du zer komeni den izapideak aurrera jarraitzeari buruz, Bozera maileen Batzordearen iritzia entzunda.



## 187. artikulua

1. Arbitraje Batzordeak dioenean foru-arauaren proposamen bat Autonomia Estatutuaren aurka edo Erkidego osorako erakundeen eta foru-erakundeen eskumenak banatzen dituzten legeen aurka doala, Mahaiak erabakiaren berri emango dio Ganberari hurrengo Osoko Bilkuran.
2. Erabakia Ganberari jakinarazitakoan, ekimena bertan behera geratu dela ulertuko da, salbuespen honekin: Arbitraje Batzordeak Autonomia Estatutuaren edo eskumen-legeen aurkakotzat jo ez dituen zatiei dagokienez, Osoko Bilkurak pentsa dezake jarraitzea posible dela eta komeni dela. Hori erabakitzeko, lehendakariak batzarkide-taldeei galdetuko die ea inork jarraitu nahi duen Estatutuaren edo legeen aurkakotzat jo ez den foru-arauaren proposamenaren zatia izapidetzen. Batzarkide-talderen batek jarraitu nahi badu, Osoko Bilkurak erabakiko du hala egin edo ez.  
Foru-arauaren proposamena izapidetzea erabakiz gero, Mahaiak taldeei orraztutako testua bidaliko die, eta artikuluei buruzko zuzenketak aurkezteko epea zabalduko du. Ez dira izapidetzeko onartuko Arbitraje Batzordearen ustez Estatutuaren aurkakoak diren puntuak errepikatzen dituzten zuzenketak, edo puntu horiek berriro sartzen dituztenak.
3. Erabakitzen bada foru-arau proiektua Autonomia Estatutuaren edo Erkidego osorako erakundeen eta foru-erakundeen eskumenak banatzen dituzten legeen aurkakoa dela, Foru Aldundiak proiektua atzera botako du, salbuespen honekin: Batzordeak irizpen osoa onartua badu, aurreko ataletan ezarritako izapidetak jarraituko dira.



### III. KAPITULUA

#### Batzar Nagusiek eginiko izendapenak

##### 188. artikulua

1. Arau baten arabera<sup>124</sup> Batzar Nagusiei dagokienean inor proposatzea edo aukeratzea, batzarkide-taldeen hautagai- zerrendak aurkez ditza-kete. Zerrenda osatzen dutenek kasu bakoitzean aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte.
2. Batzarkide-taldeen erregistro nagusian aurkeztu behar dituzte hautagai-zerrendak, aukeraketa egiteko Osoko Bilkura egin baino bost egun lehenago.
3. Eztabaida Osoko Bilkuran egingo da, behintzat Mahaiak ez badu esaten, Batzar Nagusien jardueren egutegia dela-eta, Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordearen<sup>125</sup> eskumena dela. Eztabaidan, batzarkide-talde bakoitzak gehienez bost minutuz hitz egingo du.
4. Hautatze-sistema kasu bakoitzean dagokion arauak ezarriko du. Arauketa berezirik ez dagoenean, Mahaiari dagokio hautatzeko formula erabakitzea, Bozera maileen Batzordearen iritzia ezagutu ondoren.

---

124. Ikus otsailaren 25eko Euskal Unibertsitate sistemaren 3/2004 Legearen 71.2.b) artikulua (martxoaren 12ko 50 zk.ko EHAA)

125. 2014ko uztailearen 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

5. Berdinketak egonez gero, kopuruz handiena den taldeak proposatutako hautagaiak irabaziko du, edo, hala dagokionean, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu dituen indar politikoak proposatutakoak.

### IV. KAPITULUA

#### Epaitegien aurreko prozedura

##### 189. artikulua

1. Dagokion jurisdikzioaren aurrean helegitea jarri, pertsonatu edo alegazioak aurkeztea proposa dezakete bi batzarkide-taldek edo batzarkideen bostenek, arrazoituz. Erabakia Batzar Nagusietako Mahaiak hartuko du, Bozera maileen Batzordearekin adostuta, edo, bestela, Osoko Bilkurak erabaki behar duela ebatzi dezake, gaia garrantzitsua delako.
2. Proposamenean, argi eta garbi zehaztuko dira aurkatutako arauak eta hautsi direla uste diren arauak.
3. Ebazpen-proposamenentzako aurreikusitako izapidetzea beteko da Osoko Bilkuran<sup>126</sup>.

##### 190. artikulua

Atzera egitea erabaki daiteke, betiere, epaitegiak epaia emateko eguna ezarri baino lehen. Atzera egitea bi batzarkide-taldek edo Batzar Nagusi-

---

126. Ikus Araudi honen 151. eta hurrengo artikulua.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

etako kideen bostenak proposatu behar du, eta Mahaiak erabaki, Bozera-  
maileen Batzordearekin ados jarrita, edo, hala dagokionean, Batzorde  
Iraunkorrak.

### 191. artikulua

1. Helegitearen objektua Lurralde Historikoak emandako foru-arau bat  
edo foru-arauaren indarra duen xedapen bat denean, Batzar Nagusi-  
etako Mahaiak erabakiko du, Bozera-  
maileen Batzordearekin ados ja-  
rrita, edo, dagokionean, Batzorde Iraunkorrak, prozeduran pertsona-  
tzea eta alegazioak aurkeztea eta, beharrezkoa bada, abokatua izenda-  
tzea.
2. Foru-arauaren indarririk ez duten Batzar Nagusien erabakiak aurka-  
ratuz gero, Mahaiak erabakiko du pertsonatzea, alegazioak aurkez-  
tea eta abokatuen laguntzaz baliatzea.

## V. KAPITULUA

### Batzar Nagusien harremana Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin<sup>127</sup>

### 192. artikulua

1. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak urteko lan-programa ezagutarazten  
dienean Batzar Nagusiei, Mahaiak jakinarazpen hori batzarkide-tal-  
deei helaraziko die, batzarkide-taldeek adieraz dezaten lehentasunak  
ote dauden Epaitegiak duen fiskalizazio-lanean.

---

127. Ikus Lurralde Historikoen Legeko [azaroaren 25eko 27/1983 Legea, *Autono-  
mia Erkidego Osorako Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute  
Erakundeen Arteko Harremani buruzkoa* (182 zk.ko EHAA, 1983ko abenduaren



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

2. Horretarako, batzarkide-taldeek proposamenak aurkez ditzakete Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean. Proposamenak Osoko Bilkuran edo ogasun- eta finantza-alorreko batzorde eskudunean izapidetuko dira, Araudi honetan ebazpen-proposamenentzako aurreikusitako prozedurari jarraituz<sup>128</sup>.

---

10ekoa] 30. artikulua eta *otsailaren 5eko 1/1988 Legea, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena* (44 zk.ko EHAA, 1988ko martxoaren 3koa).

128. Ikus, proposamen hauei buruz, Araudi honen 151. eta hurrengo artikulua.



## HAMABIGARREN TITULUA

### HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA

#### **193. artikulua**

Gipuzkoako Batzar Nagusien bilkura guztietan, bai Osoko Bilkuran bai batzordeetan, bi hizkuntza ofizialetako edozein erabil daiteke, euskara edo gaztelania. Euskara ez dakiten batzarkideentzat, komunikabideetako ordezkari entzat eta gonbidatuentzat aldi bereko itzulpen-zerbitzua egongo da.

Halaber, Batzar Nagusien funtzionamendua nolakoa den jakinda, kontuan hartuta Batzar Nagusien funtzionamenduaren sustatzaile nagusietako bat batzarkide-taldeen lana dela, batzarkide-taldeek hizkuntzarekin duten jarrera Araudi honetako 2. artikuluan ezarritako helburuei egokitu die, euskarari lehentasuna emanaz.

#### **194. artikulua**

Euskaraz idazten denean Batzar Nagusietan, arau hauek beteko dira:

1. Batzar Nagusietan euskaraz bakarrik dauden idatziak aurkezten direnean, eragin osoa izango dute.
2. Batzar Nagusietan aurkezten diren agiriak, bai eta Batzar Nagusiek bidaltzen dituztenak ere, bi hizkuntza ofizialetan jasoko dira Batzar Nagusietako erregistroan.
3. Batzar Nagusien argitalpen ofizialak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

4. Bilkuretako aktak bilkuran erabilitako hizkuntza ofizialean idatziko dira. Hala ere, bilkuran eztabaidatutako gaien erabakiak bi hizkuntza ofiziale-tan jasoko dira. Dena den, aktak itzuli egin daitezke, beharrezkoa denean edo batzarkide-talde batek eskatzen duenean.
5. Bilkura-egunkaria bilkuran erabilitako hizkuntza ofizialean idatziko da, baina argitaratzeko itzuli egingo da beti. Dena den, hizlariak bilkuran erabilitako hizkuntzan banatu ahal izango da bilkura-egunkaria aktarekin batera, ordurako idazketa elebiduna ez badago prest.
6. Ofizialki jakinarazten diren deialdi, erabaki, jakinarazpen eta ebazpenak bi hizkuntza ofizialean idatziko dira, kasu hauetan izan ezik:
  - Batzar Nagusiei euskara hutsean zuzendu diren haiei erantzuna bidaltzerakoan.
  - Administrazioari eta Euskararen Erabileraren Normalizazioari buruzko 10/1982 Oinarrizko Legea (azaroaren 24koa)<sup>129</sup> bete behar duten botere publikoei bidaltzen dizkietenean idatziak Batzar Nagusiek, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden botere publikoek bi hizkuntza ofiziale-tako edozeinetan daukatelako arreta eskaini beharra. Hala ere, botere publiko batek bereziki eskatuz gero, idatziak bi hizkuntza ofiziale-tan bidaliko zaizkio.
  - Hartzailearen hizkuntza-inguruabarrek horrela eskatzen dutenean.

Kasu horietan euskara hutsean idatziko da. Edonola ere, batzarkide-talderen batek eskatuz gero, puntu honetan jasotako idatzien itzulpena egingo zaio.

---

129. 160 zk.ko EHAA, 1982ko abenduaren 16koa. Ikus, baita ere, Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 epaia, ekainaren 26koa.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

7. Batzar Nagusiek egindako egiaztagiriak euskaraz egongo dira, ondoren zehaztutako kasuetan izan ezik. Kasu hauetan, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira:
  - Eskatzaileak eskatzen duenean; era horretan, Batzar Nagusiek interesatuei hizkuntza hautatzeko aukera emango diete.
  - Egiaztagiriaren eraginak Euskal Autonomia Erkidegoaren edo Nafarroaren eremua gainditzen duenean, salbuespen honekin: Batzar Nagusiek badakitenean erakunde hartzaileak Estatuko edozein hizkuntza ofizialetako agiriak onartzen dituela.
8. Batzarkide-taldeek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkez ditzakete ekimenak, zuzenketak edo Batzar Nagusiei zuzendutako edozein idatzi.
9. Foru Aldundiari eskatuko zaio ekimenak eta testuak bi hizkuntza ofizialetan bidal ditzala. Halaber, Foru Aldundiari eskatuko zaio Batzar Nagusien ekimenen erantzunak euskaraz bidal ditzala gutxienez, ekimenean euskara erabili denean jatorriz.
10. Batzar Nagusiek beste herri-administrazio eta erakunde ofizialetatik datozen agiriak euskaraz emateko eskatuko dute, Euskal Herriaren lurralde-eremutik datozenean.
11. Euskal Herriaren lurralde-eremutik kanpoko administrazio eta erakunde ofizialetatik datozen agiriak onartuko dituzte Gipuzkoako Batzar Nagusiek, haien lurraldetan ofizial diren hizkuntzetan datozenean.
12. Pertsona fisikoek euskaraz zein gaztelaniaz egindako komunikazioak onartuko dituzte Batzar Nagusiek, bai eta pertsona horien lurraldean ofiziala den beste hizkuntza batean egindakoak ere.



## 195. artikulua

1. 2. artikuluan jasotako helburua lortzearren, Batzar Nagusietako Mahaiak hizkuntza normalizatzeko plan bat idatziko du. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zuzenduko du plana. Planean lanpostuen hizkuntza-eskakizunak zehaztuko dira, bai eta Batzar Nagusietako administrazioaren sail elebidunak, eta titulu hau garatzeko beharrezkoak diren zehaztapenak ere.
2. Batzar Nagusietako hizkuntza-zerbitzuek eta zerbitzu juridikoez txosten bat egingo dute Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordearentzat<sup>130</sup>, Batzorde horrek eskatuta, plana noraino bete den esateko.

Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordeak<sup>131</sup>, aurreko ataleko txostena ikusita, irizpide batzuk emango ditu, eta Mahaiari zuzenduko dizkio, Mahaia delako indarrean dagoen plana beteazteko ardura duen organoa, bai eta plangintza-aldi bakoitzean Batzar Nagusiei dagokien hizkuntza-plana idazteko arduraduna ere. Mahaiak, txostena jaso eta gero, plangintza-aldi bakoitzean ezarritako helburuak lortzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu, eta irizpide horiek hartuko ditu kontuan artikulua honetako 1. ataleko plana idazterakoan.

---

130. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

131. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordeko<sup>132</sup> ponentzia batek txostena aurkeztuko dio Batzorde horri, urtero, Araudi honen aplikazioari buruz, eta, behar izanez gero, beharrezko aldaketak proposatuko dizkio<sup>133</sup>.
2. Zerbitzu juridikoek Araudiari buruzko aurrekariaren fitxategi bat egingo dute, bai eta eguneratu ere.

### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi hau aldatzeko, Araudi honetan Batzar Nagusien ekimeneko foru-arauden proposamenak bideratzeko aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio, baina Foru Aldundiaren irizpideari eta adostasunari buruzko izapideak kenduta. Araudia onartzeko, aldatzeko edo indargabetzeko, testua osotasunean bozkatu eta gehiengo osoak aldeko botoa eman behar du<sup>134</sup>.

### HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Antolaketa, langile eta kontratuen alorrean nahiz administrazio-, finantza- eta aurrekontu-kudeaketaren alorrean, araudi orokorra ezarriko da;

---

132. 2014ko uztailaren 2ko Osoko Bilkuran onartutako Araudiaren aldaketaren arabera idatzia.

133. Ikus Araudi honen 47.3 artikulua.

134. Ikus *uztailaren 12ko 6/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauaren 12.5 artikulua.*



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

dena den, lehentasuna izango dute Batzar Nagusiek beren autonomia-eremuaren barruan agindutako arauak.

### **LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA**

Foru-arauetan edo beste arauetan Batzorde Iraunkorrari buruz esandakoak Batzar Nagusietako Mahaiari buruz direla ulertuko da, salbuespen batekin: Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernua eta Administrazioari buruzko Foru Araua (6/2005 Foru Araua, uztailearen 12koa)<sup>135</sup>.

### **BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA**

Araudi hau indarrean sartzeko denean bideratzen ari diren gai guztietan, Araudiak dioena ezarriko da egiteko dauden izapideetan. Horretarako, Mahaia Bozeramaileen Batzordearekin bilduko da, beharrezko xedapenak erabakiko ditu, eta prozeduran egon daitezkeen hutsuneei buruz erabakiko du organo eskudunari dagokionez. Horretarako, funtzioetan eta osakeran baliokide diren organoak erreparatuko die.

---

135. Ikus Araudi honen hitzaurreko hirugarren paragrafoa.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEAK**

#### **Lehena**

Araudi hau onartu eta indarrean sartzten denean, honako arau hauek indargabetuko ditu:

- 5/1985 Foru Araua, ekainaren 25ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusien Jarduerarako Barne Araudiari buruzkoa.
- 14/1994 Foru Araua, azaroaren 22koa, hizkuntza-normalizazioari buruzkoa, Gipuzkoako Batzar Nagusien Jarduerarako Barne Araudia aldatzen duena (5/1985 Foru Araua, ekainaren 25ekoa).
- 7/1995 Foru Araua, azaroaren 17koa, Barne Araudiaren sekzio bat aldatzen duena: VI. tituluko II. kapituluko hirugarren sekzioa, aurrekontuen foru-arau proiektuari buruzkoa.
- 5/2000 Foru Araua, uztailaren 6koa, Gipuzkoako Batzar Nagusien Jarduerarako Barne Araudiko (5/1985 Foru Araua)artikulu batzuk aldatzen dituena, hain zuzen ere, 11., 46. eta 128. artikulua.
- 4/2002 Foru Araua, apirilaren 30ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusien Jarduerarako Barne Araudia aldatzen duena (5/1985 Foru Araua).
- Batzorde Iraunkorraren 1987ko maiatzaren 11ko Ebazpena, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaiko lehendakariordeak eta idazkariak aukeratzeko prozedurari buruzkoa.

#### **Bigarrena**

Araudiaren babesean emandako araudi-izaerako xedapenak indargabetuta geratzen dira Araudi honetan ezarritakoaren aurka badoaz edo ezarritakoa gainditzen badute.



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

## **AZKEN XEDAPENA**

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* ere argitaratuko da.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### AURKIBIDE ANALITIKOA

#### ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK

36.2 eta 158. artikulua (Ezabatua)  
1/2021 ebazpena eta 1/2022 ebazpena

#### ADINEKO MAHAIA

4.etik 7. artikulura

#### AGERRALDIA

Foru Aldundiaren agerraldiak, informatzeko bilkuretan: 44. artikulua eta 147.etik 150. artikulura

#### AKREDITATZEA

Batzarkide-izaera: 3. artikulua

#### AKTAK

Bilkuretako aktak: 60. eta 194.4 artikulua

#### ALDATZEA

Gipuzkoako Batzar Nagusien Araudia aldatzea: 1. eta 2. xedapen gehigarriak

Gipuzkoako LHaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Araua aldatzea: 128. artikulua

#### ARAUDIA

Batzar Nagusia

Aldatzea: 1. eta 2. xedapen gehigarriak

Interpretatzea eta ezartzea: 1.3, eta 29.2 eta 3. artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### ARAUGINTZARAKO AHALMENA

Batzar Nagusiena: 1.2 artikulua

### ARAUGINTZARAKO EKIMENA

Batzar Nagusietako kideena eta batzarkide-taldeena: 101.1 eta 116.1 artikulua

Foru Aldundiarena: 101.2 artikulua

Herritarrena, araugintzarako herri-ekimenaren bitartez: 101.4, 116.1 eta 119. artikulua

Udalena: 101.3, 116.1 eta 120. artikulua

(Ikus “Araugintzarako prozedura”)

### ARAUGINTZARAKO PROZEDURA

Araugintzarako ekimena: 101. artikulua

Bereziak

Batzordeak araugintza-ahalmen osoa edukitzea: 121. artikulua

Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari Foru Araua aldatzea: 128. artikulua

Foru-arauen proiektuak irakurraldi bakarrean onartzea Osoko Bilkuran: 122. artikulua

Kontu orokorrak onartzea: 127. artikulua

LHaren aurrekontu orokorren foru-arau proiektua: 123.etik 126. artikulura

Foru-arau proiektuak: 102.etik 114. artikulura

Batzordeko eztabaida: 107. eta 108. artikulua

Izapidetzeko onartzea: 102. artikulua

Osoko Bilkurako eztabaida: 109.etik 114. artikulura

Osoko zuzenketen eztabaida: 105. artikulua

Ponentziaren txostena: 106. artikulua

Zuzenketak aurkeztea: 103. eta 104. artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Foru-arauaren proposamenak: 115.etik 120. artikulura

Ekimena: 116. artikulua

Herri-ekimenetik datozenak: 119. artikulua

Tramitazioa: 117. eta 118. artikulua

Udalek aurkeztutakoak: 120. artikulua

### ARBITRAJE BATZORDEA

Eskumen-arazoak: 180.etik 187. artikulura

### ARGITALPEN OFIZIALAK

Batzar Nagusien argitalpenak: 86. artikulua

Bilkura-egunkariak: 88. eta 194.5 artikulua

Gipuzkoako Batzar Nagusien Aldizkari Ofiziala: 87. eta 194.3 artikulua

### AURREKONTU OROKORRAK (GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOARENAK)

Batzar Nagusiek onartzea: 1.2 artikulua

Tramitazioa: 123.etik 126. artikulura

### BARNE-ERAENTZARAKO BATZORDEAK

37. eta 45. artikulua

Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordea: 47. artikulua

Bateraezintasunen Batzordea: 7.etik 10. artikulura eta 46. artikulua (ikus "Bateraezintasunen Batzordea").

Eskaerretarako eta Herritarrekiko Harremanetarako Batzordea: 48.etik 50. artikulura

Funtzioak: 48.1 artikulua

Funtzionamendua: 48.3 artikulua

Kexuak eta eskaerak tramitatzea: 49. eta 50. artikulua

Osaera: 48.2 artikulua

Txostena Osoko Bilkurari urtero aurkeztea: 50.5 artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### BATERAEZINTASUNEN ARAUBIDEA

Batzarkideena: 9., 10. eta 46. artikulua (Ikus “Bateraezintasunen Batzor-dea”).

### BATERAEZINTASUNEN BATZORDEA

Batzarkideen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzko iriz-pena: 10., 46.5 eta 46.6 artikulua

Bozketak: 46.2 artikulua

Egitekoak: 46.4 artikulua

Izendatzea: 7.etik 9. artikulura

Osaera: 46.1 artikulua

(Ikus “Jardueren eta ondasunen aitordpena”)

### BATZAR NAGUSIEN ALDIZKARI OFIZIALA

86., 87. eta 194.3 artikulua

### BATZAR NAGUSIEN AURREKONTUA

14.2, 15., 28.1.4, eta 47.2 artikulua

### BATZAR NAGUSIEN OSOKO BILKURA

55. eta 56. artikulua

Osoko Bilkurak

Aktak: 60. eta 194.4 artikulua

Bilkura-aldi arrunta/ohiz kanpokoak: 58. artikulua

Bilkura-egunkariak: 88. eta 194.5 artikulua

Bozketak: 71.etik 81. artikulura

Eztabaidak: 62.etik 69. artikulura

Diziplina: 90.etik 95. artikulura



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Gai-zerrenda: 28.1, 36.2 eta 61. artikulua  
Publikoak/isilpekoak: 59.1 eta 59.3 artikulua

### BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIA

Batzar Nagusien ordezkariak: 26.1 artikulua  
Batzar Nagusien organo gidaria: 26.1 artikulua  
Batzordeen mahaia: 40. artikulua  
Deia: 32. artikulua  
Egitekoak: 28. artikulua eta l. xedapen iragankorra  
Idazkariak: 6.5, 6.6 eta 31. artikulua  
Lehendakariordeak 6.4 eta 6.6 artikulua., eta 30. artikulua  
Lehendakaria: 6.3, 7. eta 29. artikulua  
Mahaiko kideek kargua uztea: 27. artikulua  
Mahaiko kideak izendatzea: 6.etik 8. artikulura, eta 26.2 eta 26.3 artikulua

### BATZARKIDE-TALDEAK

Baliabide materialak eta giza baliabideak: 25. artikulua  
Bozeramaileak: 22.4, 23.4 eta 35.6 artikulua (Ikus “Bozeramaileen Batzordea”).  
Bozeramaileak batzordeetan: 41.3 eta 42.3 artikulua  
Eraketa: 22. artikulua  
Izena: 22.4 artikulua  
Osaera aldatzea: 24. artikulua  
Taldea mistoa: 22.2, 23., 24.2, 24.3 eta 35.6 artikulua

### BATZARKIDEAK

Administrazioari informazioa eskatzeko eskubidea: 13. artikulua  
Akreditatzea: 3. artikulua  
Bateraezintasunak: 9., 10. eta 46. artikulua  
Batzarkide-izaera galtzea: 21. artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Betebeharrak: 17.etik 19. artikulura

Bortxaezintasuna: 16. artikulua

Deia: 4. artikulua

Diziplina: 90.etik 92. artikulura eta 94. artikulua

Erantzukizuna: 96.etik 99. artikulura

Hutsegiteak eta zigorrak: 98. artikulua

Batzarkideei eskubideak kentzea: 17.1, 20, 25.2 eta 96. artikulua

Batzarkide-izaera kentzea: 94. eta 97. artikulua

Prozedura: 99. artikulua

Eskubideak: 4.5 artikulua eta 12.etik 16. artikulura

Jardueren eta ondasunen aitortpena: 3.1, 19. eta 98. artikulua

Karguen jabetza hartzea: 4. artikulua

Ordainsaria: 14. eta 15. artikulua

### BATZORDE ARRUNTAK

38.etik 44. artikulura

Administrazioari informazioa eskatzeko eta harengandik lortzeko eskubidea: 44. artikulua

Araugintza ahalmena: 121. artikulua

Batzarkide-taldeetako bozeramaileak: 41.3 eta 42.3 artikulua

Bozketak: 41.3 artikulua

Deialdia: 41.1 eta 41.2 artikulua

Eraketa: 38. eta 41.4 artikulua

Funtzionamendua: 41., 59.2 eta 61. artikulua

Mahaia: 40. artikulua

Osaera: 39. eta 42. artikulua

Quoruma: 41.1 artikulua

Ponentziak: 43. artikulua

(Ikus "Araugintzarako prozedura")

### BATZORDE BEREZIAK



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Azterketa-batzordea: 54. artikulua

Definizioa: 51. artikulua

Ikerketa-batzordea: 53. artikulua

Sortzea: 52. Artikulua

### BATZORDE IRAUNKORRA

Batzar Nagusiena: 4.1, 21., 33., 34., 58.4, 86., 100., 130.1, 181.1, 190., 191. artikulua eta 1. xedapen iragankorra

### BETEBEHARRAK

Batzarkideenak: 17.etik 20. artikulura

Jardueren eta ondasunen aitorpena: 3.1, 19. eta 98. artikulua

### BILKURA

Batzar Nagusien Osoko Bilkurak: 55., 56., 58. eta 59. artikulua

Aktak: 60. eta 194.4 artikulua

Bilkura-egunkariak: 88. eta 194.5 artikulua

Bozketak: 71.etik 81. artikulura

Diziplina: 90.etik 95. artikulura

Eztabaidak: 62.etik 69. artikulura

Gai-zerrenda: 28.1, 36.2 eta 61. artikulua

Batzordeen bilkurak: 41., 59.2 eta 60.2 artikulua

### BILKURA-EGUNKARIA

88. eta 194.5 artikulua

### BORTXAEZINTASUNA

Batzarkideena: 16. artikulua

### BOZERAMAILEA

Batzarkide-taldekoa: 22.4, 23.4 eta 35.6 artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Batzarkide-taldekoak batzordeetan: 41.3 eta 42.3 artikulua  
Bozeramaileen Batzordea: 35. eta 36. artikulua

### BOZERAMAILEEN BATZORDEA

35. eta 36. artikulua

### BOZKETA

71.etik 81. artikulua

Batzordeetan: 41.3 artikulua

Berdinketa: 74. artikulua

Botoa azaltzea: 81. artikulua

Bozkatzeko moduak: 75.etik 80. artikulua

Baiestea: 76. artikulua

Bola bidezko bozketa: 80. artikulua

Bozketa arrunta: 77. artikulua

Isilpeko bozketa: 79. artikulua

Jendaurreko bozketa, izen-abizenez deituta: 78. artikulua

Gehiengoak: 73. artikulua

Quoruma: 72. artikulua

### DEIA

4. artikulua

### DEKRETU-ARAU FORALAK

Baliozkotzeko edo indargabetzeko eztabaida: 130. artikulua

### DIPUTATU NAGUSIA

Hautapena: 1.2 eta 11. artikulua, eta 163.etik 165. artikulura

Konfiantza-eskaera: 166.etik 169. artikulura

Zentsura-mozioa: 170.etik 175. artikulura



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### DIZIPLINA

Batzar Nagusien esparruko ordena: 93.etik 95. artikulura

Gaiari lotzeko eskatzea: 64. eta 90. artikulua

Portaera aldatzeko eskatzea: 64., 91. eta 92. artikulua

### EBAZPEN-PROPOSAMENAK

151.etik 157. artikulura

### EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

Berdintasun politiken bultzatzea: 2.bis artikulua

### EPAITEGIEN AURREKO PROZEDURAK

189.etik 191. artikulura

### EPEAK

Agiriak aurkeztea: 84. artikulua

Epeak laburtzea edo luzatzea: 83. artikulua

Gaiak presakotzat jotzea: 85. artikulua

Zenbaketa: 82. artikulua

### ERABAKIAK BETETZEN OTE DIREN BALIOESTEA ETA KONTROLATZEA

Araugintza balioestea: 161. art.

Politika publikoak balioestea: 161.bis art.

Batzar Nagusien erabakiak betetzen ote diren kontrolatzea: 162. art.

### ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK

36.2 eta 158. artikulua (Ezabatua)

### ERANTZUKIZUNA



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### Batzarkideena

Batzarkideei eskubideak kentzea: 17.1, 20., 25.2 eta 96. artikulua

Batzarkide-izaera kentzea: 94. eta 97. artikulua

Hutsegiteak eta zigorrak: 98. artikulua

Prozedura: 99. artikulua

Foru Aldundiaren erantzukizun politikoa. Zentsura-mozioa: 170.etik 176. artikulura

### ERATZE-BILKURA

Batzar Nagusia: 4.etik 7. artikulura

### ESKUBIDEAK

Batzarkideenak: 4.5 artikulua, 12.etik 16. artikulura, eta 20. artikulua

Administrazioari informazioa eskatzeko eskubidea: 13. artikulua

Bortxaezintasuna: 16. artikulua

Eskubideak kentzea: 17.1 eta 20. artikulua, eta 96.etik 99. artikulura

Ordainsaria: 14. eta 15. artikulua

### ESKUMENAK

Batzar Nagusienak: 1.2 artikulua

### ESKUMEN-ARAZOAK

Arbitraje Batzordearen aurrean: 180.etik 187. artikulura

### EUSKARA

Hizkuntza ofizialak: 2.1 artikulua

Hizkuntza-eskubideak: 2.2 artikulua

Hizkuntza-normalizazioa: 193.etik 195. artikulura

### EZTABAIDAK

62.etik 69. artikulura



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Eztabaida monografikoak: 133.etik 135. artikulura

### FORU ALDUNDIA

Batzar Nagusiekiko harremanak

Adierazpen instituzionalak: 36.2 eta 158. artikulua

Araugintza balioestea eta Batzar Nagusien erabakiak betetzen ote diren kontrolatzea: 161, 161.bis eta 162. artikulua

Araugintzarako ekimena: 101.2 artikulua (Ikus “Foru-araua proiektuak”).

Araugintzarako eskuordetzearen kontrola: 129. artikulua

Banakako zentsura-mozioa: 176. artikulua

Batzar Nagusiek diputatu nagusia izendatzea: 1.2 eta 11. artikulua, eta 163.etik 165. artikulura

Ebazpen-proposamenak: 151.etik 157. artikulura

Eztabaida monografikoak: 133.etik 135. artikulura

Foru Aldundiaren jarduna kontrolatzea eta sustatzea: 1.2 artikulua

Foru Aldundiaren planak eta txostenak: 136. artikulua

Foru Aldundiaren proposamenak berrestea: 177. eta 178. artikulua

Foru Aldundiari informazioa eskatzeko batzarkideek duten eskubidea: 13. artikulua

Dekretu-arau foralen kontrola: 130. artikulua

Galderak: 140.etik 146. artikulura

Informatzeko bilkurak. Foru Aldundiaren agerraldiak: 147.etik 150. artikulura

Interpelazioak: 137.etik 139. artikulura, eta 145. eta 146. artikulua

Konfiantza-eskaera: 166.etik 169. artikulura

Ondareari eta finantzei buruzko baimenak eta informazioak: 159. eta 160. artikulua

Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena: 131. eta 132. artikulua

Zentsura-mozioa: 170.etik 176. artikulura

### FORU-ARAU



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Araugintzarako ahalmena: 1.2 artikulua

Araugintzarako ekimena: 101. artikulua

Arau-indarra duten Foru Aldundiaren xedapenak kontrolatzea: 129. eta 130. artikulua

Foru-arau proiektuak: 102.etik 114. artikulura

Foru-arauaren proposamenak: 115.etik 120. artikulura

Herri-ekimenetik datozenak: 101.4, 116.1, eta 119. artikulua

Udalek aurkeztutakoak: 101.3, 116.1 eta 120. artikulua

(Ikus “Araugintzarako prozedura”)

### FORU-ARAU PROIEKTUAK

(Ikus “Araugintzarako prozedura”)

### FORU-ARAUAREN PROPOSAMENAK

(Ikus “Araugintzarako prozedura”)

### FORU-DEKRETU ARAUGILEAK

Araugintzarako eskuordetzearen kontrola: 129. artikulua

### GAIARI LOTZEKO ESKATZEA

64., 69.4 eta 90. artikulua

### GAI-ZERRENDA

28.1, 36.2 eta 61. artikulua

### GALDERAK

Batzarkideek Foru Aldundiari: 82.3 artikulua eta 140.etik 146. artikulura

### HAUTAGAIA

Diputatu nagusi izateko hautagaia: 163. eta 164. artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Zentsura-mozioaren bidez diputatu nagusi izateko hautagaia: 170.etik 175. artikulura

### HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

Batzar Nagusiekiko harremanak: 192. artikulua

LHaren kontu orokorrak fiskalizatzea: 127. artikulua

### HITZARMENAK

178. artikulua

### HIZKUNTZA

Hizkuntza ofizialak: 2.1 artikulua

Hizkuntza-eskubideak: 2.2 artikulua

Hizkuntza-normalizazioa: 193.etik 195. artikulura

### IDAZKARIA

Adineko Mahaikoa: 4.3 artikulua

Batzar Nagusietako Mahaikoa: 6. eta 31. artikulua

Batzordeetakoak: 40. artikulua

### INFORMATZEKO BILKURAK

Foru Aldundiaren agerraldiak: 147.etik 149. artikulura

Prozedura: 150. artikulua

### INTERPELAZIOAK

137.etik 139. artikulura., eta 145. eta 146. artikulua

### JARDUEREN ETA ONDASUNEN AITORPENA

3.1, 19. eta 98. artikulua

Interesen erregistroa: 19.3 artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### KARGUA UZTEA

Batzar Nagusietako Mahaiko kideek: 27. artikulua

Batzarkideek: 21. artikulua

Diputatu nagusiak: 168. eta 174. artikulua

### KONFIANTZA-ESKAERA

166.etik 169. artikulura

### KONTU OROKORRAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoarenak

Batzar Nagusiek onartzea: 127. artikulua

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako fiskalizazioa: 127. artikulua

### LEGE BILTZARRA (GIPUZKOAKO)

Batzar Nagusiak Gipuzkoako legebiltzarra dira: 1.1 artikulua

Herritarren ordezkarietarako eta herritarrek parte hartzeko organo gorenak: 1.1 artikulua

### LEGELARIAK

Batzar Nagusietakoak: 4., 19.3, 26.2, 33.4, 35.3, 41.2, 43.7, 53.4, 60., 180.2 eta 182. artikulua

### LEGE-PROPOSAMENAK

Batzar Nagusiek aurkeztutakoak Eusko Legebiltzarraren aurrean: 179. artikulua

### LEHENDAKARIA

Adineko Mahaikoa: 4.3, 5. eta 6. artikulua

Batzar Nagusietakoa: 6., 7. eta 29. artikulua

Batzordeetakoak: 40. artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### LEHENDAKARIORDEA

Adineko Mahaikoa: 4.3 artikulua

Batzar Nagusietako Mahaikoa: 6. eta 30. artikulua

Batzordeetakoak: 40. artikulua

### ORDAINSARIAK

Batzarkideenak: 14. eta 15. artikulua

Eskubide ekonomikoak kentzea: 17.1, 25.2 eta 98. artikulua

### OSOKO BILKURA (BATZAR NAGUSIENA)

55. eta 56. artikulua

Osoko Bilkurak

Aktak: 60. eta 194.4 artikulua

Bilkura-aldi arrunta/ohiz kanpokoak: 58. artikulua

Bilkura-egunkariak: 88. eta 194.5 artikulua

Bozketak: 71.etik 81. artikulura

Eztabaidak: 62.etik 69. artikulura

Diziplina: 90.etik 95. artikulura

Gai-zerrenda: 28.1, 36.2 eta 61. artikulua

Publikoak/isilpekoak: 59.1 eta 59.3 artikulua

### POLITIKA OROKORREKO ADIERAZPENA

131. eta 132. artikulua

### PORTAERA ALDATZEKO ESKATZEA

64., 91. eta 92. artikulua

### PUBLIZITATEA

Batzar Nagusien lanena: 89. artikulua

Gardentasuna: 89.bis artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### PONENTZIA

43., 47.5 eta 106. artikulua

### ZENTSURA-MOZIOA

170.etik 175. artikulura

Banakako zentsura-mozioa: 176. artikulua

### ZIGORRAK

96.etik 99. artikulura (Ikus “Erantzukizuna”).

### ZUZENKETAK

Zuzenketak foru-arauaren proiektuei: 103.etik 114. artikulura

Aurkeztea: 103. eta 104. artikulua

Batzordeko eztabaida: 107. eta 108. artikulua

Osoko Bilkurako eztabaida: 109.etik 114. artikulura

Osoko zuzenketen eztabaida: 105. artikulua

Ponentziaren txostena: 106. artikulua

Zuzenketak foru-arauaren proposamenei: 117. Artikulua



## AURREKARIAK

### **2006/09/28 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 7. legealdia

DATA: 2006/09/28

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia, Bozeramaileen Batzordea

ERAGINA DAUKA: 132 artikulua

TESTUA:

**ARAUDIKO 132. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO MOZIOAK AURKEZTEKO**

Araudiko 132. artikuluan aurreikusitako mozioak aurkezteko epea eztabaida amaitzen denetik 24 ordu igaro artekoa da.

Batzar Nagusietako erregistroa zabalik egongo da, erakundearen egoitzan, goizeko 08:00etatik mozioak aurkezteko epea amaitu arte, etenik gabe.

Telematikaren bidez eta sinadura digitalarekin igorritako mozioak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera erregistratuko dira, eta sarrera erregistroa irekitzen den unean sartuko dira sisteman.

Batzarkide-taldeek aurkeztutako mozioak begiratu ahal izango dituzte, kudeaketarako sistema integralean sartuz. Mozioak sisteman sartu ahala egongo dira ikusgai.

### **2006/10/02 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 7. legealdia

DATA: 2006/10/02

ERABAKIAREN ARDURA: Bozeramaileen Batzordea

ERAGINA DAUKA: 132 artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### TESTUA:

2006ko politika orokorreko urteko adierazpena dela eta aurkeztutako mozioak bozkatzeko arau hauei jarraituko zaie:

Mozio bat ezin da zatika bozkatu, ezin da ez paragrafoka ez atalka ez beste ezein zatika bozkatu.

Mozioak zenbakitu egingo dira, aurkezteko hurrenkeraren arabera. Erdibideko mozioak aurkezterakoan nahitaez ezarri beharko da erdibidekoak erreferentzia egiten dion mozioaren (edo mozioen) zenbakia.

Erdibideko mozioak idatziz aurkeztu behar dira, Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean, urriaren 4ko osoko bilkuran, batzarkide-taldeek jarrerak azaldu aurretik egingo den etenaldia amaitu baino lehen.

Erdibideko mozio batek bi mozio edo gehiago erretiratzea dakarrenean, 132.3 artikulua ezarriko da, eta erretiratutako mozioetatik azkena noiz aurkeztu den hartuko da kontuan aurkezteko unea zein den erabakitzeko. Erdibideko mozio batek mozio bat erretiratzea dakarrenean, aurkezten azkena izan dela ulertuko da.

Gai beraren gainean batzarkide-talde batzuek aurkeztu badituzte mozioak, eta talde batek edo batzuek beren mozioak erretiratzen badituzte erdibideko bat aurkeztu dutelako, jatorrizko mozioa bozketarako gordetzen duen taldeak eskubidea dauka erdibideko mozioa izapidetzeko onartzeari aurka egiteko, beti ere, bozketen hurrenkeran erdibidekoa jatorrizkoa baino lehen bozkatzea aurreikusi bada.

### **2006/11/20 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 7. legealdia

DATA: 2006/11/20

ERABAKIAREN ARDURA: Bozeramaileen Batzordea

ERAGINA DAUKA: 155 artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### TESTUA:

Zuzenketa batek atal bakarra duen ebazpen-proposamenaren testua ordezkatzeari proposatzen duenean, osoko zuzenketa gisa kalifikatuko da beti.

### **2006/11/21 AURRAKARIA**

LEGEALDIA: 7. legealdia

DATA: 2006/11/21

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: [137 artikulua](#); [142 artikulua](#)

### TESTUA:

Araudiak ez duenez aurreikusten talde proposatzaileak galderak edo interpelazioak atzeratzeko eskatzeko aukera, honako hau erabaki dugu: ekimena izan duen batzarkide-taldeak eskatzen badu hasiera batean aurkeztu zuen hori ez jorratzeko dagokion osoko bilkuran, idatzi berri bat aurkeztu behar du Ganberaren erregistroan, ekimena bideratu nahi duela berresteko. Bestela, ekimena bertan behera utzi duela ulertuko da.

### **2007/01/09 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 7. legealdia

DATA: 2007/01/09

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: [13 artikulua](#)

### TESTUA:

Mahaiaren ustez “lan dokumentu” gisa ezin dira zirriborroak edo behin behineko lan dokumentuak eskatu baldin eta Foru Aldundiaren borondate politikoa nahiz administratiboa osatzeko erabiltzen ari diren lan-gaiak badira, Aldundiaren eskumenen erabilerari eragingo liokeelako.

### **2007/09/20 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 8. legealdia



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

DATA: 2007/09/20

ERABAKIAREN ARDURA: Osoko Bilkura

ERAGINA DAUKA: 155 artikulua

TESTUA:

Testu osoa daukan erdibideko zuzenketa bat onartzen bada, eranste-zuzenketa jarriko da bozketan, baldin eta Mahaiak eta Bozeramaileen Batzordeak zuzenketa hori onartutako testuarekin bat datorrela irizten badiote aho batez.

### **2007/10/31 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 8. legealdia

DATA: 2007/10/31

ERABAKIAREN ARDURA: Bozeramaileen Batzordea

ERAGINA DAUKA: 137.1 artikulua; 140.1 artikulua

TESTUA:

Araudiak ez du eragozpenik ezartzen diputatu nagusiak berari zuzendutako galderen edo interpelazioen erantzunak besteren esku utzi ahal izateko, horrela jokatzeko baitute kontsulta egin zaien gure inguruko batzarretan, Arabako Biltzar Nagusietan izan ezik, han horrela jokatzeko galazteko Araudia aldatzeko eskatu baitzen.

### **2007/12/18 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 8. legealdia

DATA: 2007/12/18

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaiak

ERAGINA DAUKA: 137.2 artikulua

TESTUA:

Araudiko 137.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, interpelazioak hurrengo Osoko Bilkurako gai zerrendan sartuko dira, Mahaiak kalifikatu



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

eta zazpi egun igarotakoan. Kasu honetan, eta ekimena aurkeztu duen eskaerari erantzunez presako izaera eman zaio ekimenari; beraz, Araudiko 85.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, epe hori erdian geratuko da.

### **2008/06/05 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 8. legealdia

DATA: 2007/12/12 eta 2008/06/05

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritzako eta Foru Administrazioiko Batzordea (2007/12/12) eta Osoko Bilkura (2008/06/05)

ERAGINA DAUKA: 155. artikulua

TESTUA:

Proposamena egin duen batzarkide-taldeak eta zuzenketak aurkeztu dituen beste batzarkide-talde batek (edo batzuek) erdibideko zuzenketa bat adostu eta aurkeztu arren eta erdibideko hori bozkatu arren, zuzenketak aurkeztu dituzten beste batzarkide-talde batzuek aurkeztutako erdibidekoak ez dira bertan behera geratuko.

### **2008/06/10 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 8. legealdia

DATA: 2008/06/10

ERABAKIAREN ARDURA: Araudirako, Erakundeetarako eta Gobernu-rako Batzordea

ERAGINA DAUKA: 42.3. artikulua

TESTUA:

41.3 artikuluko edukia ezarri behar den kasuetan, bozeramaileen ordezkapena ez bada 42 artikuluko lehenengo ataleko prozeduraren arabera egin, ahoz aurkeztu ahal izango dira bozeramaileen saio zehatz horretarako ordezkapenak.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **2010/03/17 AURRERAKIA**

LEGEALDIA: 8. legealdia

DATA: 2010/03/17

ERABAKIAREN ARDURA: Bozeramaileen batzordea

ERAGINA DAUKA: 36.2.d) artikulua

TESTUA:

Aho batez onartzeko, organoko kide guztiek bozkatu behar dute proposamenaren alde, eta ez da nahikoa, aho batez onartzeko, aurkako botorik ez egotea.

### **2010/09/29 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 8. legealdia

DATA: 2010/09/29

ERABAKIAREN ARDURA: Gizarte politikako batzordea

ERAGINA DAUKA: 143.4 artikulua

TESTUA:

Gai beraren gainean Batzordean ahoz erantzuteko galderaren bat eta agerraldi-eskaeraren bat daudenean, biak bateratu egin ahal izango dira, eta, kasu honetan, agerraldiak gauzatzeko aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.

### **2009/10/07 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 8. legealdia

DATA: 2009/10/07

ERABAKIAREN ARDURA: Osoko bilkura

ERAGINA DAUKA: 155. artikulua

TESTUA:

Erdibideko zuzenketa bat aurkeztu eta erdibideko hori bozkatu arren, osotasuneko zuenketak ez dira bertan behera geratuko.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **2011/09/06 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 9. legealdia

DATA: 2011/09/06

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 156.2 artikulua

TESTUA:

Ebazpen-proposamen bat izapidetzeko onartu dean, Mahaiak aurreko bi-lera batean kalifikatu bazuen, ebazpen-proposamen hori Araudiko 156.2 artikuluan sartuta egon daitekeela ulertuko da.

### **2011/10/06 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 9. legealdia

DATA: 2011/10/06

ERABAKIAREN ARDURA: Araudirako, Erakundeetarako eta Gobernu-rako Batzordea

ERAGINA DAUKA: 47 artikulua

TESTUA:

Araudirako, Erakundeetarako eta Gobernurako Batzordeko ordezkari baktartat Mahaiko kidea duten batzarkide-taldeek, beste kide bat sartu ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe, agerraldiak egiten dituzten gai zerrendako puntuetan.

### **2011/11/02 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 9. legealdia

DATA: 2011/11/02

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 144.4 artikulua

TESTUA:

Mahaiaren iritiziz, diputatu nagusiari zuzendutako eta gai sektorialeiei buruzko idatziz erantzuteko galderei Araudiko 144.4 artikulua aplikatzearen



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

gainean ari garenean, horiek Batzordean aztertzea dagokion batzorde arruntean gauzatuko da, salbuespen honekin: galderaren egileak bere idatzian arrazoitza eskaera Araudirako, Erakundeetarako eta Gobernurako Batzordean aztertzea nahi duela, diputatu nagusiari zuzendutako ekimena delako.

### **2011/11/07 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 9. legealdia

DATA: 2011/11/07

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: [144.4 artikulua](#)

TESTUA:

Egiaztatu denean Foru Aldundiak ez duela Araudiak aurreikusitako epearen barruan ez erantzunik ez komunikaziorik bidali, Mahaiak Araudiko 144.4 artikulua ezarri duenean, eta, ondorioz, idatziz erantzuteko galdera dagokion batzordeari bidali dionean ahozko galdera gisa bideratu dezan, Mahaiak iritzi dio epez kanpo galderaren erantzuna jaso arren horrek ez diela indarrik kentzen dagoeneko hartua zuen erabakiaren ondorioei.

Hori dela eta, Mahaiak erabaki du Foru Aldundiak bidalitako erantzuna espedientean geratuko dela, jaso gera dadin, eta galderaren egileari helaraziko zaiola, eta dagokion batzordean bideratzen jarraituko dela, kasu honetan izan ezik: galderaren egileak adieraztea erantzunarekin nahikoa duela eta galdera erretiratzen duela.

### **2011/11/07 (2) AURREKARIA**

LEGEALDIA: 9. legealdia

DATA: 2011/11/07

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: [103.4 artikulua](#)



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### TESTUA:

18. zenbakia duen zuzenketa (859 erregistro zk.) azken xedapen bat sortzeko da, Batzar Nagusien Araudiko 19. artikulua aldatzeko. Mahaiak erabaki du ez onartzea izapidetzeko, ez duelako zuzentudako testuarekin erlazio materialik.

### **2014/01/14 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 9. legealdia

DATA: 2014/01/14

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 13.3 artikulua

### TESTUA:

13.3 artikulua ez duenez zehazten Osoko Bilkuran gai hau bideratzeko zer prozedurari jarraitu behar zaion, erabaki da Araudiko 142.3 artikuluan osoko bilkuretan ahozko galderak gauzatzeko jasota dagoen prozedura aplikatzea analogikoki.

### **2014/05/20 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 9. legealdia

DATA: 2014/05/20

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 156.3 artikulua

### TESTUA:

Mahaiak erabaki du aldatzea aurretik ezarrita zeukan praktika, hots, bi batzarkide-talde edo gehiagok aurkeztutako ekimenak, Araudiko 156.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, talde horiei guztiei zenbatzekoa. Horren ondorioz, batzarkide-talde batek baino gehiagok aurkeztutako ekimenei Araudiaren bidez kalterik ez egiteko, Mahaiak erabakitzen du horrelako ekimenak batzarkide-talde sinatzaileetako bati bakarrik esleituko zaizkiola, Araudiko 156.3. artikuluan xedatutakoaren ondorioei



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

dagokienez soilik. Alde horretatik, Mahaiak batzarkide-taldeei eskatzen die ekimenean zehaztu dezatela batzarkide-talde sinatzaleetako zeini esleituko zaion.

### **2015/12/09 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 10. legealdia

DATA: 2015/12/09

ERABAKIAREN ARDURA: Osoko Bilkura

ERAGINA DAUKA: 73 artikulua

TESTUA:

Puntuz puntu bozkatzeko eskatuz gero, organoa osatzen duten kideetako inork uko egin ezean bakarrik egin ahal izango litzateke.

### **2016/04/19 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 10. legealdia

DATA: 2016/04/19

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 28.1 artikulua

TESTUA:

Mahaiaren ustez, ganberaren erakunde ordezkartzari dagozkion gaiak denen adostasunez erabaki behar dira, beraz, ez bada adostasun hori lortzen, ulertuko da bertan behera geratzen dela.

### **2016/10/25 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 10. legealdia

DATA: 2016/10/25

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 143 artikulua



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### TESTUA:

Foru Aldundiak dokumentazio osagarriren bat bidaltzen duenean, ekimena Batzordean gauzatu aurretik batzordeko kideek dokumentazio horren berri izan dezaten, kasu honetan gertatu den bezala, Mahaiak honela jokatzearabaki du: lehendakariak berehala emango dio dokumentazioaren berri dagokion batzordeko lehendakariari eta batzarkide-taldeei. Ondoren, Mahaiari bidaliko zaio, jakinaren gainean egoteko eta dagokion moduan jasota geratu dadin espedientean.

### **2022/02/22 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 11. legealdia

DATA: 2022/02/22

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 156.1 artikulua

Mahaiak ulertzen du, Araudiko 156.1 artikuluan aurreikusitakoaren araber, ezin dela ebazpen-proposamenik izapidetu, baldin eta izapidetzen ari den beste baten xede berari buruzkoak badira. Apartatu horretan jasotako salbuespena aplikatzeko prozesu-unea — hau da, bi ekimenak izapidetzeko aukera, baldin eta hasierako ebazpen-proposamenaren proposamen-egileak biak metatzea onartzen badu — Mahaiak batzar-taldeei ebazpen-proposamen bat izapidetzeko onartu dela jakinarazi baino lehen eta, ondorioz, zuzenketak aurkezteko epea ireki baino lehen izan behar da; izan ere, salbuespena une horretatik harago zabaltzeak eragina izan lezake arauzko epeen luzaezintasunean, batzarkide diren gainerako taldeek testuari zuzenketak aurkezteko duten eskubidean eta horiek azkenean onartuko den ekimenaren eduki zehatza ezagutzean.

### **2025/05/07 AURREKARIA**

LEGEALDIA: 12. legealdia

DATA: 2025/05/07



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 71 artikulua

TESTUA:

Aurrekaria, egoera berezietan Osoko Bilkurarako botoa eskuordetzeari buruzkoa.

2025eko maiatzaren 7an egindako Osoko Bilkuran, batzarkide batek osoko bilkura baten esparruan jasandako istripu larria dela eta, Mahaiak, Osoko Bilkuran bertan bildu ondoren eta egoera berezia dela aintzat hartuz, aho batez onetsi du batzarkide horren botoa taldeko bozeramailearengan eskuordetzea.

## EBAZPENAK

### **1/2008 EBAZPENA**

LEGEALDIA: 8. Legealdia

DATA: 2008/05/29

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritza, Mahaia eta Bozeramaile batzordearen oniritziarekin

ERAGINA DAUKA: 162 artikulua

TESTUA:

#### **1. artikulua.-**

Batzar Nagusien erabakiak betetzen ote diren kontrolatzeak, foru-ganberak onartu dituen eta Foru Aldundiari zuzendu dizkion mozi-oak eta ebazpenak ere hartzen ditu.

#### **2. artikulua.-**



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

1. Foru Aldundiak ebazpen edo mozio bat betetzeko aurreikusitako epea luzatzeko eskatuko balu, Mahaiak dauka epearen luzapena erabakitzekeo ardura, Araudiko 83. artikulua araberan.

Mahaiak epea luzatzeko erabakia arrazoitu egin beharko du, Foru Aldundiak eskaeran azaldu dituen arrazoiei erantzunaz.

2. Mahaiak hartutako erabakia batzarkide-taldeei eta Foru Aldundiari helaraziko zaie.

### **3. artikulua.-**

Foru Aldundiaren komunikazioa edo agertzeko eskaintza jasotakoan, aipatutako artikulua aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio, eta, ezta-baida egin eta gero, bidezkoa bada, Batzordeak ebazpen edo mozioa bete ote den edo ez iritzia agertuko du.

## **1/2010 EBAZPENA**

LEGEALDIA: 8. Legealdia

DATA: 2010/10/06

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritza, Mahaia eta Bozeramaile batzordearen oniritziarekin

TESTUA:

**1. ARTIKULUA.-** Herritarren Partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauak 12.2 eta 18.1 artikuluan aurreikusitako partaidetzako tresnaren bat martxan jartzeko Batzar Nagusiek ekimena hartzea proposatzeko, batzarkide-taldeek idatzia aurkeztu behar dute.

**2. ARTIKULUA.-** Foru Aldundiak partaidetzazko deliberazio-prozesu bat egitea proposatzen duen idatziak arrazoitua egon behar du. Aldi berean, adierazi behar dute zer gai izango diren deliberazio-prozesuaren objektu, eta zer ezaugarri orokor izango dituen partaidetzazko prozesuak, bai eta prozesurako proposatu nahi dituzten adituak ere, halakorik proposatu nahi badute.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

**3. ARTIKULUA.-** Foru Aldundiak partaidetzazko herri-kontsulta bat egitea proposatzen duen idatziak adierazi behar du zein izango den kontsultaren objektua, zer prozedura tekniko proposatzen den kontsulta egiteko, eta zer lurralde-eremuan egitea nahi den.

**4. ARTIKULUA.-**

1.- Ganberako Mahaiak idatzia kalifikatuko du. Izapidatzeko onartzen duenean, zazpi eguneko epea zabalduko du batzarkide-taldeek proposamen alternatiboak aurkez ditzaten proposamenaren atal bakoitzerako.

2.- Mahaiak izendatuko du gaia dela-eta zer batzordek duen eskumena ekimena bideratzeko. Salbuespen gisa, ekimena aurkeztu duen taldeak adierazi duelako eta gaiaren garrantzia dela-eta, ekimena osoko bilkuran bideratzea erabaki ahal izango du Mahaiak.

**5. ARTIKULUA.-** Mahaiak jarritako epea bukatutakoan, ekimena ebazpen-proposamenentzako ezarrita dagoen prozeduraren arabera bid-  
eratuko da.

### **1/2018 EBAZPENA**

LEGEALDIA: 10. Legealdia

DATA: 2018/05/31

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritza, Mahaia eta Bozeramaile batzordearen oniritziarekin

ERAGINA DAUKA: 143.2 eta 148.2 artikulua

TESTUA:

Goi-karguek agerraldia bakarrik egin ahal izango dute, beren eskumen-esparrua Batzar Nagusietan eratuta dagoen batzorde arrunt batenaren pa-  
rekoa denean eta beren eginbeharrak diputatu nagusiaren arloan gau-  
zatzen dituztenean.

### **1/2013 EBAZPENA**

LEGEALDIA: 9. Legealdia



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

DATA: 2013/05/31

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritza, Mahaia eta Bozeramaile batzordearen oniritziarekin

ERAGINA DAUKA: 38. artikulua

TESTUA:

Bozeramaileen Batzordeak, Mahaiak proposatuta, batzorde arrunten izena, kopurua eta eskumenak aldatu ahal izango ditu.

### **1/2021 EBAZPENA**

LEGEALDIA: 11. Legealdia

DATA: 2021/10/15

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritza, Mahaia eta Bozeramaile batzordearen oniritziarekin

ERAGINA DAUKA: 158. artikulua

TESTUA:

#### **1. artikulua**

Adierazpen instituzionalak Lehendakaritzak edota batzarkide-talde batek edo gehiagok proposatu ahal izango dituzte, eta idatziz aurkeztuko zaizkio Mahaiari.

#### **2. artikulua**

Lehendakaritzak edo proposamena egiten duen taldeak dagozkion gestioak egingo ditu batzarkide-talde guztien artean adostutako testu bat lantzeko. Adostutako testua lortzen bada, Bozeramaileen Batzordearen gai-zerrendan sartuko da.

Bozeramaileen Batzordearen gai-zerrendan, honela bideratuko da gaia:

- a) Batzarkide-taldearen posizioak finkatzeko txanda bat egongo da, txikienetik handienera, 5 minutukoa.
- b) Ez da onartuko irizpenerako aurkeztu den proposamenaren aldaketarik, salbu eta zuzenketa formal hutsak edo batzarkide-talde guztiek sinatuta aurkezten direnak.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

- c) Adierazpen instituzionala baiespenez onetsiko da, lehendakariak proposatuta, Araudiaren 76. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

### **3. artikulua**

Presazko kasuetan, baldin eta proposatutako testuak batzarkide-talde guztien adostasuna jasotzen duela egiaztatzen bada, proposamena zuzenean Bozeramaileen Batzordean izapidetu ahal izango da, zeina Lehendakaritzak edo bi batzarkide-taldek proposatuta deituko baita.

### **4. artikulua**

Onartutako adierazpen instituzionala erakundearen webgunean argitaratuko da, eta, hala erabakitzen bada, dagokion osoko bilkuran irakurriko da.

## **1/2022 EBAZPENA**

LEGEALDIA: 11. Legealdia

DATA: 2022/01/14

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritza, Mahaia eta Bozeramaile batzordearen oniritziarekin

ERAGINA DAUKA: 158. artikulua

TESTUA:

### **Artikulu bakarra:**

Lehendakaritzaren 01/2021 Ebazpenaren 2. artikuluan aipatzen den adierazpen instituzionalaren proposamena jasotzen duen testu adostua erregistratu ondoren, eta Bozeramaileen Batzorderako deialdia egin ondoren, Talde Mistoko kideak bilera horretara joaterik ez badauka behar bezala egiaztatutako eta Batzordeko kide guztiek onartutako zirkunstantziengatik, proposamena onesteko aurkeztu aha! izanga da, Araudiaren 76. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **1/2024 EBAZPENA**

LEGEALDIA: 12. Legealdia

DATA: 2024/03/14

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritza, Mahaia eta Bozeramaile batzordearen oniritziarekin

ERAGINA DAUKA: [43. artikulua](#)

TESTUA:

#### **Artikulu bakarra:**

Batzorde batean sortutako ponentzietan bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dira, hala nola bideokonferentzia, baldin eta agerraldia egingo duten pertsonak 100 km-tik gorako distantziara badaude eta, betiere, bermatzen bada pertsonaren nortasuna, adierazpenen edukia, adierazpenok gertatzen diren unea, bai eta denbora errealeko elkarreragina eta interkomunikazioa eta saioan baliabideak erabilgarri egotea ere.

### **1/2026 EBAZPENA**

LEGEALDIA: 12. Legealdia

DATA: 2026/04/30

ERABAKIAREN ARDURA: Lehendakaritza, Mahaia eta Bozeramaile batzordearen oniritziarekin

ERAGINA DAUKA: [35.2. artikulua](#)

TESTUA:

#### **Artikulu bakarra:**

Idazkaritza-lanak egiten dituzten bi pertsonak ezin badute Bozeramaileen Batzordera joan salbuespenezko egoerengatik eta ezinbesteko arrazoiengatik, Mahaiko lehendakariordeetako batek jardun ahal izango du idazkari gisa baldin eta Mahaiak edo Batzar Nagusietako lehendakariak



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

eginkizun hori esleitzen badio. Gauza bera esan daiteke idazkariak Gipuzkoako Batzar Nagusietako beste organo batzuetan dituen eginkizunei buruz.

### MAHAIAREN ERABAKIAK

#### 2015/09/8ko MAHAIAREN ERABAKIA

LEGEALDIA: 10. Legealdia

DATA: 2015/09/08

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 12.3 artikulua

TESTUA:

12.3. artikulua:

“Batzarkideek eskubidea dute batzordeen bilkuretara joateko batzordeko kide izan ez arren; hitz egiteko eskubidea dute, baina ez dute bozkatzeko eskubiderik”

Batzar Nagusietako kideek batzordeen bileretan duten parte-hartzea antolatzeko, Mahaiak batzarkide-taldeei eskatzen die Araudiko 12.3. artikulua arau hauei jarraiki aplikatzeko:

Artikulu hau batzorde arrunten eta Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordearen bilerei aplikatzekoa da. Azterketa-batzordeetan, haiek eratzerakoan ezarritakoa beteko da.

Batzarkide-taldeen, batzordearen bilera hasi aurretik, batzordeko lehen-dakariari idatziz jakinaraziko diote artikulu horretan ezarritako baldintzetan taldeko zein batzarkide joango den dagokion bilerara. Eskubide hau batzarkide-talde bakoitzeko ordezkari bati mugatuko zaio.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Horretarako, ganberako idazkaritzak inprimaki bat jarriko du batzarkidetaldeen esku, 12.3 artikuluan jasotzen den eskubidea gauzaten den bakoitzean betetzeko.

Artikulu hau aurreko paragrafoetan finkatutako formalitateekin aplikatzeak berekin dakar bilerara bertaratzen den kideak batzordeko mahaian kokatzeko eta bere taldearen izenean hitz egiteko eskubidea izatea.

Bileran prentsakoei eta gonbidatuei dagozkien tokietan eseri nahi duten batzarkide guztiek hala egin ahal izango dute, eta horretarako ez da mugarik egongo, aretoaren edukierari dagokiona izan ezik.

### **2017/10/2ko MAHAIAren ERABAKIA**

LEGEALDIA: 10. Legealdia

DATA: 2017/10/02

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 28.1.2) artikulua

TESTUA:

Batzar Nagusien Araudiko 28.1.2) artikuluan xedatutakoari jarraiki, Ganberaren aurrekontutik gastuak onartu ahal izango ditu Batzar Nagusietako lehendakariak bi bilkura-aldiren bitartean, baldin eta gastuok atzeraezinak badira. Hori egikaritzeko emandako ebazpenen berri Mahaiari emango zaio.

### **2018/03/20ko MAHAIAren ERABAKIA**

LEGEALDIA: 10. Legealdia

DATA: 2018/03/20

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 42. artikulua; 47. artikulua; 48. artikulua

TESTUA:



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

Batzar Nagusien Araudiak ezartzen du Erakundeetarako, Gobernurako eta Araudirako Batzordeko Mahaia (47.1. artikulua) eta Eskaerretarako eta Herritarrekiko Harremanetarako Batzordekoa (48.2. artikulua) Batzar Nagusietako Mahaiko kideek osatuko dituztela.

Inguruabar horri jarraiki, orain artean ulertu da Mahaiko kideei berez zegoen estatutu juridikoa aipatutako batzordeetako mahaikide izateari egokitzen zitzaiola. Horren ondorioz, orain artean interpretatu izan da kide horiek inork ezin zituela ordezkatu bilera jakin baterako.

Edonola ere, horrek eragin du zenbait egoeratan batzarkide-talderen bat boto-eskubidea egikaritzeko aukerarik gabe gelditzea, talde horretako Mahaiko kidea bileran ez zegoenean. Jarduteko modu horrek taldeek parte hartzeko duten eskubidea mugatu dezake, ezin baitute gai zehatz bati buruz duten jarrera politikoa azaldu Batzordean botoa emanaz.

Horregatik, Mahaiaik gai horri buruzko irizpidearen aldaketa utzi nahi du jasota; hala, aurrerantzean, batzorde horietako mahaietako kideen ordezkapenak egiteko araubidea gainerako batzordeetakoen berbera izango da eta, beraz, 42. artikuluko bigarren paragrafoa aplikagarri izango zaie.

### **2018/06/5eko MAHAIAren ERABAKIA**

LEGEALDIA: 10. Legealdia

DATA: 2018/06/05

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

ERAGINA DAUKA: 44.3 artikulua

TESTUA:

Batzorde arruntetako lehendakariari eskatzen zaie Araudiko 44.3. artikulua babesean deitutako agerraldi-egileei gonbit egiteko beren lehenengo azalpena hogeita hamar minutukoa egin dezaten, agerraldia eskatzeko bidaltzen zaien idatzian adierazten den moduan; hala, beren hitzaldien edukiarekiko errespetua eta ganberaren funtzionamendu osoa harmonizatu ahal izango da.



## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ARAUDIA

### **2024/03/5eko MAHAIAREN ERABAKIA**

LEGEALDIA: 12. Legealdia

DATA: 2024/03/05

ERABAKIAREN ARDURA: Mahaia

TESTUA:

Batzarkideek ganbera honetatik kanpoko zentroetara, instalazioetara edo lekuetara egiten dituzten bisitak behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dizkiote Mahaiari batzordeko lehendakariak, bisitaren kostuari buruzko aurrekontua erantsita, eta akordio honen oinarrietan adierazitako baldintzak kontuan hartuta.